



Euskerazaintza

Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

**Euskalerriaren
edestia VIII**

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpidesaria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zenbakietan.

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINNTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafiik.com

Laguntzaille

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Euskalerrriaren Edestia

2. ZATIA	9
3. <i>Aurkezpena</i>	9
1. 4. <i>Sarrera</i>	9
<i>Euskal demokraziaren batzar-legeak</i>	9
1. 5. <i>Orregaitik</i> :.....	10
1. 6. EUROPAREN MENDEBALEKO EUSKALERRIA	13
1. 7. EUSKALDUNAREN BEREZKO "BAITA"	13
1. 8. MUNDUAN	15
1. 9. BIZKAIKO JAUNTZAN	15
10. <i>Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?</i>	16
1. 11. <i>Eta zeintzuk izan ziran, Asturias, Leon, Gaztela, Erroma ta Franko erregeak, katolikotasunean batzangotzeko, Nizeatik ekarten ebazan legeak, Euskalerrrian sortu dagien ainbeste arazo, eta gero, Europako erregetegi guztietatik zabaldu zitezen ?</i>	18
1. 12. <i>Baita, zelangoa ote zan Katolikotasunezko legea, Europako errege guztientzat?</i>	18
1. 13. <i>Zergaitik sortu zan Pase Forala, edo Foru Baimenaren Legea ?</i>	18
1. 14. ISABEL ta FERNANDO KATOLIKUAK, BIZKAIKO JAUNAK LEZ	19
<i>Isabelek</i>	20
1. 15. <i>Kondañok Foru Baimenagaitik, aurkezten dauskuezan e giztatuak</i>	21
<i>Euskalerrriak eroan eben jaurkintza</i>	22
1. 16. <i>Kondañok, aurkezten dauskuzan gertakizuneko frog batzuk</i>	22
1. 17. <i>Gure Euskalerrriaren VIII In Ataleko Edestiari oster ebatuta, aldizkariaren egitaraua</i>	25
1. 18. <i>Gure edestiari oster ebatuta, Frantziko Iraultza</i>	26
1. 19. <i>Frantziko iraultza</i>	27
1. 20. <i>1.789ko Orokorrezko Laterriak</i>	29
1. 21. <i>Oar txiki bat emen</i>	29
1. 22. <i>Frantzezaren konstituzioari bideak zabaltzen</i>	33
23. <i>Frantziko Bateratze edo Elkartzearen Besta-Burutik, Barennes'eko Iges aldira</i>	33
1. 24. <i>1.791-1.792ko urte bitartean, Legegille Batzar ta erregetzaren itzaltze edo erorialdia</i>	35
1. 25. <i>Austria eta Prusiaren aurkako Frantzezaren guda</i>	36
1. 26. <i>Frantzezaren bigarren iraultza, eta Lenengo rrepublik e</i>	37

1. 27. 1.792ko urtetik 1.795eko urteraino, Itun edo Aberriaren Ongundeko jaurkintza.	37
1. 28. XVI In Luisen ilketa eta Europatik lenengo alkartea Frantziaren aurka.	38
1. 29. Itun edo Ongundearen, Rosellon edo Auñamendietako borrokak.	40
1. 30. Frantzian, Gizon eta Mundu edo Uritar Eskubideen Adieraztea.	42
1. 31. XVII In Luis erregea.	45
1. 32. 36n. Jauna, Bizkaiko jauntzan.	45
1. 33. Baztan'eko ibarra, eta Ongundeko frantzez Batzarraren aurka euki eben guda.	47
1. 34. Napoleon eta frantzezaren jaurkintzan, artzopideko agintaritza.	49
1. 35. Napoleonen(4) eskuetan, frantzezaren jaurpide osoa.	49
36. 1.799ko urtetik, 1.804ko urteraino Kontsulgoen jaurkintza.	50
1. 37. Napoleon, orokorrezko kontsula.	51
1. 38. Napoleon, frantzez kaisertzaren kaisar jaun.	53
1. 39. IV n Karlos espainitarren errege.	59
1. 40. Floridablankaren jaurkintza.	60
1. 41. Aranda kondearen jaurkintza.	61
1. 42. Godoy'tar Manuelen leen aldiko jaurkintza.	61
1. 43. Saabedra(2) ta Urkijoren(3) jaurkintzak.	62
1. 44. Godoy'en bigarren aldiko jaurkintza.	62
1. 45. Askeneko larri-unea.	63
1. 46. IV n Karlosen atzerriratzea eta eriotzea.	64
1. 47. IV n Karlosen ezkontza eta euki zituzen alaba- semeak.	64
1. 48. Bonaparte'tar I Jose, Pepe Bonbil edo Botellaren izenagaz ezagutu zan, I Napoleonen anaia.	65
1. 49. XVIII In Luis Frantziko erregea.	68
1. 50. Napoleonen, jaurkintza azko 100 egunak.	76
1. 51. XVIII In Luisen, bigarren ezko jaurkintza taldea.	77
1. 52. XVIII In Luisen eriotzea eta ondorengotasuna.	80
1. 53. Frantziko Xn Karlos.	80
1. 54. Frantziko Xn Karlosen koroatzea.	81
55. Uztailaren iraultza.	83

<i>1.56. VIIIn Fernando.</i>	<i>85</i>
<i>1. 57. 37gn Jauna Bizkaiko Jauntzan.....</i>	<i>90</i>
<i>1. 58. Bizkaiko azken jauntza onen ondorio laburra.....</i>	<i>93</i>
<i>59. Euskalerriko Edestian VIIIn atal onen Ondorioa.</i>	<i>94</i>

Eranskina:

<i>LAS CONFIRMACIONES Y PASE FORAL (KONDAÑO).....</i>	<i>99</i>
---	-----------



www.euskerazaintza.org

**550.000
BISITARI**

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589



EUSKALERRIAREN EDESTIA VIII.



3. *Aurkezpena.*

VIII In atal onen sarrera, Zabala Ozamiz ta Tremoia'tar Angeru "*Kondaño*"ren omenez egingo dogu.

Berak, 1.909ko urtean Dagonillaren 31n Donostin, Biblioteca de Gipuzkoarra Liburutegian, Donostiko R. Altunaren irarkolan irarrita aurkeztu euskun "*Las Confirmaciones y El Pase Foral*", nire eskuetan Egurrola'tar Iñakiren bidez agertu dana, eta argitasun andikoa izan da, ezin dot aipatu barik itzi, oso garrantzitzua dalako gure euskal eskubideak argitu dagiguzan.

Len, sarrera bat eginda, guk Euskalerriaren eta Izadi ta Europa onen errigizarteen edestitik dakiguzenakaz, Euskal Legeakaz berdinkatzeko.

1. 4. *Sarrera.*

Euskal demokraziaren batzar-legeak.

Gaur, 2.017ko urtean Orrillaren 15ean, gauza asko entzun eta ikusten dodaz, Aberri, Jaio edo ta Nacido'ren itza dala ta, Sozialista ta PP'koentzat.

Astokeri galantak entzun be bai, Rajoi, Lopez'tar Patxi eta alakoak agoa zabaltzen ikusi nebazanetik, eta euren esanetan:

a) Aberri edo Nazioaren itza berreun urte bakarrik daukazela⁽¹⁾. Izadi onen giza jaioten asi zanetik, oraindik ez dakiguzan ainbat milloi urte eukinda

Zergaitik Izadi onetan: "*beretzasunean Jaio, Jendekuntza bidez Aberritukoa edo ta beste goiko mailla batera Jaioa*", eta giza, landara, abere-arrain ta abarren artean jaioten dan gauza guxtiaren jaiotzezko itza ori ?.

Gure gizaren arduradunezko ulermen edo argitasunarentzat, ordezkaritazko Izadi onetan, gauzak, euren ezberdintasunean bata bestearengandik adierazpentzeko, izen ori ipini bear geuntselako, Mundu onetan bizitzazko edozein gauza, bere agertasunetik asita, bizitzazko gauza orreik bakarrik daukielako, jaiotzeko izen buru orren jabetasuna.

Eta ori jakinda, argi agertzen dalako Izadi onen asieratik gaur arte, gu, irasleen almenetik kanpo egonda, irasleen gauzarik ezin doguzela egiñ, gure azturaren asmakuntzazko ekintza bidetik, gaiagaz egin bear doguzan eras aldatu edo bestelakotu gizaren zerbitzura, Jaungoiko Irasleak Izadi oneri ipini eutsoezan legeen arau antzera edo erara egitea baiño besterik.

Bai esaten dabe, eurak dirala, Nazioren arteko edo Aberrien arteko Nazioa "Erri-gizartearen Demokrazizkoak edo Social Demokratik" izanda.

(1) Patxi Lopez'ek: Aberria edo Nacido'en izena 200 urte bakarrik daukazela esaten dau = Au da, 1.812ko urtean Kadizetik espainitar gudar nagusiak, Pepa'ko konstituzioa gudaren ekintzagaz sartu ebenetik. Izen orrek, milloi urte asko daukazenak jaiotzeko mundu onen aurka.

Nundik atara dabez, eta zelako eskubideekin, sasi-jainkoen norkerizko izen buru orreik ?.

Argi ikusten jakie, errekea loi gure dabela, euren irabazpideak aundiagoak izan zedin.

Oraindiño, ez ote dira konturatuko, Errigizarteko edozein Demokrazia, nor-beraren arduragaitik asita, sendi, auzo, erri ta erri orren lurraldeak daukien izkuntz bat, erlijio edo Jaungoikua gurtzeko era bardiñak, eta berari lotuta daukazan oitura ta baitakin, azpitik gora jasotzen dirala errigizarteren ulermenezko oitura orreik ?.

Zor-eskubidearen ordezk bizi onetan, bakotzari berea emonda lortzen da, Mundu ta Europa oso onetan, berezko errigizartearen demokrazi orreitan ezartzea.

Azpitik gora esangura dau ordezkartitzazko Joko orrek, ez goitik bera katolikotasunezko fazizta orreik gure daben lez.

Lenengoak, askatsunaren demokrazizko zaleak dira mundu onetan, eta bigarrenak, menperatzaileak.

1. 5. *Orregaitik:*

Nai len esanda badago be, ostera berriztu egingo doaz lengo saio onen zentzuak, Foru Baimenaren ekintzari, argiaren zertzelada bat geiago emoteko

Sinistu eziñezkoa da, mundu onetako gizartea jakintzan ain mailla aundikoa izan eta kontuan artu ez, gurentzat asierazko denborak eta gaurkoak bardiñak dirala.

Jaungoikoarena izanda Izadi onen sorraldi au, ludi onek guretzat ez dauka asiera eta amaierarik, ez eta gitxiago, gure eskuetan bera ezereztuteko almenik.

Guk, gaiaren arloetan eta gizartearen arremetan egin geinken guztia, egitarau⁽¹⁾ eta azpiegiturazko⁽²⁾ antolakizunetan erabili bear doguzan oitura edo ta ekanduzko eritziekaz mugatzen da.

Eta errigizarte artearen ekanduzko arremetan gaur ikusten dogun maltzur ta zapaldu edo menperatzeko guzurra, gorrotogarria eta ikusiaz batera, naska emoten dauan gauza dala.

Mundu onetako **gizatuak** sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egin bear doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuta ta danontzat bardiñak diran legearen baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura andiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear dituguzenak bizi garan zerbitzurako. Bestela egiten dogun guztia, oker, ankazgora, zentzubage ta neurrian edozein gauzatan urtengo leukezelako, orekak leku guztietatik galdu ondoren, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur gertatzen jakun lez.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak tresneri lez kontuan artu bear dabezanak gauza guztietarako, eta ekanduzko ardura bardiñak diruzko zor eskubidearen arremanetarako, ordezkartitzazko antolaketak egokitzen dabezenean.

(1) Egitarau = proyecto, regla, método. (2) Azpiegitura = infraestructura, subestructura, parte inferior, base o cimiento.

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako daukazan mukulluak⁽¹⁾, orokorreko askatasunean bananduta egonaz batera, bere irudiaren eraikintzarako, mukullu arteko gintzan daukien erakarrezko indarra, eurak osagarritasunezkoak izan daitezen legea da, eta bide batez, gurentzat diran indar orreik ulermenduta, gure arteko osagarritasunaren eragilletasunerako, garrantzi aundiko bizi-tresneri bat.

Orregaitik, *Izadi oneitara Jaioten garan guztiak, zorreskubideko arduraren, bardiñak izanda, bear-bearrezko ordezkartizan jaioten bagara, Ludi onek daukazan berestutako lege orreik dira, gure arduraduneko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritzkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, gaiaren antzera, zeregiñ bardiña daukagulako.*

Eta Jainkoari begira egiten doguzan gauza guztiak, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, azturazko bide orreitan eraikitako izkuntz, etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik dira, oiñarri lez ipini bear doguzanak, bizitz onetan askatasunezko orekan irautea gura ba-dogu.

Danon lotsagizun edo begirunezko ardureak bear doguzelako ortik aurrera, gai-gizaren bizitza onentzat egiten doguzan egitamuak, zentzuz gauzatzeko, eta alkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroan bear doguz.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailetasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez **ziurtasun guztiagaz**.

Gaurko politikuak, berezko gai legeak eta gizaren eskubideak ez dabezelako oiñarritzen, eta gitxiago erabiltzen, guzurraren eragipenagaz sortzen dan entrabalo indartsuagaz, agindu egiten dabezan gauza guztietan, gai-giza arloetan dana, naastuta lez agertzen da.

-Gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

-Gizaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gosea, gaitzaldi, elde edo izurriteak⁽²⁾, eriotza, borroka, aitu eziña, eta arduragabekerizko itsutasun aundia.

Bizitzeko lortzen doguzan gauzaren mozkiñ guztiak, batzango edo norkerizko agintari zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda-indarrezko keiñada gogorrek erabiltita, nai gaiaren edo ta danon giza-eskubideko ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzanak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratara betetea, eten-bageko menperatzail ekintzan.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bear zan guztia eraikiten, euren poltsikoak beti berriz beteta eukiteko.

Baiña gaur, beste alango borroka bat egiteari, eurak be bildur direlako, demokrazia-aren indar bidez, maltzurrezko guzurrak eten barik, gero ta indar geiagorekin argira igoten dabe, eta orain 1.692 urte Nizean, berezetasunaren aurka asmatu zan batzangotasunaren goitik berako agintaritzaren gizagorputz ori, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.

Zergaitik ?.

(1) Mukulluak = polvo, átomos. (2) Elde edo izurriteak = peste, epidemia.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen garean lez, argi erakusten jaku:

a) Osagarritasunezkoak garala jaioten garan guztiak.

b) Kundeatzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garela.

d) Gure eragilletasunean orregaitik, gai ta giza guztiaren eskubideak *kontu aundian artu bear dituguzela ezereen aitzaki barik*. Banaka, talde, leiñu, edo ta errigizarteak euren bereztasunezko aztura bidetik, izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereizkotasunak, nai banaka edo ta erri ta errigizartearen arteko ulermenean bereiztasun bardiñetan sartuta, danak eskubidedunak diralako.

Eta giza gorputz, izkuntz, ta ulermeneko arloetan egoten diran berdiñ-ezak, bakotxa, auzo, leiñu ta errigizarte lez, bakardadeko azturan bizi izan diran toki-inguruak emoten dautsielako da.

e) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure almenean ez dago iñungo iza-tasunik: *“irazale, sortarazle edo eta sortzailletasunezko arloetan”*.

Orregaitik, gure zentzunezko alegiñetan, iñorentzat ezerezo legerik egin barik, alegiñ guzti orreik, Jainkoaren legeditik artu bear diranak dira, euren kanpotik lege guzti orreik, norkerizko menpekotasunetan biurtzen diralako.

f) Ala, mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

Zetan ete gabiltz ?:

Jainkoagan eta bere legeetan sinismena sendotzen, ala, sasijainkoarenak egiten ?.

Ludi onen sorraldiagaz bear dogunerako, dana dago asmatuta, gure asmakizunetarako bere gai-kopurutik bereiztuta artu bear doguzelako gai-indarrak. Or dagoelako bear dogun guztia.

Mundu onetara jaiotzen garanean, gure arima gai-gorputzagaz mozorrotuta agertzen da, asmakuntzaren egikerarako bear dauan zentzumen eder eta mirariakaz.

Danak bardiñ, eta bearrezko eskubide bardiñakaz jaioten bagara: *bear doguzan gauzetarako, zelan erabili bear ote dogu gorputz ori ?*.

Gudan ?.

Ala, nortasunaren baitazkoak izanda, eta gaia ta gu bere legeakaz erperatuta egon-da, arimaren arrazoizko zentzumenean, ulermen onak alegintzen dauskun lez ?.

Or, ez liteke zalantzarik egon bear.

Beste aukerarik ez dagoelako, argi esan gura dau guzti orrek, ordezkaritzaaren ekan-duzko bizi batera jaio garala.

Ordezko ardura orreik baiña, zelan erabiltzen doguz ?.

Saiatuko naz naste-borraste orreik argitzen, oraingo Euskalerrriaren edesti onen ardurazko idaz-saii⁽¹⁾ bidetik eginda.

Leen, oso polita dalako, eta bigarren, euskal ardurazko begiak zabaltzeko, oso bearezko ta argigarria dalako.

Ezinezkoa da Mundu fisiko onetan, Zentzunezko Demokrazi on baten jokatzan gabizela esan, danoren berezko ardureak, guda indarrez bete bear diranean.

(1) Ardurazko idaz-sail bidetik = escritos comprometidos en un tiempo determinado.

Geiago, gaur daukoguzan mendeko Laterri onen eskuetan artu, eta erri ezbaridiñak garela kontuan artu barik, euren erritarrakaz naastuan, ardura orreik zigor eta espetxe-ko meatxu bidez bete dagiguzala beartzen gaituenean.

Eta berezko demokraziaren askatasunezko zentzu ori dalako, gaur berrezkuratu egin bear doguna, bizierazko asieratik asiko gara, berezko erri ta euren artean euskal-erriaren Foru Baimenaren egia frogatzeko.

1. 6. *EUROPAREN MENDEBALEKO EUSKALERRIA.*

Euskalerrria da Europako Mendebal onetan Paleolitiko-Neolitiko bitartean euskal azturazko ekintzan bizitzari, adierazpen ederrena emon eta gero, lortu eban jendekuntzazko demokrazi andiagaz, Euskaldun edo Euskalerrri demokratiko lez Nortasundu zana.

Europako Mendebal onetan, milla urte askoren bitartez bakarrak izanda, Keltiar-rrak K.a. 2.000 urte inguru Alemaniako lurraldeetan agertu arte, pare bageko aukera euki gendun. Euskeraz Jendetu ta Nortasunduteko, Eskoziatik Kadizeraiño eta Atlant-itsasotik Alemania erdiraiño lurraldeetan.

Aukera ederra benetan Jaungoikuak emon euskuna, Ekialdeko jendekuntzak baiño 3.000 urte atzeratuagoak izan arren, demokraziaren zetzuz azi edo azkortzeko.

Eta Ekialdetik norkeriz lokaztuta agertu ziranakaz, ordutik ona asi jakuzan euskaldunai, gaur oraindiño daukaguzan arazoak, erri-aldean agertu ziran giza-leiñuak euren ulermenezko buruetan, norkeri orreikaz naastekatuta agertu ziralako.

Euskalerrriak orregaitik, askatasunezko demokrazi orren sinismenekoa izanda, ez dau bear iñoren beartasunik danon ulermeneko Elburura eldu daiten.

Bera dalako Askatasunaren Demokrazizko izar andia Europako Mendebal onetan, baita Izadi onen gizari erakusteko be, zelako baldintzak diran bear doguzenak, demokraziaren zetzuz bizitzeko, Erri Ezberdiñen Ulermeneko Antolabidera eltzen garanean.

1. 7. *EUSKALDUNAREN BEREZKO "BAITA".*

Jainkoaren Legeari begira, bizi onen milla urte askotako egilletasunaren edestiko etorkizunean artu genduan gure Arimetan, daukagun Euskal Baita⁽¹⁾.

Menderatzailleak, euren elburuak lortzeko, guzurragaz, zirriborrotu egin gura dauana.

Ezinezkoa da baiña.

Gure bizi ekintzazko alegiñean, azpiegituraren⁽²⁾ egilletasunerako⁽³⁾, gai bizi onek aukera azkoko ditekene⁽⁴⁾ lege edo oiñarri⁽⁵⁾ bidez, aurkezten dauskuzan gai gauzakaz bakarrik balio bear garelako.

Ba aldaukagu beste aukerarik ?.

Gaur asko dakigu egilletasunaren gora beran, gure jakintzazko arloan zeaztasunezko zertzelada asko daukaguzelako.

Eta gure ekintzaren aukerarako jakintza orregaz, amaibakoa izanez gain, aukera bakoitzaren ditekeneak be, beste amaibako zabaltasun aurrean aurkezten gaituelako.

(1) Baita = conciencia. (2) Azpiegitura = infraestructura, subestructura. "Infra" = debajo, "Estructura" = base de un edificio, o, cosa que queremos hacer. (3) Egilletasuna = gestión. (4) Ditekeen = posibilidad. (5) Oiñarri = premisa, base de lo que se puede inferir, o, hacer otra cosa.

Baiña, Irazale edo Sortzailleak al gara ?.

Ez.

Asmalarien aukerea baiño besterik, ez daukagulako.

Gure antolakuntzaren egiña orregaitik, gaiak zeaztasunezko bereizkuntzan aurkeztu egiten dauskuezanak oituratzeko edo, gure jakintzazko agerbidean zeaztasunezko gauza orreik, ezaugarritasunezko izenakaz ezartzeko, euren izatasunezko nortasunean antolatuta gorde egin bear doguz, bestela, olan ez balitz, gure egiñaren lana korapillotu edo ezinezkoa bihurtuko zan.

Mundu onetan, gaituta gagozan gizon emakumeen artean bardin sortzen da.

Gizaren bakardadezko zabaltasunean, Jainkoaren Legeari begira azturazko sorkuntzan, eta euren leiñuzko edo senide babes bidean, gure bizitzan artuemoneko zentzuak alan eskatzen daualako, al gendun antolakuntz onenean eta bakotxaren izatezko ezaugarritasunean, legezko edo jatorrizko adierazpen eder aundi bat emon geuntson bizitz oneri.

Besterik al geinke ?.

Eta Munduko gizaren zentzua, nai ezberdintasunezko itxuran edo ta, ezberdintasunaren izenezko Nortasunekin agertuta, bardiñ-antzekoa bada, ori al ote da arrazoi, batzuen sasi norkerizko naikeriagaitik, berezkotasunaren izatasunezko Nortasun ugaritasuna, batzango mende asmo orren bidez, indarkeriz ezereztuteko ?.

Ze ulertzen dogu bizitz onen gaitik, edo Nora joan edo zer egiteko daukagu ainbeste estura edo larritasunekin ?.

Gaur eguneko salerosteko merkantil jendeak, Jaungoikuak Izadi onen gai bizitzari emon eutsoezan aukerak janariekin janzteko, *saleros-merkantilkerirako leen egille edo sortzaille* lez artzen dabe, gaiezko Izadi au atsegin-baratz edo, Zeruko parabisua izan balitz bezela.

Orretarako agertzen ote gara Bizitz onetara ?.

Bereztasunezko ordezkartitzaren ardurazko zentzua uste dot galdu dogula.

Giro orretan, Jaungoikuak ipini euskuzan legeen ordezkari bizitzaren zentzutik, nortasuna galdu dogulako.

Mundu onetako gizasemeak beartuta gagoz, guztien adimendu edo ulermen bateko elburura eltzea, Munduko lur au bakarra izanez gain, danon ardurazkoa dalako.

Baiña ez, mendeko sasi asmalari oiek esaten dabelako.

Gaituta gagozan gizaseme guztiak, sinismeneko ulermen orreitara eldu bear garalako baizik.

Noz ?.

Danon Ulermeneko Elburu orreitara eltzezko aokatuta gagozan lez, gure biziko ekintzak Beren Legeari begira, eta eskubidearen ordaiñak lots aundiko ekanduan ordezkatzeko, bere denbora bearko dabe. Gauza orreitan ariñeketeak ez daulako balio.

Eta gizaseme alabaren zor eskubideko jokoa izanda, Ekanduzko ekin bidean, Ordezkartitzaren Elburuzko Ulermen orreitara eldu bear garalako.

Jainkoaren Legea bada, zergaitik edo zeren billa sartzen gara Bere Irazalezko gauzatan ?.

1. 8. *MUNDUAN.*

Orregaitik, Mundu onetan norkerizko asmakuntzan dabizen menperatzaillak eta guda indarragaz dabilzan batzangotasunezko alegiñak, alperrezkoak biurtzen dira.

Maltzurkerizko asmo orreik, gaur erabilten diran lez, ekanduaren zentzuzko bide-tik kanpo guzurrezkoak izanda, sekula ezin diralako egizkoak biurtu.

Jainkoaren Legeakaz gure bizitza, nai amaibako aukerazkoa izan arren, arduraren zentzuzko bide estu baten sartuta, egitik guzurrera oinkada txiki bat baiño ez dago.

Eta or baiez tatu ziran benetan, gure izatasunezko Arimaren Baitak, Bereztasun oneri begira, guzurra eta egia zer dan ondo jakitera eldu giñelako.

Jainkoaren gauza izan da, oldoztu al geinke, Lege orren aurka egin geinkela ?.

Bide ortatik alegindu ezkerro, amaibako buru apurtzen doguz bere aurka, Europa-ren gaur egun arteko edesti guztian, ikusten dogun lez.

Mundu onetan, Iñor ez dalako Nor bere asmakisunezko legerik egiteko, Izadi one-ri Jainkoa Berak ipini eutsozan Legetik ez ba dira artzen.

Iñor ez dalako nor, iñoren ardurazko zor eskubideakaz, maltzurtasunez jokatzeko.

Bizitzaren oiñarrizko zentzuak barriz, argitaratu ondoren, eta Kondañoren lanean sartu orduko, sarrerazko aurkezpen labur bat egingo dautsuet, euskal jatorritasunezko legearen zentzuak zeintzuk ziran jakiteko.

Baita Gaztelarrak, Nizeako eleiz batzarretik erabili ebezan katolikoatsanean batzangotzeko legeak.

Eta aztu barik, oraindiño, Erroma'tar kaisar katolikotasunez aberrituteko ale-giñean, erabilten dabezan norkeriaren guzurrezko legeak, Izadi onen erri guztiak, Erromako Kaisertzaren katoliko lege menpean Batzangotzeko aberri lez, zeintzuk di-ran, kontu aundian euki dagiguzen, aurrera begituten danean.

1. 9. *BIZKAIKO JAUNTZAN.*

Bizkaiko batzar nagusiaren baldintzak, Jaunakin alkar aditzeko:

Bizkaitar batzar-nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak artekari la-nak egin egiezan:

a).- Gudal-buru izateko.

b).- Zuzenbidearen buru-nagusia izateko.

d).- Bizkaiako errigizartea ta bere ondorengo lur zabalak zaintzeko.

Eta Jaunaren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain almen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia⁽¹⁾, itzalgarritasu-nean⁽²⁾ ezarri egien emoten eutselako.

Orregaitik, erabakitasunean, egilletasunean eta lege-egilletasunetik apur bat baiño bakarrik, ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra *errian egoala* erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta ge-ratu zan: beren gauzatarako izaten zanean eta *gudarako gizonen laguntza bear ebenean*,

(1) Antolarazia = organizar. (2) Itzalgarritasunean = en el respeto, o con todo el respeto.

gure **batzarra**, beartuta geratu zalako bere guda taldea gure mutillakaz osotutea, eta beren gauzatarako aukera orreitan izaten zanean, **gure gudarrien soldatak, aurretik ordainduta**.

Ortik aurrera eta erromatarrak Euskalerrian sartu ziranean bezela, gure lurraldearen jabetasunezko jaurkintzak eta gureak diran askatasunezko demokraziaren eritziak babes zaintzeko, Bizkaiko Jaunak eskatutako baldintza orren erruz, Euskaldunak beartuta, beti borrokan agertu gara gure artean.

Orreik izan dira ordaindu bear izan doguzan sariak, Jainkoaren legeari begira Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu genduzan askatasunezko demokrazi ederrak zentzu aundiz zaintzeko.

10. ***Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?***

Euskal batzarrak almen guztia euken, Jaunak ziñez ez ba ebezan artzen batzarren agindutako baldintzak, edo eta ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba ebezan eukiten, emon jakien arduretatik kentzeko.

Bizkaiko batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna.

Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak Jauna ipini ta kentzeko.

Eta adibide batzuk argituko dodaz:

-1.137ko urtean IV Lope, Gaztelako VII In Alfonso erregearen alde egon zalako, Nafarroako VI In Gartziaren aurkako borrokan, bera kendu eta Nafarroako erregeagaz alkatu ziran.

-1.454ko urtean Epaillaren 4an Gaztelako IVn Enrike erregeari: Bere jaurkintzazko leenengo denboretan, Bizkaia jauntza ziñ egin barik artzeko ibili zalako, edo gudartean ibilteagaitik mandio-urdiñenak egiten⁽¹⁾ bai beintzat egon zalako, 1.457ko urtean epaillaren 2an Batzar-Nagusiaren keiñu bidez beartuta, Gernikan Antiguako Amaren Eleizan, Erriaren Lur-Zelaiako Foruak zindu ebazan, eta ille orreitako 10ean Billak edo kolonizatuko Uriak Bermion.

-1.469ko urtean erregeak, Bizkaia kolonizatuko Uriak eta lurak saldu ebazala surmurrua zabalduta. Bizkaitarrak, surmuru orrein azalpenak eskatu eutsozan erregeari eta onek, **Guzur aundiak zirala esanda, bakeztu eben urduritasuna**.

Bizkaitarrak ez eben ontzat artzen surrumuru ori eta erregeak eskutitz baten bidez Bizkaitarrak oster a guzurtzen dauz, Gaztelako erregearen asmo-oso, Señorioa zatitu eta alokatzea zalako⁽²⁾.

Eta Bizkaitarrak batzartuta artu eben erabagia, Jaun-txar ori bereala kendu ta Isabel⁽³⁾ beren ugaz-arreba⁽⁴⁾ izendatzea zan.

IVn Enrikek, ez eban onartu erabagi ori, ta lenengo maltzurtasunez⁽⁵⁾ jokatuta, larderi az gero⁽⁶⁾, eta 1.470ko urtean Epaillaren 4an bere errege aunditasunean Bizkaitarren aurka galdu eben borrokagaz minduta, onartu eban, **Bizkaitarren agindua, beren gainetik egoala eta euren eskuetan bakarrik jauntzaren aldaketa** esanez.

(1) Mandio –urdiñak egiten = remoloneando. (2) De acuerdo al sistema feudal. (3) Gero erregeiñ katolikoa izango zana. (4) Hermanastra. (5) Con mentiras, engañosamente. (6) Con bravatas y amenazas después.

-1.581eko urtean Gatzaren zergakaz bardiñ:

IIn Felipe Lisboan egoala, beren ministru edo serbitzariak, Bizkaiko gatza zergapetu gura eben, eta beren ezaugurera eldu zanean, bereala agindu eban ***Bizkaitik agindu ori kentzeko.***

-1.590ko urtean Bizkaitarrakin bai erakusten dau beren begirune ta zentzutasuna, espainiako lurraldea *Millones'en Zerbitzuekin*⁽¹⁾ zergapetu gure ebenean, ***Zerga orreik Espainiako errege lez ipini ebazala, eta ez Bizkaiako jaun lez*** esanda.

IIn Felipek ondo jakin ebalako, berak zelako eskubideak euki ebazan espainitarren errege lez ta Bizkaiako Jaun lez.

-1.598ko urtean baiña, IIn Felipe errege-aulkira igonda ta beren zeregiñeko jaurkintzak Duke de Lermaren eskuetan itzi ebazalako, berak ezer jakin barik eta beren ministruak ezer aldarrikatu barik, Bizkaiara etorri ziran *Milloien Serbitzu* orrein zergak eskuratzen eta Bizkaitarrak: ***Zerga orreik eurakaz zer ikusirik ez daukiela*** esanda, besteak gogorkeriz asi ziran.

Eta Bizkaitarrak ikusita, jaunari bialdutako mezuak beren lekura ez zirala eltzen, 1.601eko urtean Loraillaren 10ean Gernikako zugazpean batzartuta, eskutitz au bialdu eutsoen:

“Muy alto Padre”

Señor:

Visto por Nos esta antigua é honrrada Señoria de Vizcaya lo mal que V.M. está informado, por orden del consejo de Castilla, en querernos agraviar y tratar tan mal al descubierto, en recompensa de los muchos y grandes y leales servicios que esta antigua Señoria de V.M., en mandarnos que pagásemos ciertos pechos á derechos como los demás buenos hombres de esos reinos de Castilla pagan; hicimos Junta General de Caballeros é Hijos-dalgo de esta Señoria en nuestra Villa de Gernika, que los reyes antepasados de V.M. nos dieron por nuestros honrrados servicios, hallamos que queriendo usar V.M. de tanta riguridad con nosotros y quebrantar nuestros honrrados Privilegios (***Bizkaitarren artean orduko denboretan itz onek ez dau esan gura Espainola'ren artean gaur esaten dauana, beren berezitasunezko erri ta legeak izan zirala baizik***) y la autoridad que nuestros honrrados padres han tenido: que debiamos de suplicar y pedir humildemente á V.M. sea servido de mandar que se borre, teste y atilde de sus Pragmáticas Reales lo que á nosotros toca, pues es justicia lo que pedimos; y, suplicamos á V.M. no hubiese lugar de hacernos, nosotros quedamos obligados á defender nuestra muy querida y amada Patria, hasta ver quemada y assolada esta Señoria y muertos mujeres é hijos y familia, é buscar quien nos ampare y trate bien.

Esta lleva D. Pedro de Gamboa, Diputado de esta Señoria, gran servidor de V.M.; no sea él solo culpado por ello, antes V.M. le haga merced, porque fue importunado para ello.

Dado en nuestra Villa de Gernica en 12 de Mayo de 1.601.

Vuestra antigua y leal Señoria de Vizcaya, que al servicio de V.M. queda.

(1) Servicio de Millones.

1. 11. *Eta zeintzuk izan ziran, Asturias, Leon, Gaztela, Erromata Franko erregeak, katolikotasunean batzangotzeko, Nizeatik ekarten ebazan legeak, Euskalerrian sortu dagien ainbeste arazo, eta gero, Europako erregetegi guztietatik zabaldu zitezzen ?.*

325eko urtetik aurrera mundu onen jaurkintzarako orainarte ikusi dogun lez, eta Nizean katolikotasunezko ziñeskintzan artu ziran arauetatik ez dabelako ezer aldatu, beti izan dira, Aita Santuaren uts ezintasunezko almenagaz, Erromatar kaisartzazko goitik beerako agintaritzan, bereztasunezko erritar ta agintari guztiak berez daukiezan erantzu-pidearen ardurazko almen eta eskubide guztiak, Aita Santuaren eskuetan batu ziralako.

Ortik aurrera eta edozein agintaritzazko mailla guztietan katolikotasunezko lege orreik bete dagiezen, odoljariozko alegiñekaz ibili dira beti, gaur be sortzen dan lez.

Or dabiz asmatzaille orreik euren norkerizko guda indarrean, munduko erri guztiak, katoliko aberkidetasunean batzangotuz laterritzeko, Europa ta mundu onen erri-gizarteak eritzi orren morroi izan gindezen.

Gaur norkeri orregaz jokutzen ba dabe, zer ez egingo ote eben Fernando katolikuaren denboran ?.

1. 12. *Baita, zelangoa ote zan Katolikotasunezko legea, Europako errege guztientzat?.*

Adibidez, In Fernando katolikuak: Nafarroako erregetzagaz geratzeko, maltzurrezko guzurtasunean, Aita Santuaren buldak, amaitu ezinezko ekintza baten eskarniatuta⁽¹⁾ ibiliten ebazan, Aita Santuak nafar erregeak eskomunikatu⁽²⁾ egiezan.

Orduko denboran eta nik uste dot beti izan dala, Aita Santuak errege edo jaun baten bat eskomunikatu ezkerro, Europako edozein printze edo errege katoliko batek euki ebala baimena, eskomunikatuko errege jaun orreik euren ezar lekuetatik kendu eta eurak ipinteko, ori izan zalako Erromako kaisar Katolikolikasunean aberritzeko lege bakarra.

Lege ori izan zan argi eta garbi erabiltzen zana, demokrazian oiñarrituta nortasunduz ziran askatasun aundiko euskaldunen aurka.

Euskaldunak, zarrenak eta zabaltasun osokoak izanda Europako Mendebal onetan, euren aurka edo, euren askatasunezko demokraziaren eritzizko nortasunen aurka baka-rik izan da edesti guztian, aberri-katolikoan batzangotzeko, kolonizaziozko borroka au.

Euskaldunak Erromatar katoliko kaisertzaren menpeko batzango orrekaz, ez ebelako, eta gaur egunean be ez dogulako jakin gura ezer, Izadi onen askatasunezko demokrazizkoak, beste bereztasunezko zentzuagaz ulertzen dogulako gure Jaungoikuaren gaiezko sorraldi au.

1. 13. *Zergaitik sortu zan Pase Forala, edo Foru Baimenaren Legea ?.*

Gure euskal ordezkiko batzarkideak antziñatik konturatu ziran, euki genduzan Jaun errege gaztelar orreik azpikeriz, Iribilduak iraspenduten asi ziranean, Euskalerria kolonizetan ibili ziralako, eta geiago, gure jauntza 1.379an Gaztelako I Juan⁽³⁾ erregearen eskuetan jausi zanetik.

(1) Eskarniatutako buldak = bulas falsificadas. (2) Eskomunikatu = excomulgar. (3) Juan I de Castilla 1.358-1.390.

Gure ordezkariak orregaitik, *Arazo Barrieri, Neurri Barriekaz* aurre egiteaz arduratu bear zirala konturatu ziran, eta antziñatik lege atal bat lez euki eben *Pase Forala* sortu eben.

1.406ko urtean Gaztelako III Enrike *Gaxoa*⁽¹⁾ il zanean, gure jauntza, urte bi bete barik euki eban II In Juanen⁽²⁾ eskuetan jausi zan, Katalina ta Fernando beren aita/amak ordezekoak egiten egon zirala, eta gure Lege Biltzarkideak, beartu ebazan gure Foruai ziñ egien.

Eta II In Juan berak be, ziñ egien bear izan eutson adiñekoa biurtu zanean.

Baiña denboraldi oneitan Gaztelako erregeak *Pase Forala edo Foru Baimeneko legea* kendu gurean ibilita, Bizkaitarrak asarratu ziran, eta II In Juan Bizkaiko Jaunak, arrazoia eukiela ikusi ondoren, 1.452an Uztaillaren 21ean Gernikako zuaitzpean egingo zan batzarreran, Bizkaitarrak euki ebezan oiturazko eta aukerazko legeak idatzi egiezala esan eban:

Que cualquier carta que el Señor de Vizkaia diere contra Fuero de Vizcaya, fuere obedecida y no cumplida.

Eta alan idatzi zan Errigoitiko Santa Maria eleiz barrutian, Foruko leenengo liburuan.

1.526ko urtean gure legegilleak, kontu aundiagoa euki eben Foruak berriztu ziran: *Foru Baimeneko* lege orren gora beran, gure Bizkaiko Jaunaren ulermenak ez egian zalantzarik euki.

Eta alan diñoe barriztutako Foruak, bere XI garren legezko I izenburuan.

Otro si dijeron: Que habian por Fuero, y ley, y franqueza y libertad que cualquiera carta o Provisión Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere o mandare dar, o proveer, que sea, oser pueda contra las Leyes o Fueros de Vizcaya, directe o indirecte, que sea obedecida y no cumplida.

Bizkaitarrek, euren legegintzaren iraspenak era orreitan idatzi ta oiñarrirituz, esku-bide osoagaz agertu ziran, eukiko zituzen jazarraldiak, mende gabetasunean aurrera eroateko.

Beste aldetik, Isabel eta Fernando katolikoak, gure Foruekaz egin ebena ikusi bear dogu, ortik aurrera Austriatar guztiekin gertatu jakuzanaren adierazpena dalako, eta gure Foruen Jabetasunagaz 1.876ko urterarte iraun gendun, ortik aurrera norkeriaren kaisarkerizko gudaloztearen indarrakaz, menperatuta geratu giñelako.

Mundu oneko gizon/emakume baten batek esango daust, Nork daukan, Aldamenekoa Menperatzeko iñungo Eskubiderik ?.

1. 14. ISABEL ta FERNANDO KATOLIKUAK, BIZKAIKO JAUNAK LEZ.

1.469an Urrillaren 9an Gaztelako I Isabel⁽³⁾ eta Aragoiko II Fernando⁽⁴⁾ Balladolizen ezkondu ziran.

1.473an Iraillaren 15ean Bizkaitarrek, Gaztelako I Isabel eta Aragoiko II Fernandori, eskutitz bat bialdu eutsen esanez: *IV Enrikeren zintzotasunetik kanpo egon zirala, ezer ez ebalako jakin gura, eurei emoneko itzagaz, maltzurtasunezko jokoan ibiltezan gizonagaz.*

(1) Gaxoa = Enrike III 1.378-1.406 el doliente. (2) Juan II de Castilla 1.405-1.454. (3) Gaztelako I Isabel 1.451-1.504. (4) Aragoi-ko II Fernando 1.452-1.516.

Eta euren zintzotasunera aldatzen zirala egiztatzeko: *Lenago danak ilko zirala, eta bizirik geratzen ziranak lur onetatik alde egingo ebela, euren agindupetik kanpo geratu baiño len*, esanda.

1.473an Urrillaren 14an, IV Enrike il orduko, I Isabelek Bizkaitarrai, eskutitz bat bialdu eutsen, Bizkaiko Foru Legearen askatasunak baieztan ebanak.

1.474an Abenduaren 11n il zan IV Enrike, I Isabelen ugazneba.

1.474an Abenduaren 12an, IV Enrikeren il otoizketak egin ziran.

Eta 1.474ko Abenduaren 13an, Fernando Aragoien egoala, eta gortearen aginduz⁽¹⁾, Isabel Segobiara joanda, bertan izendatu eben Gaztelako erregiña.

1.475ean Portugal eta Frantziaren aurka egin ebezan borroketan, an egon ziran Bizkaitarrak beti lez, Isabel ta Fernandori laguntzen.

1.475eko Iraillaren 20an Burgosetik Fernandok, irain ordeko⁽²⁾ agiri bat bialdu eutsen Bizkaitarrai, IV Enrikek Bizkaitarrak, *Judaseko*⁽³⁾ izenagaz zelakotu ebazalako.

Eta emendik aurrera Fernando ta Isabelek, bialtzen ebezan eskutitz, agiri, norberaren agiri, lege berezietan, edo ta albalaeko⁽⁴⁾ idazkiaren buruetan: *Muy Noble é Muy Leal Condado* ipini egiazala agindu eben. Ori ta geiagoren merezimenduak daukiezelako Bizkaitarrak esanda.

Fernandok au esanda urrengo egunean, Bilbaoko Iribildua: *Muy Noble y Muy Leal* izendatu eban.

1.475eko Uztaillaren 7an, errege katolikoak Tordesillasetik agindu eben, Bizkaitarrak euren erritik kanpoko zerbitzura joan bear izan ebenean, eurak Foruak agintzen eban lez egin bear ebela, au da, *erritik urten orduko soldatak ordaindu bear zirala*.

1.475eko Uztaillaren 27an Toedesillasetik, errege katolikoak beste agindu bat emonda: *Bizkaia ta Enkarterriko mariñelak, ez egiezala euren serbitzuak lurrean egitera beartu, Foru Legeak debekatu egiten ebalako*.

1.476ko Uztaillaren 20an etorri zan Fernando Bilbora, Foruai ziñez itz emotera Isabelen ordezt, eta Bilbaoko atean ziñ eginda, Larrabetzuko San Emeterio ta Zeledon ziñ egiteko Eleizara joan ziran.

Eta 1.476ko Uztaillaren 30ean Gernikara elduta, Bizkaitarrak, Antiguako Santa Mariaren eleizan egon zirala, Fuegoak ziñ egiazala eskatu eutsoen, eta Fernandok orretarako etorri zala erantzun ondoren, erregiñagaitik be ziñ egiten ebala, Bizkaitarrak berari emon dautseen laguntzagaitik ezkerdun dalako, eta sekula ez eutsela ertsitu edo estutuko eta gitxiago Fuegoak autsi, ezereztu edo oinkatuko esan eutsen.

Bizkaitarrak orren ostean, umajea oiturazkoa zan lez, Fernando, Gernikako Zuaiztpean dagon arrizko alkian ezarrita, beren eskuak muinkatu ebezan.

Eta askenez, Bermion ziñ egin eban.

Isabelek.

1.476ko Iraillaren 25ean, Fernandok agindu eban, Bizkaitarrak ezin dirala baitu edo atxilotu, errikoen artean eukiten ebazan ordaindubako zorrak gaitik.

(1) Ekintza orregaz, zarratu egiten ebazalako Aragoi 'ko II Fernando eta Juana "La Beltraneja" ren eztaibadak Gaztela 'ko erregetzaren eskubiderako. II Fernando bera be, Gaztela 'ko erregetzaren odoletik etorten zalako, eta Aragoi 'en neskak, debekatuta euki ebalako erregetzara igoten. (2) Irañi-ordeko eskutitza = carta de desagravio. (3) Judas 'eko izena = traidores. (4) Albala 'eko idazkien buruetan = escritos en la cabecera de las cédulas reales.

Euskal Berbea, egiaren aintzakotzat euki ebalako ?.

Orejatar Martzeliñok, euskaldunak nai ETakoak izen, bardin esan dau beti.

1.474ko Abenduaren 13an Isabel katolikea, erregiña izendatu orduko euki eban le-nengo alaba, Isabel izendatu eban, eta Portugaleko erregeagaz ezkondu 1.498an il zan.

Bigarrena, mutilla izan zan, Juanen izena ipini eutsoena, ta 1.497ko Urrillaren 4an il zan.

Irugarrena Juana izan zan, **Zoraa** zala esan eutsoenari, Alemaniako Kaizarren seme Felipe **Ederragaz** ezkondu.

Laugarrena, Maria, Isabel bere aizta il zanean, Portugaleko errege bere koñatua zanagaz ezkondu ebana.

Eta bostgarrena Katalina, Ingalaterrako Printze Arturogaz ezkondu zana, eta alar-gunduta, onen anai VIII Enrikegaz ezkondu zana.

1.483ko Iraillaren 5ean, Isabel Bilbora etorri zan, eta Tenderiako ateetan Fuegoai ziñ emon eutsen.

1.483ko Iraillaren 8an Isabel, Portugaletera joanda, Otxoa ta Ortiz de Montellano etxean, ostera Fuegoak zindu ebazan.

1.483ko Iraillaren 16an Larrabetzuko San Emeterio ta Zeledonioaren eleizan ziñ ebe-zan Fuegoak. Eta Iraillaren 17an Euskaldunentzat Saindua dan Gernikako Zuaitzpean.

I Isabel Durangora joan zan, eta bertan Tabira, Durango, Elorrio eta Ermuko Iri-bilduaren Foru Legeari be ziñ emon eutsezan, eta erriaren bost giltzak artuta, Duran-goko Santa Maria Eleizan amaitu eban ziñ egiteari.

Emendik aurrera eta naita 1.526ko urtean idatzitako Foru Lege barriaren II gaiak alan eskatu, Bizkaira ez zan etorri Gaztelako erregerik ziñ egitera, goian esandoten lez, eskutitz bidez bete egiten ziralako oiturazko arau orreik, gero Bizkaitarrak Gernikako Batzarrean irakurrita baieztan zana.

1.504ko Azaroaren 26an, 53 urte euki ebazala Medina del Kanpon il zan Isabel. Eta Bizkaian bere eriotzaren elizkariak eginda, Gernikan Juana eta Felipearen jauntza baieztu zan.

1. 15. *Kondañok Foru Baimenagaitik, aurkezten dauskuezan egiztatuak*⁽¹⁾.

Tentaldi sakonak euki dodaz, errege katolikoak Bizkaitarrai egin eutsoen ziñes-penak gogoratzeko, ondo datozelako euskal askatasunezko irudimena margotzeko eta **euskal Foru Baimenaren legeen irudimenak argitzeko**.

Kondañok, Bizkaitar Foru Baimenaren Legeagaitik esaten dau⁽²⁾:

Euskaldunen edesti guztia, argi ta zabal agertzen dala beren berezko errilegeagaz, gure beko ta iparreko Nafarroan, Lapurdi, Zuberoa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Oña-te, Durango, Orozko, Enkarterri eta Euskadik daukazan beste laterrizko gorte edo orokorrezko batzarretan, baita auzo ta Udaleko batzarretan, demokraziaren askatasun

(1) Egiztatuak = confirmaciones. Bizkaitarrak, euren legezko aginduak babesteko irasi eben Foru Legearen Baimena = figura legal del Pase Foral creado, por lo que las leyes españolas eran obedecidas pero no cumplidas, por no estar de acuerdo con la propiedad de nuestras Bizkaitarras leyes o Forales.

(2) Las Confirmaciones y Pase Foral, Por Kondaño. Biblioteca de GIPUZKOARRA = San Sebastián, Imprenta de R. Altuna-31 de Agosto, 13- 1.909.

guztiagaz jaurritu ebelako, iñoren esku-sartzerik bage, arik eta menperatzaille katoliku aberkideak, kolonizaziozko lanetan asi ziran arte.

Euskalerriak eroan eben jaurkintza.

Irakaspen batzar, lekaide batzar, orokorrezko batzar, apaiz batzar, anaidi batzar, Foru batzar, araudi batzar, araudi edo sort-arau batzar, Udal batzar, Auzo batzar, eta edozein erako batzarretan, askatasunezko demokraziz eta euskaldunek euken nortasunezko eskubide guztiagaz bideratzen ebala gure Euskalerrri maite au, erakusten dabe.

Bai, 1.499ko urtean Bizkaiko batzarren aginduz, euskalerrri orokortasunerako idatzita irasi ziran lege edo era ta araudi orreïn aginduen aurrez, zelan Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako aldun-Etxeak erooten ebezan lege orreik bakuntasun edo tolesgabetasun⁽¹⁾ ederrenean, edestiak erakusten dauan lez.

Orduko Europa osoaren zuzenbide edo lege-jakintzan, onartzen ziran euskal legeak, antziñeko bereztasunezko zentzun demokratikoan etorten ziran legeak izateagaitik. Katoliko aberkide aldekoek, alderdikerrizko eritziak sartu gura ebezan gainetik, berezko oldozketaren zentzuz, erri ezberdiñaren legebidezketasunean be, on ezartzen ziralako.

Orregaitik, Foru Baimenaren eritzi au, Paleolitiko Neolitikoaren gizaldietatik ospatzen ziran askatasunezko batzar demokrazitik, datorren gauza dala uste dot nik.

Lojika bidetik begituta, guztien ardurean, nortasunezko eskubidearen arduratik kanpo berez agertzen dan gauza dalako, agindu ori unetxo edo aukera orreitan, ez bazan eginkorra.

Gitxiago, Bizkaitar Jauna, Gaztelako errege izateagaitik, bere erriko lez edo arrotz bat lez aginduten ba ebazan lege orreik Bizkaitarrai, agindu orreri orduan esaten jakolako, onartu arren, ez zala betetan.

Eta ori da nik frogatu gure dotena, asierazko zentzutik asita.

1. 16. Kondañok, aurkezten dauskuzan gertakizunexkoen froga batzuk.

1.807ko urtean Uztailaren 9an Ernanin, bere orokorrezko batzarrean artu zan erabagia, argi andia emoten dausku gure euskal askatasunaren gora beran, eta gaztele-araz aurkeztuko dautsuet, Kondañoren esanetatik, arrast bat be ez ikututearren:

M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa.- Se sirvió U.S. en la junta que se celebró el día seis del corriente mes, remitir á consulta de sus asesores los dos puntos que siguen.

Primero:

Qué representación sea la que tiene el caballero corregidor en los congresos de esta hermandad, y qué sean los derechos que le competen en los mismos.

Segundo:

Si estando congregada la hermandad de Guipúzcoa á tratar sobre asuntos y negocios que pertenecen á su gobierno para el servicio de S.M. y bien de la misma hermandad, puede el mismo caballero corregidor estando ésta congregada con los asesores y su secretario espedir mandamientos á la junta asesores y su secretario ó á alguno de estos separadamente y qué deba resolverse por la junta en caso de que así lo ejecute.

(1) Bakuntasun edo Telesgatasunean = con toda secllez

Enterados de los puntos remitidos á nuestro exámen y meditado sobre ellos con madura y reflexiva detención, debemos exponer á U.S. que en los congresos que acostumbra a tener U.S. en el tiempo señalado de cada un año, como en otro algun dia con motivo de negocio particular, no puede el caballero corregidor pretender más representación que la de un testigo.

Que concurre á escuchar cuanto se trate y resuelva por la junta; y que no le corresponde derecho alguno sobre ésta ni sobre individuo alguno que la compone sea en calidad de caballero juntero, ó sea en la de asesor, ó secretario: Que no puede dictar cosa alguna sin un conocido y notorio agravio de los sagrados derechos que corresponden á U.S.; y que intentándolo hacer dentro de la sala del consistorio en que se reúne su hermandad á tratar sobre asuntos provinciales, no puede la junta ni debe permitir una violación de los derechos que exclusivamente le competen.

La junta conoce y entiende de las causas que quieran traerse en conformidad á los fueros, para que con acuerdo de sus asesores lo resuelva y determine, como acontece con los expedientes de hidalguía, que cada dia se sujetan á su examen y conocimiento y con algunos otros que presentan la autoridad de la junta: esta componiéndose de persona legas, y debiendo para el acierto de sus determinaciones asesorarse de hombres de la ley, nombra dos ó tres letrados de ciencia para que camine esta junta con seguridad bajo su sombra.

El secretario es persona caracterizada para autorizar los decretos y resoluciones de este tribunal, sujeto por lo mismo á lo que U.S. ordene y no otro alguno; por lo que siendo los asesores como el secretario, partes integrantes de este congreso ó tribunal, y entrando con los caballeros junteros á componer y formar un cuerpo será un desafuero que el caballero corregidor pretenda hacer reparación alguna de esta ó aquella persona contra los mejores preceptos de derechos y con notoria y conocida injuria de U.S.

Tenemos entre ambos asesores la satisfacción y complacencia de ofrecer un testimonio de la certeza y veracidad de la proposición que llevamos persuadida: este testimonio es una real cédula expedida el dia 6 de Diciembre de 1.690, con motivo de una competencia ruidosa suscitada entre las justicias ordinarias del territorio de U.S. y el duque de Canzano, superintendente del Corso, sobre el conocimiento de las presas hechas y que hiciere una fragata de cuarenta y cuatro piezas, cuya competencia quiso ahogar don Francisco Trellez corregidor de esta noble provincia, quien en una representación dirigida al Rey con expresos, manifiesta que no siendo S.S. en las juntas que celebra esta provincia, más que un testigo para advertir y prevenir los inconvenientes que pueden resultar de algunas resoluciones, no había podido sofocar una diferencia que podia perturbar la quietud y sosiego del país; esta real resolución se ofrece á la junta para que se haga cargo del concepto que han merecido los corregidores de este suelo, del en que han estado en todos los tiempos y épocas desde una antigüedad muy remota; y U.S. en conversación de su constitución y fueros recopilados, no puede permitir, que el caballero corregidor se sirva en manera alguna de las expresiones de autoridad, por no tener otro concepto en sus congresos que el de un testigo, como lo persuade la razón, convence su constitución y lo expresa la real cédula que presentamos en apoyo de nuestras aserciones.

La urgencia de presentar este escrito, hará disculpable los defectos que contenga, asegurando, que nos hallamos muy convencidos de la verdad de cuanto decimos. Así lo sentimos, sujetándonos gustosos á su superior censura.

Ernani 8 de Julio de 1.807.- Licenciado son Ramón María de Moya.- Doctor don José Guerra.

Agiri au ikusten dan lez, ez da Paleolitiko denborakua.

Eta alango gauza bat sortzen zan Bizkaian denbora areitan.

En junta general celebrada en Gernika el 8 de Agosto de 1.806 se aprobó un informe suscrito por más de seis Letrados, en que se hacía constar, ser constante que al Comandante General no competían otras facultades, en el derecho de Presidencia de la Junta congregada, que las que se dirigen á la conservación del orden.

En esta época posterior a los disturbios de la Zamacolada suplía en Bizcaya al Corregidor un Comandante general por haberlo dispuesto así la Real Orden de 23 de Mayo de 1.805, que suprimió el empleo de Corregidor.

Dicho Comandante General llamábase Benito San Juan, Mariscal de Campo de los Reales Ejércitos, y pretendía que se sentara a su lado, en calidad de Asesor suyo, el Alcalde Mayor de Vizcaya, Matias Herrero Prieto, del Consejo de Carlos IV de España y Alcalde del crimen honorario de la Real Chancillería de Valladolid. A esta pretensión se opuso la Junta, demostrándole la única facultad del Presidente y la no necesidad, por lo mismo, de hacerse acompañar de Asesor.

En lugar oportuno se verá, ciñéndonos á Bizcaya, que las funciones del Conde ó Señor en las Juntas de 1.342 se limitaron á presidirlas, y presidirlas sin voto, dejando á sus miembros toda la facultad aneja á su character soberano para deliberar y legislar con toda amplitud y plena potestad.

Y no se vaya á antojar alguno que los junteros ó asambleístas contestaran tan solo porque Juan Nùñez de Lara, su Conde ó Jaun, les dirigió preguntas, y que así la Junta de 1.342 fuera *mére* deliberante: no.

Su facultad era sin cortapisas, y por lo tanto los congregados hicieran lo mismo, si tal se les ocurriera hacerlo, aún faltando las preguntas de aquél, de quien puede decirse sin equivocación, que si preguntó fué porque carecía él de facultades para resolver sobre el contenido de las preguntas.

Alguien pudiera cotejar la faena de ese Congreso con la de los Concilios Toledanos, tan memorables en el Reino visigótico español, y con la de sus inmediatas sucesoras las cortes de Cádiz del año 1.812, para inferir luego, claro está que erróneamente, semejanza de las primeras con los segundos; lo que conviene desvanecer anticipadamente, á pesar de que la simple semejanza no bastaría en ningún caso á destruir la separación.

Kondañok, edestiaren argitasunezko azalpen labur bat egin eta gero esaten dau:

“Llevamos visto, pues, que antes que hubiera leyes en las Monarquías castellana y gótica de España ya habia leyes en los Estados Euzkadianos, por cuanto que habia en estos Batzar con carácter legislativo y cuyos Batzar no se conciben sin que hubiera leyes, reuniéndose, como ya se reunían, en periodos más ó menos largos: y llevamos visto también que, por lo mismo, ya habia en aquellos Estados Batzarr legislativos aún antes de que se crearan en ellos Jaun ó Señores que luego se habian de denominar malamente Reyes ó Monarcas.

Luego para negar á los Batzar facultades legislativas y atribuírselas, bien á sus Jaun, bien á las Monarquias españolas, sería menester que se probara que los Batzar las perdieron y que los Jaun de los Estados vascos ó los Reinos españoles las adquirieron, bien demostrándose las fechas y las circunstancias en que concurrieron tales hechos, ó

bien probándose que últimamente los Batzar no han tenido derecho á legislar y sí en su lugar los Jaun ó Monarquías españolas.

Mientras tanto, los Batzar deberán ser reputados por el único poder legislativo de los Estados Euzkadianos; y así lo han sido realmente, con cortos intervalos de que no hay porqué tratar aquí, hasta los años de 1.789, los del Norte y de 1.839 los del Sur.

Kondañoren liburu eder onek, Euskalerrian egin ziran batzar ugarien aipamena ekarten dau, adibidez:

1.342ko urtean, zelan kondea edo Batzarraren Jaunak ez ebalu euki beste zereginik, autamen bageko Batzarraren buru izatea baiño besterik.

Eta Toledoko Godo kaisertzaren jaurkintzagaz alderaketak⁽¹⁾ eginda, orduko denboran eleizak edo Eleiz gotzainak aginduten ebalako, I Rekaredoren denborako batzarrak, eleiz biltzarrek baiño besterik ez ziran izan.

Gero gotzainak eta gudar agintari edo ta jauregiaren konde ta dukeakaz nasitako agindu batera aldatuz, ortik aurrera, Godo jaurkintzan aginduten ebazan legeakin, etorri ziran lege orrekin, 1.812ko urtean Kadizen agindu ziran konstituziozko legeak ezarri arte eta abar.

1.806ko urtean Dagonillaren 8an Gernikan, Zamakoladako iraultzaren ostean egin zan orokorrezko Batzarrean, 1.805eko urtean Loraillaren 23an agiri bategaz erregeak aginduta zuzendaria⁽²⁾ erregeen orokorrezko gudar nagusiagaitik aldatu egien, zelan sei jakitun edo lege gizonak baieztu eben agiri bat, espainiako erregeen orokorrezko gudar nagusiari bere eskubideetatik sarritan urtetan ebalako, neurri gogorrak ezartzen.

Kondañok, ainbat urte aipatuten dauz Toledoko 636ko urtetik asita 1.836ko urtean beste ainbeste frogakin amaitu arte, guri luzea egingo jakuna, leku gitxi dekotelako gure Euskalerriko edesti au, bere zentzuan agertzeko.

Orretarako non aurkitu zeinkien aurkeztuko dautsuet, batera Euskerazaintzaren Internet'eko elbidea ipinita:

Las Confirmaciones y Pase Foral, Por Kondaño. Biblioteca de GIPUZKOARRA = San Sebastián, Imprenta de R. Altuna-31 de Agosto, 13- 1.909.

Eta, www.euskerazaintza.org.

Euskalerrriaren edestiko VIIIIn atalen ostetik joango dana Interneten.

1. 17. *Gure Euskalerrriaren VIIIIn Ataleko Edestiari osterabatu, aldizkariaren egitaraua.*

Euskalerrriaren Edestian, VIIIIn ataleko egitarauak:

- Frantziko iraultzaren kondaira.
- Frantziko XVIIIn Luis erregea.
- 36n Jauna Bizkaiko Jauntzan.
- Baztan eta Frantziaren Ongundeko Batzarraren guda.
- Napoleon.
- Espainako IVn Karlos.

(1) Alderaketak = comparaciones. (2) Zuzendaria = corregidor.

- Bonaparte 'tar Jose Espainiako errege.
- Frantziako XVIII In Luis erregea.
- VII In Fernando.
- Kadizeko Gorteak.
- Gure bizkaiko Jauntzen azkeneko Jauna.

1. 18. *Gure edestiari oster a batuta, Frantziko Iraultza.*

Oar txiki bat emen.

Frantziko iraultza, errigizartearen jaurkintzarako bear ziran lege ta tresnerizko izan gaitasunak, euren almenezko asken mugaraiño eldu ziralako asi zan, errigizartearen bizitza, politikazko arazo andi baten biurtzen.

Eta norkeriaren sasijainkotasunean asmatu ziran katolikotasunaren aberritasunezko Erromatar kaisar batzango lege orreik beste aldetik, euren gogorkerizko aurrerakuntzan, Jaungoikua Berak Izadi oneri betiko bereztu eutsoezan legeen aurka, muga gogorrek aurkituta, zentzunbagekerian agertu ziralako.

Orduko Europaren Mendebal onetako errigizarteak, bizi ziran al-osokerizko guzurretik egira aldatu gurean, ibili bear eben azkuntzazko bidea aurrerantzean, erakunde zentzuzko jaurkintz demokratiko, eta egizko ordezkariaren gain, askatasun ta zuzentasunezko argi geiagoko ekintzak eskatzen ebazalako zan.

Norkerizkoaren katolikotasunezko abertzaletasun ori baiña, bere batzango lanetan, errigizarteak euren kontrolpean eukiteko bidetik, ugertutako tresneri zar bat bezala agertu arren, katolikotasun batzangozko ameskeri orreitan aurrera egin eban, Jaungoikuak bereztasundutako gai oneri ipini eutsoezan legearen aurka.

Eta bizitzazko arlo guztien jaurkintzak artu emoneko ordezkarietzan, zentzunezko askatasun geiago eskatzen ebalako, Frantziko lurralde guztia, errigizartearen eta jaurkintzazko edo politikazko arlo orreik, arazo aundi baten biurtu ziran.

Katoliko aberkide Batzango zale eleiztar orreik be konturatu ziran, eta itzurazko atzerakada edo oinkada bat emon eben emendik aurrera, euren aolkularitzazko aintzindaritzan.

Errigizartearen esanetan sarri entzun da, Kamaleoiaren aldaketak egiten ebezala.

Guzurrezkoa zalako itzurazko aldaketa ori, Frantzia, katoliko laterrituz gain, giza ta errigizartearen eskubideen gainetik ipini ziralako jaurkintzazko baldintz barri orreik.

Eleiz katoliko ori be, bereztasunaren aurkako Laterritasunari arrazoia emoteko, bera laterritu zan 1.929ko urtean, eta Mussoliniren eskutik gainera, euren agintaritzazko politikan, len ostondutako esan doguzan atzerakadazko oinkada orreik guzurrezkoak ziralta, ziurtatzeko.

Vn Felipetik asi ziran okertzen, jaurkintzazko arloetan eleizagaz euki zituzen artu emonak, eta VI In Fernandogaz, guztiz apurtu.

Eta geroagoko espainolaren jaurkintzan edo politikazko arloetan ikusiko dogu, katolikotasunaren guzurrezko abertzaletasun ori argiago, adibidez:

“Europaren arazoa izanda politikazko arlo orreik, nork emon eutsoen baimena espainol gudar nagusi aiei, erregeen agindu gaiñetik Balentzian lenengo, eta gero Kadizetik, konstituziozko agiri orreik atara, ta VIIIn Fernando erregeari 1.823ko urtean indarren keiñuz sinatuazo ostetik, erdiugarte onen berezko erriari gudaloztearen ekintzazko keiñuz, euskaldunak, katalanak eta galleguak katoliko-espainol laterritzeko.

Konturatu gaitetz: orduko erregearen alosokerizko agintaritzaren gaiñetik ez zala egon inor, Erromatar kaisertza ta Kristauen eleizako Nizearen elkarreetik, Aita Santu ta beren aolkularitza izan ezik.

Itxuraz beintzat, dana norkeriaren maltzurtasuna baiño besterik ez zalako izan.

Orregaitik, errege-lege orrekin gaiñetik gudar agintari aiei, nork emon eutsoen baimen ori, ez da joan bear urrun, gauza ori jakiteko.

Sacro-Santa-Cruzada-Nacional-Católico-Española-ren lege orreik erabili dabe sarri edesti guztian.

Eta ez gaitexan aztu, 1.936ko urtean eleiz katolikoak eta Frankok euren espainol Katoliko Aberkideztan Batzangotzeko, gurutzadezko Guda Sakratuen ikurragaz, indarrez zer egin euskun euren lapurkerizko eta fazizta kontrolpean eukiteko, gaur ikusten dogun lez.

1. 19. *Frantziko iraultza.*

XVIIIIn gizaldia argitzezko⁽¹⁾ idazle, filosofu edo eraman oneko jakin zale, jaurleri arloko edo ta politologoak, jakintsu eta diruaren jaurkintzarako jakitunak *Philosophes* deitzen eutsoenai, eta 1.751ko urtetik enziklopedia lez idazle jakintsu batzuk argitaratu eben Irakaskintza, ta ezberdiñ zaletasunezkoagaitik geien, asi ziran, erregeak Jangoikoren bidetik euki eben Zeruko-Eskubideen azpiak arakatu edo alosokeriaren legezko sustraiak jaten.

Eta orko azpi jokotik asita, Frantziko iraultzara eroango ebazan bideak, guztiz zabaltzen asi ziran.

Frantziko errigizartearen *argitasunezko*⁽²⁾ denbora orreitan, errigizartearen oldozmenak *“Egian, Bardintasunean eta Askatasunean oiñarritutako baldintzazkoak ba ziran” “Argitasunaren Eritzizkoak ziran”* eta eritzi orreik izan ziran, Frantziak, Ameriketari erabili ebazanak, euki zituzten 13 koloniak askatu egiezen.

Ortik asita, frantzezaren irixpide edo lorpidea⁽³⁾, Frantziko lurraldeak matxinatu zitezen.

Orokorrezko eritzian, gauza asko izan ziran euren eragipenaren bidetik, Frantziko lurralde osoa, iraultzara eroan ebana, adibidez:

-Diru eta politikazko arloak zuzentzeko artu ziran neurriak, porrot egin edo andikien aurkari gogorrenetakua artu ebela.

-Gortetik, Matxault, de Maupeou eta de Turgot´ek agindu ebazan berrikuntzazko lege guztiak, Zaldun edo Andiki ta goiko eleizarrak ezereztu ebezala.

-Atzeko gizaldietatik sortu ziran aberats edo dirudunak, diruaren arloetan indar andia artuz, politikan sartzen asita egon ziran, eta gizarte mailla ori goi aldeko maillan

(1) Argitzezko denborak = ilustración, o tiempos de la ilustración. (2) Argitasunezko = ilustración.

(3) Irixpide edo Lorpidea = recursos para lograr lo que fuere.

egonda, Zaldun edo Andikien eta eleiz-gizon andikiak lege bereziakaz eskubidetuta egon ziranaren aurrean, aurkari lez agertu ziran.

-Erritarrak bizitzeko bear ebezan mozkiñak garestituz, nekazari, eleiztar eta erritarrak txirotu edo beartsu agertu ziran, eta nekez eltzen ziran eleiztar orreik, mezak emotera ta beartsuak euren neurrian zaintzera.

Nekazariak gaiñera, feudoko legearen aurka, lurraren jabetasunezko eskubide guztiak eskatzen ebazan, "*terriers'eko liburutetan*" batzen ziranak, eta geiegizko ta bidegabe edo zuzentasunaren aurkakoak lez artu ebazan.

-Berrikuntzazko eritzien zabaltasunak be, bere zeregiña egiten eban.

-Diru arloaren atzerakadagaitik, nekazaritzari ikutu andia egiten joan zan, eta 1.788ko urtean uzta-bilketak txarrak izanda, goi maillako matxintasunera elduta, egoera larri orreik izan ziran Frantziko iraultzari ateak guztiz zabaldu eutsoezanak. Eta XVIIIko gizaldian Frantziako lurraldea, sarraskitze aundi baten biurtu ebana.

-Bai gudaren gastu edo ordain bearrak.

-Erri maillan zergaren ezberdintasunak.

-Gortekoek, diruari begitu barik, ondagarritz ibiltzen zirala.

-Ameriketako laterriai, askatzeko emon eutsen guda-tresneri laguntzagaz, Ingelesari guda irabazi arren, Frantziko erri-diruak utzitu egin ebazalako eta abar.

Gauza guzti onen arazo ugari aukariz ziralako, Frantziak euki ebezan eztabaidak, asko izan ziran, eta erri-diruaren ondarena ta Ameriketako laterriak euren askatasun bidetik, emon ebezan demokrazizko irakaspideak ziran, iraultzazko gauzak Frantziko lurraldean, lasterragotu egin ebezanak.

Frantziko politika maillan, garrantzi aundikoak izan ziran Boltaire, Rousseau, Diderot edo ta Monteskieu, *Askatasun, Anaigo edo Senidetan ta Bardintasunezko ikurrakin*, borrokatu ziranak, banandutako errigizarte baten aurka, edo jaurkintzazko arlo ezberdiñak banandu zitezen, bakotzaren nortasunezko almenagaz izatezko askatasunean, jaurkintzazko arlo orreik, errigizartearen alde jokatu egien.



Orduko Frantzez Aberri Batzarra

Al-osokerizko eritzi orreien benetako etsaiak biurtu ziran Frantziko lurraldearen erritarrak, eleiza katolikuak erregeentzat, asmatu ebazan sasi-zeruko ikutu azinezko agindu orreik, ezerezean izteko.

(1) Ni naz Laterria = *L'État, c'est moi* = Yo soy el Estado. (2) Ni banoa, baiña Laterria beti egongoda or = *Je m'en vais, mais l'État demeurera toujours*. (3) Biennoiseko Ondorengoa = Delfin de Viennois.

Eta erri maillan, errigizartearen gorroto edo gaitzesteko⁽¹⁾ barne egoerak suminkortasun⁽²⁾ aundia joanda artzen, eztanda egin eban, Ameriketara sortu ziran iraultza-
ren gertakizunekaz.

1. 20. *1.789ko Orokorrezko Laterriak*⁽³⁾.

Orokorrezko Laterriak, Frantzian egon ziran Laterri edo jaurlintzazko arlo Guztien Batzar Nagusiak izan ziran, Frantziko Iraultza ari zanetik, Frantzitarren Erriko Batzarrean bihurtuta⁽⁴⁾ geratu ziranak.

Ortik aurrera Frantziko lurraldean bizi ziran erri ezberdiñak, Frantzez bihurtuta bizi dira, nai guztiz egia izan ez arren, or dagozelako Euskaldunak oraindiño euren askatasun alde.

Eta emen zapaldu ziran alde bietatik osterara be, Jaungoikuak Izadi oneri erantsi utsoezan berezko lege guztiak.

Batzuk, bereztasunean nortasundu ziran erri guztien eskubideak kontuan artu barik, Frantzez erritu gura ebazalako, eta besteak edo Erromako eleiztarrak, berezkotasunean sortutako erriak, katoliko kolonizatu edo klonatu egin gura ebazalako.

Ezin dana egin, Jaungoikuak bereztazunezko eran irasi eban Izadi oneri, eta Berak ipinitako Legeen aurka, inork ezin dogulako ezer egiñ.

XVI In Luisek eta Frantziko Zaldun batzuk, ez ebena onartu, ordurarte egon ziran erregeen alosokerizko aginteagaz, guztiz ados egon ziralako.

1. 21. *Oar txiki bat emen.*

Irugarren Laterrizko kideak izan ziran, frantzezen aberriko batzar lez izendatu ebezanak, batzar barri orreik ortik aurrera eroateko, eta konstituzioaren arau barriak idatzi egiezen. Itz emon eta gero, lan orregaz arduratuta geratu ziranak.

1.812ko urtean espainolak egingo eban bezala, VII In Fernando beartuta, alosokerizko errege agindutik, parlamento edo Lege-Biltzarren errege edo buru bihurtuz.

Beranduago Franko'k, espainako Borbon errege I Juan Karlosekin egingo ebena, bere Sakratu ta Santutasunezko Aberri Katolikoaren aginduari ebatuz.

(1) Errigizartearen gorroto edo gaitzesteko barne egoerak = el odio que fueron adquiriendo en su interior los habitantes. (2) Suminkortasun andia = gran irascibilidad, o irritabilidad creciente. (3) Orokorrezko Laterriak = estados generales. Aragoiko erregetzan. = cada uno de los estamentos o estados que concurrían a las cortes. Cada una de las dos "asambleas o cuerpos colegisladores establecidos por el estatuto real. Eta Frantziko gortean Iraultzaren aurretik = La asamblea general de los tres órdenes o estados, "clero, nobleza y burguesía". La convocatoria de los Estados Generales iniciada en 1.302 y proseguida con una cierta regularidad, fué interrumpida después de 1.614. La nueva convocatoria de los estados generales de 1.789, se transformaron en Asamblea Nacional Constituyente, (Gero Europa osorako zabaldu ebena), que fué el acto que dió conienzo a la revolución. (4) Frantziko Aberri Batzarrean bihurtu zana = Frantziko lurraldea, Frantzezaren Lurralde bihurtu ebelako, kontuan artu barik, lurralde orren barruan bizi ziran berezko erri ezberdiñak, bakoitzak bere Nortasunezko eskubideak euketzala, eta beste aldetik katolikotasunaren aginduz Aberrikuntz barri orren barruan bizi gindezan nortasun bage gura ebanak. Or zapaldu ziran Berezko Erri guztien Nortasunezko Eskubideak. alde batetik, Laterritar Frantzez bihurtu gura ebazalako lurralde orren giza-seme guztiak, eta bestetik, Katoliko kolonizatuen giza semeetan bihurtu gindezan. Jaungoikuak irasi eban Izadi onen Bereztasunezko Lege Guztiaren aurka. Geroago, Napoleonegaz ikusiko dogun lez, lenauko erregearen alosokeriak osterara eskuratuta, Erroma' tar kaisar katolikotasunaren Aberats-Merkantil-Batzar-gotasunari bideak zabalduz, Bereztasunezko erritar guztiak eritzi orren morroi bihurtu gindezan.

Argi dago, ezberdintasunezko eritzi bi orreik, gauza bardiña gure ebala: Bata, erlijio bidez, K.o. 325eko urtetik, katolikotasunezko aberritar lez batzangotuta geratu gindezan.

Eta bestetik edo Erromatar Kaisertzazko Merkantil aginduz, Izadi onen erritar edo morroi biurtu gindezan, ezeren kontuan artu barik gure Euskal eta beste berezko errien Nortasunezko izatasunak.

Azken baten, katolikotasunezko eritzian geratuko zana, biak gura ebalako, Izadi onen giza- seme guztian, euren agindupeko MORROITASUNA.

Au ikusita, argi dago Erromatar Batikanoko burudunak zirala, euren eskuetan euki ebezanak, batzangotasunezko eritzi barri orrein ari guztiak.

1.789ko urtean Loraillaren 5ean Bersallesen batu ziran Orokorrezko Batzar orreik, eta auteskundeen gora beran, bereala borrokan asi ziranak.

Loraillaren 28an asita, euren ordezkoi agiriak ziurtu bear izan ebazan Irugarrengo laterrizkoak, Ekaiñaren 17an amaitu ebena, eta Irugarren Laterrizko batzarkide orreik argi erakutsi eben, eurak bakarrik izan zirela Frantziaren Aberri barriko batzarkideak.

Ez ziran izango Zaldunen ordezkariak, euren ordezkarietz osoa, erritarren babes osoarentzat eskeiñi ebelako.

Egin eben leenengo adierazpen edo azalpena, “*Gizaren eta Frantzez Erritarrena*” izan zan.

Eta lege onegaz, Frantziko Lurraldean berezko Nortasunagaz bizi ziran ezberdiñeko errigizarte guztiak, frantzez biurtu ebazan.

1789-1791eko urte bitarteko Konstituziozko Batzarrak



1.789ko urtean Bagillaren 20an, Batzar orren aurkako errege zaleak asarre, itxi edo giltzatu ebazan erribatzarkideak batzen ziran gelak, ta eurak, ondoan egoan “*Jeu de paume*” deitsen eutsoen pilotaren jokura olgetan joaten ziran jauregian batzartu ziran, pelotan olgetako jauregi orreitan, “*pelota jokua zen zinezpena*” eginda: euren artean iñoz banadu ez egiteko, arik eta Frantziari, beste konstituzio barri bat emon arte.

Batzar orretan, Zaldunezko 47 kide ta beko eleiz apaizen ordezkoiak batu ziran.

1.789ko urtean Ekaiñaren 27an erregearen ordezkoiak galdutzat emon ebenean euren zeregiñak, XVIan Luis erregeak gudaloztearen laguntza eskatuta, Paris eta Bersalleseko inguruetan asi ziran agertzen gudariak.

Eta Leen ta Bigarrengo Laterrizkoari deitu ba eutsoen, argi itzi eutsoen oneik, batzarraren baldintzak zeintzuk izan ziran.

Paris, Bersalles ta beste Uri ta erri batzuetatik asi ziran batzar orreitarara ainbat mezu eltzen.

Eta 1.789ko urtean Uztaillaren 9an Frantzez batzarkide barri orreik, euren ardurazko zeregiñari **“Aberritasunaren Lege Nausitarako Batzarra”** deitu eutsoen.

1.789ko urtean Uztaillaren 11n, XVIIn Luis erregeak bere anai D'Artois'eko kondea eta zaldunakaitik zirikituta, Nekker ministrua kendu eban bere ardurazko lekutik, diruaren ministeritza barritzuta egien aginduta.

Erritar geienak, euren aurkako lez artu eben neurri ori, eta kalera urtenda matxinatuz, gudari batzuk, alderdibageko lez agertu ba ziran, askok, erriagaz alkartu ziran.

Iraultza, Frantziko lurralde guztietatik asi zan zabaltzen, batzar orren **Aberriaren Lege Nagusitarako** izenagaz, eta Udaletxe barriak sortuz ta nekazaritzazko Udaletan, andikien aurka gogor eginda, ainbat lur, baserri ta gazteluaren agiri jabetzak erre ziran, **“La Grande Peur”** edo **“Bildur aundiaren izenagaz ezagutu zana”**.

1.789ko urtearen Uztaillako 14an, Pariseko erritarrak, euren ordezkoen alde agertu ziran, eta erregeen aldeko gudaloztearen bildurragaz, erregearen ikurra zan Bastillako Gaztelua erasotuta⁽¹⁾, borrokazko lau ordu luze igarota matxinatuak, gazteluaren agintari izan zan Bernard de Launay markesa il ondoren, gazteluren jabe geratu ziran.

Eta bertan atxilotutako lau gizon bakarrik askatu ba eben, gaztelu ori, aurretik erregearen izenagaz txarto jaurri edo jaurkitu zan ikur lez geratu zan Pariseko errigizarte guztientzat.

Udaletxera joan ziran matxinatuak, eta Udalaren alkate Jakkes de Flesselles saltzaille lez salatu ondoren, bulerrean emondako tiro bategaz il eben, eta beren burua ebagi ondoren, zikai⁽²⁾ baten sartuta ibili eben Pariseko erri guztitik. Zori txarrez, ugaritasunezko ekintzan biurtuko zana ortik aurrera, iraultzako denbora guztian.

1.789ko urtean Uztaillaren 27an XVIIn Luis erregea Parisera joan zan, eta onartu eban bere paparrean matxinatuek ipintea, eskeiñi eutsoen iru margozko ikur biribilla, bere xingolarekin.

Aundiki batzuk, Europako erregearen laguntza eske Frantzitik urten eben, XVIIn Luis euki ebazan arazoetatik atarateko, eta beste Zaldun ta andiki batzuk atzerritzen asi ziranean, erritarrak urduri agertu ziran, Frantzira ekarriko ebazan gudalozteen bildur. Atzerritartu egin ziran guztiei **“émigrés”** deituta.

Matxinatuak gogor aurkaritu ziran eleiz katolikoen aurka, ortik aurrera, frantzez barriaren Laterritzko agindupean ezarrita.

1.789ko urtean Dagonillaren gabeko 4an, matxintasunaren ostean sortu ziran araudi batzarrak⁽³⁾, legez kendu ebazanak morroi lanak⁽⁴⁾, amarrenak⁽⁵⁾, eta jauntzuen epaiketak, danoentzat zerga bardiñak ipinita, ararteko **feudo-legeak** ezereztuz.

Zaldunak eta eleiztarrak, ordu gitxi barruan galdu ebazan eurak euki ebazan lege bereziak.

Eta eritzi onekaz sortuko zan Frantziko errigizarte barria, eurak izanda aurrerantzean, sortu ziran bidezko lege barri orreik eroango ebezanak.

(1) Bastillado gaztelu au, erregeen alosokerizko ikurra zan, eta leku berezia be baiña erritarren aurka, bere kañoiak erritar langillearen kaleetara bideratuta egon ziralako. (2) Zikai = pica o lanza. (3) Araudi Batzarrak = asambleas constituyentes. (4) Morroi lanak debekatu = supresión de las servidumbres, lo que supuso la desaparición feudal. (5) Amarrak debekatu = desaparición de los diezmos y justicias señoriales.

1.789ko urtean Dagonillaren 27an, Araudi Batzorde orrek *“gizon ta erritar eskubideen adierazpenak”* argitaratu ebazanean, Ameriketetan askatasunezko ikurrak izan ziran: *“Askatasun, Bardintasun, ta Anaitasunaren”* izen buru barri orreik⁽¹⁾, Araudi Batzar orren ikur biurtu ziran. Eta 1.793ko urterarte agintezkoa biurtu ez arren, erregeak, egikera au ikusi ondoren, une orreitan bere gudariakaz atzera egin eban.



Errepublikako egutegia.

Lafayettek⁽²⁾ artu eban Pariseko Aberri barriaren gudari zaiñaren agintea, eta Jean-Sylbain Bailli, Araudi Batzarraren lendakaria zana, Pariseko alkate barria izendatu eben.

1.789ko urtean Urrillaren 5ean Zaldun eta aundikiak euki ebazan antolak, ezker-tien legeak ezereztuteko, Pariseko erritarrak eta geien andrazkoak, *Deabrusak* deitu eutsoenai, izan ziran ezereztu ebezanak, Bersallesen aurka joanda.

Eta erregea, alango eraso bidetik beartuta agertuz, Bersallezeko jauretxea itzi eta Pariseko Tullerias jauretxera joan bear izan eban bere sendi osoagaz.

Robespierre tar Maximiliano⁽³⁾ izan zan frantzez barrien, Aberriko Araudi Batzar orren lendakaria, eta orduko denboraren politikazko eritzi guztiak, euren ordezkioak euki egiezen gura ebezalako, 1.200 lagunakaz osotu zan ezberdintasunezko eritzi orren batzar ekintza.

(1) Ameriketetan ordu areitan kontuan artu bear ebazalako. (2) La Fayette ko markesa = La Fayette, Marie Joseph Paul Yves Roch Gilbert Motier, marqués de = 1.757ko urtean Txabaniak'eko errian jaioa eta 1.834an Parisen ildako urte bitartean bizi zana. 1.771eko urtean erregearen eritzien aurka, Ameriketako frantzez kolonietara joanda, 1.777ko urtean Uztailaren 31n frantzez gudaletzearen general andi izendatu eben, eta Washington'en lagun andia izanda, 1.779ko urtean Frantzira itzuli zanean, matxinatuen lagun egin zan, eta oster a be Ameriketara joanda, Frantzira itzuli zanean zelaiko mariskala egin eben, Batzar Nagusien batzarkidea izendatuta. 1.789ko urtean Europako gizaren eskubideak adierazi ebazan. Pariseko erritarrak Bastilla erasotu ebenean, bera egon zan matxinatuekin. Alegiñ asko egin ebazan erregetza iraultzarekin adiskidetzeko. 1.792ko urtean, bere aurkaritza be agertu eban XVI In Luis erregeari egiten eutsoezan lotsagarritzko gauzagaitik. 1.815eko urtean diputadua izanda eta 100 egunetako jaurkintzan, Napoleonen utziera be eskatu eban. 1.818 eta 1.824ko urtetan diputatua izan zan, eta 1.830eko urtearen Iraultzan, Aberri-Zaiñaren gidari izendatu eben. (3) Maximiliano Robespierre = Maximilien François Marie Isidore de Robespierre = 1.759ko urtean Arrasen jaioa eta 1.794ko urtean Parisen il zan lege-gizona. Jacobino ta Montagnarás'en buru zana, eta ustel-gaitzezko gizona deitzen eutsoenai. XVI In Luisen epaiketetan, berak zigortu eban ilketara erregea. 1.792ko urtean Dagonillaren askenetan, berak irasi eban matxintasunaren Auzitegia, eta 1.793ko urtearen asieran, berak bideratu ebazan jir nondinoren aurkako borroka, eta bera izendatu eben Erritar-Salbamenaren Batzarreko kidea (miembro del comité de Salvación pública). Ebertistak eta Dantonistak menperatu ebazan eta Rousseau'k euki ebezan Goiko Jainkoaren eritziak ezarri ebazan erlijio lez. Eta bere ekintzetan lar gogorra izan zalako, erritarrak Tailen'ek bideratzen eban ongundeko kideetasunara alkatu ziran, eta Billaud-Barenne'k 1.794ko urtean Uztailaren 27an bere gudaletzeko indarrakaz Robespierre atrapautu, 1.794ko urtean Uztailaren 28an il eben berak irasi eban, lepoak moztuteko tresneriekin. Bere anai Agustin be, bere anaiari laguntzearen atrapautu, tresneri orregaz il eben.

Eskomatarrak ta eliztar andikiak euren babes arduradun, Kazales goi-maillako jaun andi, eta mintzalari ona izan zan Jean-Sifrein Maury abataren laguntza euki eben. Onek, bere erabagi guztiko jokoa, ezkertiarren aurka agertuz, arerioak iparra galdu egien aleginduta, matraka geiagoren atzean be ibili zan, ur loi orreitan, arraiñ geiago berak lortzeko.

Nekker´tar Jakkes´ek eta bere ingurukoak sortu eben zentzudunezko⁽¹⁾ alderdiagaz, Ingelesak euki eben jaurkintz antzeko bat gura eban euren atzean, baiña zentzudun gitzi baiña ez ziralako batu, Tollendal´eko kondea Jean Mounier Lalli, Klermont Tonnerreko kondea, eta Byrieuko kondeak talde bat sortu eben *erregeen aldeko demokrata*k deitu eutsoenai, gero *“erregetzaren Alderdi”* lez esagutuko zana, eta beste guztiak edo geienak, *“Aberriaren Alderdikoak”* lez ezagutu ziran.

Mirabeau, Lafayette eta Baillyk, andikien aldekoak babesten ebazan, eta Brentoneko Biltokikoak ziran Barnabe, Duport, eta Lameth´ek, sutsuzko ezkerri erritarrak babesten ebazanak, geienak izan ziran.

Araudi Batzar onen denboran, Mirabeau eta Sieyes´eko Abata izan ziran ukatu-eziñezko buru edo aintzindariak, leenengo denbora onetan.

1.801eko urtetik, eleiza ta Araudi-Batzar orren arteko itzarmen edo ta ongun-deagaz, eleiztarren arteko bizi ekintzak begirunez artu egiezan, 1.905eko Abenduaren 11rarte iraun eban. Ortik aurrera apurtu ziralako euki ebezan artu emon on guztiak.

Ararte euki eben Gregoriano egutegi zarra be kendu eben, Errepublikako egutegia ipinita.

1.792ko urtean, Iraillako 22an lenengo egun lez, asten zana.

1. 22. *Frantzezaren konstituzioari bideak zabaltzen.*

Frantzezaren Konstituziozko Batzarra ez zan jaurkitzeko erakunde bat bakarrik, konstituzio barria idazteko be, almena euki ebalako.

Nekker´en antzeko batzuk, agindu biko batzarra⁽²⁾ gura eben, erritarrak, erregeari aurkeztuko eutsoezan gizonetatik, senatore-batzarrerako aukeratu egiezan.

Andikiak berriz, euren artean aukeratutakoak gura eben senatuan ezarri zitezen.

Azken baten baiña, gai-aitor⁽³⁾ geienak, lege-etxe bakarra gura eben danoentzat, eta erregearen almenak, legeen arloetan guztiz ezereztuteko baimenik bage geratu arren, aukeratzen ziran lege orreik atzeratzeko edo oztopatzeko, bere eskubideko eza edo eragozpideagaz geratu zan.

23. *Frantziko Bateratze edo Elkartzearen Besta-Burutik, Barennes´eko aldira.*

Boz emaille edo autatzaille frantzezak, urte bateko epe edo denborarako aukeratzen ebazan Orokorrezkoaren Laterrirako⁽⁴⁾. Aukeratutako Irugarren Laterrizko kide guztiak *Guzienak* deitzen eutsoenai, *“Jeu de paume”*ko ziñ-itzari begira baiña, ez eben gura urten batzar gela orretatik, arik eta Konstituziozko lege guztiak bete egiten ziran arte.

(1) Zentzudunezko alderdia = partido moderado (2) Agindu biko batzarra = asamblea bicameral. Sistema parlamentario de dos cámaras, o lo que es igual = senado y la cámara de diputados o representantes.

(3) Gai-aitor geienak = la mayoría liberal. (4) Estados Generales.

1.790eko urtean, Iraultzaren aurkako matxintasunak agertu ziran, uts egin ebenak denbora gitzian. Denbora onetan, elkartasun asko ugaritu ziran, danetatik Jakobino ta Kordeliers´ak geien izan zirenak. 1.792ko urtean, 152 Jakobinoen alkarte⁽¹⁾ egon ziran.

1.791ko urtearen lenengoetan, frantzez Laterrizko Aberriaren batzarkideak, “*émigres*” edo iraultzaren denboran Frantzitik kanpora urtetan ebenai, iraultzaren aurka, guda-laguntza lortu naian, lege baldintzatu gura ebazan, aitzaki orrekin, Frantzitik diru geiago ez dagian iges egiñ. Mirabeau´k baiña, lege baldintza orrein aurka agertu zan.

1.791ko urtean Bagillaren 20an, erregea aurkakoa izanda, Iraultzak artzen egoan bideekin, iges egin eban bere sendi guztiagaz Tulleriaseko jauregitik.

1.791ko urtean Bagillaren urrengo 21eko egunean baiña eta erregearen sendia Tulleriaseko jauregitik urtenda iges egoala⁽²⁾, erregea Berennesera eldu ziranean zal-gur-ditik urten eban, eta erri-zain batek ikusi ondoren baitu ta ostera bialdu eban sendi guztia Parisera, lagun-talde bategaitik zainduta. Parisera eldu ziranean, XVIIn Luis bere emazte Maria Antonieta eta Maria Teresa ta Luis Karlos, XVIIIn Luis izango zan alaba-semeakin, atxilotu lez geratu ziran.

1.791ko urtean Iraillaren 3an onartu eban frantzez batzorde orrek, osotu egin zan leenengo Konstituzioaren Araudia. Eta Orokorrezko batzar guztien arduradunai, euren ordezeko eskubideakaz jantzi ba-eutsien errege aginduaren kanpo, erregea bere arduratan, agintezko arduraren gaiñ, ezaren eskubide edo eragozpideagaz⁽³⁾ almenu eben.

Batzarkideak euren aldetik, merkantillezko eragozpen guztiak garbitu gura ebazan, lenauko merkantillezko erakundeak eta lagunarteak⁽⁴⁾ kenduta, eta ortik aurrera danari ostera baimen agiri barriak artzera beartu eutsoen, sasi-lan edo lan-uzte⁽⁵⁾ guztiak debekatuz.

Eta konstituziozko erregearen alde oraindiño indar asko arren, frantzezaren batzar orrek askenean, erregea edergarrizko⁽⁶⁾ irudi lez itxi eban.

Jakkes Pierre Brissot´ek, erregearen aurkako salantza orrein gaiñetik, beste salantzazko baldintza barri batzuk aldarrikatu ebazan, adibidez: ***Erregea kendu ba ebela, iges egin ebalako zala***. Eta amaibageko jendarte bat zan Marteko Zelaietan, esan orreri indarra emoten.

Frantzezaren Aberri barri orren Orokorrezko Batzar orreitan, Jeorjes Danton eta Kamile Desmoulins´ek itzaldi gogorak egin ebazan, eta batzordeko kideak Udalzaiñakoari eskatu eutsoen, gizarte mailla zaindu egien.

Lafayette markesaren⁽⁷⁾ agindupean egon ziran Aberri-Zaiñen aldetik, erritarrai eraso gogorak eginda, erritarrak euren aldetik, arriak asi ziran botaten Errizain gu-

(1) Jacobinoen elkarteak = Club revolucionario Francés, cuyos miembros figuraron entre los más exaltados. Se les llamó así, por haber celebrado sus reuniones en un convento de los Dominicos, a quienes se les daba el nombre de Jacobinos, por la calle de San Jacobo, donde tuvieron su primera casa en Paris. Saint-Just eta Robespierre izan ziran euren aintzindari nagusienak. (2) Emen erregeak egin ebana baleiteke arrokeriz egin ebala. (3) Erregea bere eragozpidetako eskubideagaz geratuta = al rey le quedó el derecho de que podía vetar cualquier ley, por lo que podía retrasar la validez de la ley hasta que se reformase o convalidase. (4) Merkantillezko lagunarteak eta lagundiak = corporaciones mercantiles y los gremios. (5) Sasi-lan edo Lan-uztearen eskubideak = supresión del derecho ala huelga. (6) Las cortes Constitucionales decidieron mantener al rey como una figura decorativa. 1.830eko urtean, Aberrien-Zaingotzan, Arduradun Nagusia. (7) La Fayette, Marie Joseph Paul Ibes Rotx Gilbert Montier, Marquesa = 1.757ko urtean Txabaniak en jaioa, eta 1.834an,

dariai, eta auek lenengoetan, bota zituzen tiroak, aizetara bota ba ebazan, Lafayetteen aginduz, erritarrek tirokatu ebazan, 50 giza-semetik gorako ilda, erritarren artean.

Agintariak, sarraskitza au ikusi ondoren, lagunarteko biltoki batzuk, eta izparringi batzuk be giltzapetu ebazan, Jean Paul Marat´ek eroaten ebena bezala.

Orren ostean Danton´ek, Ingalaterrara iges egin eban, eta Desmoulins ta Marat´ek Parisen ostonduta geratu ziran.

Bien bitartez, batzarkideak Konstituziozko Araudia bete eben, eta erregeak bere itzaldia bota eban, txalokada aundi baten erdian onartu zana.

Eta 1.791ko urtean Iraillaren 29an Lege Nagusirako Batzar ori, ezereztu egin zan.

1. 24. *1.791-1.792ko urte bitartean, Legegille Batzar ta erregetzaren itzaltze edo erorialdia.*

1.791ko urtean, Konstituzioaren agindupean iraun eban Frantzezaren lurralde osoa, erregetza konstituzioaren ordezk bezela iraunda, batzarraren agindua errege ta batzarkideen artean bananduta erabili bear zalako. Erregeak oraindiño, bere eragozpi-dearen eskubideak eta bear ebazan ministruaren aukeratzeak, euki ebazan.

1.791ko urtean Urrillaren 1ean batzartu zan lenengoz Legegille Batzar Nagusi ori, Bernabe, Dupont eta Lameth´egaitik bideratuta egon ziran 264 diputadu feuillants eta jirondinoak, andiki edo errepublikako jauntxoen ordezkak izan zirenak, eskumako aldean ezarrita.

Erdian, askatasunezko 345 diputadu, politikazko egitamu zeatz bat, ez ebenak euki.

Ezker aldean, 136 diputadu jacobino edo kordelierseko elkarteetan lerrokatuta egon ziran Pariseko erritarren ordezkak lez. Marat eta Herbert´ek, euren aldizkari *L'Ami du Peuple ta Père Dúchense* bitartez, ondo baiño obeto bideratzen ebazanak.



Georjes-Jakkés Danton.

Parisen ildakoa. 1.771ko urtean eta erregearen aurka, Ameriketara joan zan Ameriketako matxinatuakaz alkartzeko, 1.777ko urtean Uztaillaren 31n Ameriketako Jaurkintz Batzarrak, guda loztearen Guda Nagusi izendatu eben. Washington Lagun aundia izan zan, eta 1.779ko urtean Frantzira itzuli zanean, matxintasunek legeztuaren gurean ibilita, osteria itzuli zan Ameriketara, eta 1.789ko urtean Frantzira itzuli zanean, Ze-laiko Mariskala egin eben, Aberriko batzarraren kide be egin eben, eta Europarentzako, Giza-Eskubidearen Aldarriketa bat egin dagien adierazi eban. Bastilla erasotu ebenean be bertan egon zan. Bera Eskuzabal eta Masoi lez (Liberal y Francmasón) Erregetza ta Iraultza adizkidetu gura ebazan. 1.792ko urtean, XVI In Luis erregeari egin eutsoezan apalkuntzagaitik (humillación) be aurkari agertu zan, eta Frantzez Batzordekoak, etsaiekaz adimenduta egoala salatu eban. 1.815eko urtean Diputadua zan eta Napoleonen utziera (abdicación) eskatu eban Eun Eguneke epeetan. 1.818 1.824ko urteetan diputadua izan zan, eta 1.830eko urtean, Iraultzaren Aberri-Zanintzaile Nagusia.

Batzar onetan, ezker aldekoak ez eben euki eragipen aundirik, jirondinoen políti-kagaitik menderatuta egon ziralako.

Jakobinoak beste aldetik, jauntxo txikerraren ugaritasuna euki eben atzetik, eta Kordeliers´ek Pariseko erri-xumeen ordegotza.

Diputadu guzti oneik, polotikazko alkartetan batzen ziran, eta onetatik ospatsue-na, Robespierrek bideratzen eban Jakobinoen alderdikoa zan.

Onen ezker aldean, Kordeliers edo sokagilleak egon ziran, gazteen adiñetik gizon guztien autarkia eskatzen ebenak.

Kordeliers´eko taldekoak edo Pariseko erri-xumeen taldea, Jean-Paul Marat eta Jeorjes Danton´engaitik bideratuta egon ziranak, erregetzaren erakundea ezereztutea eskatzen eben, errepublika bateko jaurkintzan ezartzeko.

Jirondinoak izan ziran batzuen eritziz, burutakizun apal edo zentzundunezkoak, euren eritziz, batzuen autarkia⁽¹⁾ bakarrik onartzen ebena, ta ertzeratu, banatu edo baz-terreratuko aginduan, konstituziozko erregea⁽²⁾ gura ebenak.

Euren artean, *“Putzuzkoak edo Zelaikoak”*⁽³⁾ deitzen eutsoenai be egon ziran, eta onei bardin eutsoen jakobino edo jirondinokoakaz joatea.

Batzarraren lenengo illabetetan, XVIIn Luis erregeak, atzerrira laguntza billa edo euren diruakaz iges ibili ziranai, iltera zigortu ebazanean, bera *“émigrés”* en alde urten eban, berari geratzen jakon autapidearen eskubideagaz debekatuta erabagi ori.

Baita apaiz ta lekaide eleiztarrak, Laterrizko frantzez Aberriari ez ba eutsen emo-ten euren zintzotasun edo leialtasunezko itzagaitik, zigortu ebazanaren alde be.

Eta batzar orreik bardin zigortzen ebazan lez, euren legeen aurka ibili ziranai, erre-geak eukezan eskubideko eza edo eragozpideen⁽⁴⁾ babesean, geiagotzen joanda, naikoak izan ziran ekintza orreik, konstituziozko lege areik, larri-une edo estu-aldietan ipinteko.

Gero XVIIn Luisen aurkakoak biurtuko zirenak.

1. 25. *Austria eta Prusiaren aurkako Frantzezaren guda.*

Frantzian gauza oneik sortzen zirala ta, Europako Austria ta Prusiano alosokeriaren kaisertzak bien bitartez, euren gudalozteak alkartzeko gogapenakin ibili ziran, Frantziako iraultzaren lurraldeak erasotu, eta ostera, XVIIn Luis bere erregezko alosokerian ezartzeko.

Austria eta Prusiako kaisertzaren itzarmen orreik, bildurtu ebazan frantzez erritar barri orreik, eta bereala alkartu ziran Frantzi barriko lurraldearen guztiak, euren aska-tasunezko eritzi orreik babestu ta Europa guztitik zabaldu egiezan.

Eta guda ori aurrera doiela, frantzezaren artean, euren askatasunezko elburu ba-ririkin, erritarren askatasunezko adierazpenetan edo esanbide barri orretan, sartuta ibili zirala.

Maria Antonieta⁽⁵⁾ erregiña, apainkerietan eta kirkillerietan ondatzen ebazan di-ruagaitik, (ez zana, beste gortekoak egiten ebazanak baiño geiagorik) *“Madame Défi-*

(1) Batzuen autarkia bakarrik onartzen ebena = sufragio censitario o restrinjido. (2) Bazterreratuko aginduan Konstituziozko erregetza = Monarquía constitucional descentralizada. (3) Putzuzkoak edo Zelaikoak = a los que llamaban “el pantano” o del “llano” que no tenían un voto propio y se iban por las proposiciones que más les convenían, ya vinieran de los jacobinos o de los girondinos. (4) Beren eskubideko eza edo eragozpidea ibili ebazalako = por utilizar su derecho a veto. (5) Maria Antonieta, XVIIn Luisen emaztea eta Austriako kaiserraren alabea zana.

cit” eta Austriako kaisar I Franzizko eta Maria Teresaren alabea zalako “*La Austriaca*” deitu eutsoen.

Baita XVIIn Luis erregeagaitik, Batzarreko legeak eragozpendu egiten ebazalako, bekaitz edo begi-erdiko lez artuta, txarto berba egiten asi ziran beragaitik.

1.792ko urtean Epaillaren 2an baiña, Mirabeau il zan⁽¹⁾, eta batzordeak aurrera egin eban lege orreiñ baldintzakaz.

1. 26. *Frantzezaren bigarren iraultza, eta Lenengo rrepublikkea.*

1.792ko urtean Dagonillaren 10ean erritarrak, Tullerriaseko jauretxea erasotu eben, eta konstituzioaren Legegilletasunezko Batzarrak emonda, XVIIn Luis erregeak euketan konstituzioaren legeak ordezeko eskubidedun lez, kendu eutsezan.

Konstituzio barri orren batzarkideak, auteskunde barriak agindu ebazan guztien autarkiakin, Lege-Biltzar barri bat aukeratzeko, eta Itun edo Ongunde’aren⁽²⁾ izena ipiniko eutsoen.

Gauza guzti onengaitik, Europako erri edo erregetzaren gudalozteak keiñalari agertu ziran, nortasunezko frantzez barri orreik, Europaren erregezko alosokeriak, demokrazizko errepublika batera bideratzen egon ziralako.

1.792ko urte onetan, Lege-Biltzar orrek erregegintza⁽³⁾ ezereztu ondoren, Errepublikaren Batzarra aldarrikatu eban, eta egutegia aldatu eban, urte au ipinita mundu guztiaren aldi barrirako, leenengo urtea lez.

1.792ko urtean, Iraillaren 20ko egunerarte iraun ebezan konstituziozko erritarren batzar edo erritarrengaitik artutako batzar orreik. Eta batzar barri orreik, gizon iltzaileak bialdu ebazanean espetxeetara, eginda egon ziran ilteko tresneri barriakaz, 1.400eko gizasemeen lepo edo buruak moztu ebazan, beste erriko batzarrari be eskatuz, eurak be beste ainbeste egiezala, aurrakako batzarkideen artean, ez ebena onartu.

Eta 1.792ko urtean Iraillaren 20ko egun onetan aukeratu eben frantzez barri orreik, frantzez Aberriaren Itun edo Ongundearen Lege-Biltzar barria.

1. 27. *1.792ko urtetik 1.795eko urteraiño, Itun edo Aberriaren Ongundeko jaurkintza.*

Aberriaren Ongundeko jaurkintza onek, Errepublikako Legegilletasunaren agintaritzaz euki eban, Egillezko agintaritzaz ori baiña, Aberrien Salbameneko Batzordearen eskuko⁽⁴⁾ arduratan geratu zan.

1.792ko urtean Iraillaren 20an Egiuneko Batzorde au batu zanean, Frantziaren lurralde osoetako dendadunak, esku langille, igeltsero, aberezañ, baserritar, suiltzai-

(1) Mirabeau ‘tar kondea = Mirabeau Honoré Gabriel Riqueti, 1.749ko urtean Le Bignon ‘en jaioa eta 1.792ko urtean Parisen il. Iraultzaren eritziak erregetzagaz alkartu gura eban gizona zan, erregearen agindupean irauteko. 1.790eko urtean Jakobinoren alkarteaz bideratu eban, eta 1.791eko urtean konstituziozko Batzarraren lendakari izendatu eben. Eta idazlari trebea izanda, garrantzi aundiko liburuak idatzi ebazan 1.788-1.789ko urtetan, 1.792ko urtean il aurrean “Lettres á Sophie” idatzita. (2) Itun edo Ongundearen Lege-Biltzar barria, que se conocería con el “El nuevo gobierno de la convención”. (3) Erregintza = oficio de rey. (4) Erritar salbameneko elkarteaz = comité de salvación pública.

lle, su-gizon edo errementari, ta nekazariak, Frantzez gudalozteetan lerrokatu ziran, eta Marneko lurraldean dagon Balmy'zeko⁽¹⁾ auzunera eldu ziranean, Dumouriez ta Kellermann'ek guda nagusi bi onengaitik bideratuta, Brunswikk⁽²⁾ dukeak bideratzen ebazan Austro-Prusiatar gudalozteak aurkari agertuta, egundoko edo itzalezko astintasuna artuta joan ziran Austriatar eta Prusiako gudalozteak.

Eta ortik aurrera asi ziran Frantziak euki zituzen Iraultzazko borrokak.

1. 28. *XVI In Luisen ilketa eta Europatik lenengo alkartea Frantziaren aurka.*

Brunswikk'eko dukearen agiritik ikusten dogu, Alemania ta Prusiano kaisertzak, prest egon zirala Frantziko lurraldeak menperatzera joateko, frantzez barri orreik ez ba ebezan erregeak bere alosokerizko lekuan ezartzen. Erabagi txarra izan zana erregearen aurka, erritarrak erregea, azpikari edo ziñ-eragille⁽³⁾ lez artu ebalako.

Eta 1.793ko urtean Urtarrillaren 17an, frantzezaren batzorde barri orrek autarki gitxi gaitik, erregea ilteko erabagia artu eban, frantzez erritarren askatasun eta Orokorrezko Laterrien ziurtasun aurka, lan egiten ebalako.

1.793ko urtean Urtarrillaren 21ean moztu eutsoen lepoa XVI In Luis erregeari, Europako errege guztiai zutik ipiniazo eutsena, gudarako leergailluen izpi-xortari sua emonda⁽⁴⁾.



XVI In Luisen ilketa, Guillotina edo lepoak moztuteko tresneri onek 35.000'tik 40.000 giza-semeen lepoak moztu ebazan, bildurrezko jaurkintza denboran.

1.793ko urtean Urtarrillaren 16an Maria Antonietari moztu eutsoen burua, Austrian matxintasun bat sortuz, eurretatik Frantziko erregiña barri bat aukeratzeko, Austria eta Frantziaren artean, artu emon guztiak apurtu ebazan.

Diruaren arloak berantza joanda, gose edo tripa-zorriak ugaritu ziran, eta alan ugaritu ziran be, errixeen arteko matxintasunak.

Sans-Kulottes⁽⁵⁾ deitzen eutsoenai, euren nai-eza edo atsekabea erakusten eben, euren urduritasunean, frantzezaren iraultza onek, be aldeko erritarrak mesedetuz barrik, artzen ziran esku luzeko edo askatasunezko neurriak mozkiñ sarietan, eta itzar-meneko askatasunetan, le Txapelier'eko legeari begira eta abar, kalte aundiak egiten ebazalako euren artean.

(1) Valmy = Frantziaren Marneko lurraldean kokatuta dagoena. (2) Brunswikk dukea = Austro-Prusianozen gudalozteak bideratzen ebenzana. (3) Azpikari edo ziñ-eragille lez artu ebalako = el pueblo lo tomó conspirador. (4) Leer-gailluen izpi-xortari sua emonda = dando fuego a la mecha de la bomba. (5) Sans-Kulottes = Sans-culottes deitu eutsoen, 1.789ko urtearen iraultzazko gogorrenai, gorteko andikien antzera, Praka edo galtza txikerrak (culote) ez ebelako eroaten, Praka edo galtzazpi luzeak eroaten ebazalako. Ortik aurrera izen au, ezker-ertzeakoak zirenak eroaten eben.

Denbora onetan, Iraultzaren aurkako borroka asi ziran Frantziko lurralde batzuetan.

Kontuan artu bear zan gauza, Bandearen⁽¹⁾ gudak edo sortu ziran borroka dira, ango erritar nekazari ta baserritarrek iraultzaren aurka asita, errege ta katolikotasunaren alde ipini zirialako.

Pariseko gudalozteak, sarrazki aundi bat euren artean eginda amaitu zana⁽²⁾.

Beste aldetik, Europako errietatik Frantzira agertzen ziran guda keĩnadak, gogorrek izan ziran, Frantziko Iraultza eta Errepublikagaz amaitzeko, gogo andiak euki ebazalako.

Eta bildurragaz, zelan jakobinoak matxinatu⁽³⁾ ziran, be-maillako erritarren laguntza eskatzen, jirondinoaren aurka joateko.

Asken baten jakobinoak *sans-kulotesen* billa joanda, frantzezen jaurkintzazko zilbor edo erdi-toki lez geratu ziran.

Jakobinoak euren politika arloan, *sans-kulotes* eta erri-xeenaren eskaerak eroaten ebazan, eta eskaera orretatik *bakoitzaren jabetzak bezela*⁽⁴⁾, ez zirialako gauza asko onartzen, auek sekula ez ziran zalantzan ipiniko.

Jakobinoak, sekula ez eben zalantzan ipiniko askatasunaren antolakuntzak, euren ardurea, orren demokrazizko zabaltasunera bideratu ebezalako indarrak, euslari edo gordetzaille ta ertzeko politikari⁽⁵⁾ guztien aurka.

1.793ko urtean, beste adierazte barri bat be egin zan, gizonen eta Munduko gizonen eskubideen alde⁽⁶⁾, demokrazizko konstituzio barri bat izan zana, guztien autarkia onartuz.

1.793-1.794ko urte bitartean, Maximilien Robespierrek artu eban Erritar Salbameneko Elkartearen Batzar nagusitasuna⁽⁷⁾, eta jakobinoak lardazki edo ikarabidezko agintaritzatza⁽⁸⁾ sortu eben.

10.000 gizon-emakumetik gora il ebezan euren lepoak moztuta gillotinazko tresneri orreitan, iraultzaren aurka ibili zirala zalatu ondoren.

Eta orrela il eben guztiak aldi orreitan, 40.000tik gora izan ziran.

1.794ko urtean Robespierrek, jacobino burudun eta geikeri edo ertzerazko politikan ibiltzen ziran gizon emakumeak asi zan iltzen, ata guzti, euki eban erri-ospea asi zan galtzen.

Eta 1.794ko urtean Uztaillaren 27an, iraultzaren bidea galbidezkoa zala eta, erritar burudun aldetik, Robespierre´n aurkako matxintasun bat sortu eben.

Erritarrek, Robespierrek eroaten eban jauntxo bizitza ikusita, ta Berler, Leklerk⁽⁹⁾ eta Roux´en aurka joateagaitik, beren aurka agertu jakozan

Bere ekintzetan lar gogorra izan zalako, erritarrek Taillen´ek bideratzen eban ongundeko kidetasunarengana⁽¹⁰⁾ joanda *Pantanoko*´koak euragan alderatuz, lortu eben Robespierre bere lekutik kendu bear zala, ta iltzera zigortzea, bere *Erritarren*⁽¹¹⁾ *Salbameneko Batzordearen* lagun batzukaz batera.

(1) Bandea edo bandeano = Frantziaren Mendebalaren Vendée´ko lurraldea da, eta Vandeano, orko lurraldekoak ziranai deitzen eutsoen. (2) Erri oso baten ilketa lez artu zana = Genocidio. (3) Jakobinoak matxinatu ziran = Tramaron un golpe de estado. (4) Bakoitzaren jabetasunak = propiedad privada. (5) Euslari edo gordetzaille ta ertzeko politikari = conservadores y políticos extremistas. (6) Gizonen eskubide eta *Uritar edo Munduko gizonen* alde = en favor de los derechos hombre y ciudadanos del mundo. (7) Erritar-Salbamenaren-Batzordekoak = comité de salvación pública. (8) Lardazki edo ikarabidezko agintaritzan = en el reinado del terror. (9) Leklerk = Pontoisen 1.772eko urtean jaioa eta 1.802ko urtean Santo Domingon il zan General edo Gudal Nagusia. (10) Ongundeko kidetasuna = Pantano deitzen eutsoenai. (11) Erritar salbameneko elkarte = comité de salvación pública.

Eta 1.794ko urtean Uztaillaren 27an Billaud-Barenne 'k bere guda-lozteko indarra-kaz Robespierre atrapau eban.

1.794ko urtean Uztaillaren 28an il eben Robespier'tar Maximilian, berak irasi eban lepoak moztuteko tresneriekin.

Bere anai Agustin be, Robespier'eri laguntzearren atrapauta, tresneri orregaz il eben.

1. 29. *Itun edo Ongundearen⁽¹⁾, Rosellon⁽²⁾ edo Añamendietako borrokak.*

1.793eko urtetik 1.795eko urteraino, espainitarren IVna eta Nafarroako VIIIn Karlos erregea, ta frantzezaren lenengo Errepublikak edo Ongundeko jaurkintzaren artean sortu zan borrokari deitzen jakon, Rosellon, Añamendi edo Ongundeko borroka.

1.792ko urtean 21eko Urtarrillan, XVIIn Luiseri lepoa moztu eutsoenean asi ziran Añamendietako borroka gogor oneik. Frantziaren 25urteko guda nagusi baten esanetan "Guda Aundia"ren izena ipini eutsona, or sortu ziralako espainitarren sasi-gudak leenengoz, ainbeste kalte egin ebenak frantzez guda-lozteetan. Napoleon izan zan guda agintari nagusi ori.

XVIIn Luisen lepoa moztuteak, Europako erregeen asarrea sortu eban, eta Austria ta Prusiari, Britania Aundia, Olanda, Piamonte, Nápoles, eta geroago espainitarrak al-kartuz, Godoyk itxaron gure ebalako beste indarrak borrokan aurreratu dagiezen, bera gero sartzeko. Munduko leen guda nagusiaren izena be, ipini eutsoen.

1.793ko urtean Epaillaren 3an legez izanda, 7an a ta guzti, frantzez Ongundeko batzarreko jakobino orreik ez eutsoen Godoy'eri astirik emon, urte ta egun onetan arrokeri andiz, gudaren adieraztea aurkeztu eutselako espainitarrai, eta 31ko egunean frantzez gudari talde batek, amabi ordu baiño ariño, Aran'eko Ibar guztiagaz jabetu zan.

Eta Godoy'tar Manuel⁽³⁾ espainitarren erregetzan gizon andiena izanda, Ingalaterrarekin itzarmendu ta ziñatu eban alkarte bat, Frantziaren aurka borrokatzeko.

Arrokeri aundiz esaten dot, ordu areitan frantzezak, Añamendietan ez ebelako 10.000 gudari baiño euki, espainitarrak 60.000 gudari euki zituzen aurka : Kataluñan 36.000 gudari, 19.000 gudari Nafarroan Ricardos guda nagusiaren agindupean ta Kastelfranko jeneralaren zuzendaritzan egon ziranak, eta Aragoien Caro guda nagusiak euki ebazan 5.000 gudari.

1.793ko urtean Jorraillaren 17an emon jakon asiera borroka nagusi oneri.

Eta Rosellon'eko giza-seme alabak emon eutson Rikardos'eri guda asteko aitzaki berezia, berari espainitar mugatik 8 km'ra dagon Saint Laurent de Zerdans'ekoak babes billa joan jakozenean.

Dana asi zan, Saint Laurent de Zerdans'eko erritarrak, 1.793ko aste Santuaren Gurutze Bidea ospatu gurean, euren artean maite eukena, eta ziñezten ebelako eurei elderri batetik alderatu ebazalako, frantzez Ongundeko arduradunak debekatu eutsoenan.

(1) Itun edo Ongundeko borroka = guerra de la convención. Convención = pacto = Itun edo Ongunde. (2) Rosellon = Frantziko Ego aldean, Langedok, Añamendiak eta Lurrarteko itsasoaren bitartean dauan itsas-bazterreko lurraldea. (3) Godoy'tar Manuel = 1.767ko urtean Badajoz'en jaioa, eta 1.851eko urtean Parisen ildakoa. Espainiako Maria Luisa erregiñaren begikoa izanda, 1.793eko urtean, beren mezede bidetik, Arandako kondea kanporatu ebena, bera IVn Karlosen leen ministrua izateko. Basileako Ituna izenpetuagaitik, "Bakearen Printzea" izendatu eban. Beren política bidez, Antillaseko Ugarte artean Trinidadzeko ugarteak galdu ebena. IIIIn Karlosen denboratik etorten ziran Argitasunaren (ilustración) aldiko ministruren aurkakoa izateagaitik, ministru lez egin eben lana zorrigaiztokoa izan zan. Eta 1.808ko urtean politikazko jaurkintza ori txarto eroan ebalako, frantzezaren aurkako "Arajuezeko matxintasuna sortu zan, IVn Karloseri erregetzatik kanporatzea balio eutsona, bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan izteko erregetza ori. Frantzira atzeriratuta IVn Karlos bere sendi guztiagaz, Parisen bizi zana il zan arte.

Erritarrak asarre aurre eutsoen frantzez arduradunai, eta onek larri aundiz iges egin bear izan eban, arik eta ostera 300 gudarigaz agertu arte, errudunai lepoak moztu eta beste guztiak zigorpean ezartzeko.

1.793ko Jorraillaren 10ean al eben erritar batzuk Rikardos'engana joan ziran laguntza eske.

Eta 1.793ko urtean Jorraillaren 17n egunean 3.500 gudari bialdu ebazan Esko-fet'tar Juan agindutara, frantzez gudari orreik iges ipinteko, eta geroago erritar orreik Rikardos'eri esker onez, 2.000 lagunekas, Kos'eko menditik ekarten ebazan kañoiak lagunduta aldatzen.

Guda orreri asiera emon ondoren, espainitar erregezko aolkularitzatik Arandako kon-deak, Auñamendien kateetan egon ziran iru guda tokietarako, borrokazko eraso andi bat antolatu eban frantzezen aurka, Kataluña edo Auñamendien Ekialdeko leen tokiarentzat, guda talde aundiena emonda 32.000 gudariakin, Ricardos gudal nagusiak bideratu egiezen.

Erdi tokirako, 5.000 gudari emongo eutsoezan Kastenfrankoko Printzeari, Ara-goiko erdigunea babestu egien.

Eta beste Mendebaleko Nafarroa eta Gipuzkoaren muturra babesteko, Karo'tar Benturari emongo eutsoezan 18.000 gudari.

Askeneko gudalozte bi oneik, mugado babesean ibilteko, jolasbide lez ipini ebazan, eta bide batez, Ekialdeko gudalozteari laguntzeko bear zanean.

Eta Rikardos'tar Antoniok⁽¹⁾, Kataluñako kapitan gudal nagusiak, gizaldi bat ariñago Katalanak galdu ebazan Roselloneko lurraldeak, bere gudaloztearen erasozko antolaketaetan asi zan, ostera berrezkuratzeko.

Bien bitartez, Langara'tar Samuel eta Ood'tar Juanen aginduan ipini ebazan Iga-lattera ta espainitar itsas-gudalozteak, frantzez Bar'eko lurraldean dauan Tolon'eko itsas-bazterretik, Rikardosen gudalozteari laguntzeko aginduagaz.

Eta 1.793ko urtean Loraillaren 18an, mugaldeko ainbat erri artuta, Dagobert fran-tzezaren gudal nagusiari irabazi eutson Mas Deu'ko borrokan, Iraillarerañño, mugako gaztelu guztiak artu ebazan, Baños, Bellegarde, eta Tek'eko lurraldean, Tetx ibaiaren ibarrean dauazan Tek, Zeret, Arles-sur-tetx eta abarrezko auzunezko erritxoak.

1.793eko urtean Dagonillaren 28an Tolon'en lurreratu ziran 13.000 gudari Inge-les, Napolitano, piamonteseako eta espainitarrak.

1.793ko urtean Iraillaren 22an Rikardosen garaipenak frantzezaren aurka, Truilla-seko borroka irabazi ebanean amaitu ziran.

Rikardosek borroka onetan, Osunako dukea, Alkartearen kondea, Portugues gu-dalozteak, eta itsas aldian zirikatzen egoan Ingalaterra ta espainitar guda-ontzidiaren laguntza eukinda, frantzez gudalozteai, 6.000 gudari il eutsoezan.

A ta guzti Ricardos gudal nagusi orrek, eroan ebazan 20.000 gudari eta 106 kañoia-kaz, atzerantza egin bear izan eban, orni, bizigarri edo bizikai gitxi euki ebazalako.

(1) Rikardos'tar Antonio = Ricardos eta Karrillo'ko Albornoiz'tar Antonio. 1.727ko urtean Ueskako lurral-dean Barbastroko errian jaioa eta 1.794ko urtean Madrillen il zana. 1.744ko urtean Italian, 1.762ko urtean Portugalen, eta 1.775eko urtean Arjeliako gudatan egon zana. Fede-Zaindia (inquisición) euki eban bere atzean sarri. Frantzia ta Espainiaren arteko mugak ezartzeko, elkarte orren arduradunen artean be egon zan. 1.788ko urtean Floridablankak Gipuzkoara atzerritu eban. 1.793ko urtean Kataluñako gudaloztearen gudal nagusia izendatu eben, eta Truillazeko borrokan frantzezari irabazita, ia Perpiñanen sartu zan. Okañako Gudarako-Ikastetxea irasi eban. Eta Rosellonen egin eban lenengo ekitaldian egindakoak idatzi ebazan.

Aukera txar orretan egonda be baiña, Aspreseko borroka be irabazi eutsen Rikardos'ek, Frantzez Errepublikakoei, Santelmo, Kollioure, ta Bendreseko kaiaren lurraldeak artuta. Ekintza orregaz, Roselloneko itsas-bazter guztia menperatu eban.

1.794ko urtean Epailaren 13an Madrillera joan zan Rikardos gudal nagusi ori, berari ez eutselako bialtzen janaririk eta gudarako bear ebazan tresneririk be, eta bidean birikerizko gaitzaldia⁽¹⁾ atrapauta il zan.

1.794-1.795eko urte bitarteko guda ekitaldian, frantzez gudalozteak, Dugommier gudal nagusia agintari eukela, Rosellon ingurutik atara ebazan espainitar gudalozteak, Jorraillaren 28an Tek'etik, Jorraillaren 30ean Albere, eta Loraillaren 1ean Boulouko borrokak irabazita. Eta frantzez gudalozteak, Kataluñatik Euskalerrian sartuta, Ebroke Mirandaraiño menperatu eban.

1.795eko urtean Godoy'k ikusita borrokatik ez ebala ataraten gauza onik frantzezakaz, auek berak gogoratzen ebena baiño gogorrakoak ziralako, bera Ingeles eta beste erritik kanpo, Basileako Bakea sinatu eban guda amaitutearren, espainitarak Frantziko Errepubliketa onartu bear izan eban, La Española ugartearen espainol aldea be frantzezari emonda, eta salerosle arloetan bien arteko artu emonak berriztuz.

Ongunde onen bitartez Godoy, Bakearen Printzea izendatu eban.

Truillaseko borrokagaitik Rikardosen alarguna, Truillaseko konde Andrea izendatu eban, eta Frantzezaren Boulou'n egin zan borrokako garaipen bidetik, Pariseko Garai-Mako Arkuaren zutoiñetan idatzita geratu zan, Frantzez garaipen andi guztiak lez.

1. 30. *Frantzian, Gizon eta Mundu edo Uritar*⁽²⁾ *Eskubideen Adieraztea.*

Leku berezi onetara ekarri gura izan dodaz, Gizon-Emakume eta Munduko⁽³⁾ edo Uritar Gizon-Emakumearen eskubideak, onen ostean askatasunezko lege-baldintza orreik sakon azterkatuz, ia Nortasunezko edo Norkerizko aldekoak diran lege-baldintza oiek, ostopotu egiten dabenak gure Euskalerrri maite onen leen eskubideak erri bat izateko. Gaiñera, Europako Mendebal onetan, nai Izkuntz, Askatasunezko Demokraziz eta bai ordezkariatzako giza legean zaarrena izanda.

1.792ko urtean erregetza kendu ebenean, eta Lenengo Errepubliketa izendatu ebetik daukie iru margoko urdiñ, zuri, gorrizko ikurriña.

Baiña ez gaur daukien frantzez goratzarre, eresi edo ereserki au, 1.795eko urtekoa izan arren, Frantziko eta Nafarroako IIIen Enrikeri, frantzezak atara eutsoen abestitik artuta dagoelako, bera Frantziko errege izan zanean 1.574-1.589ko urte bitartean.

Europako Mendebal onetan edo orain Frantziko lurraldean, euskal-gizak lortu ta oiñarritutako eskubideak izan ziran legez beti danik, gertakizun ospatsuenetarikoak bere edesti guztian, eurak gaitik arduratu ziralako gure arbasoak.

Arik eta leen K.a. 600urte keltiar frankoak Normandiatik sartu, eta K.o.325eko urtean Nizeako Eleiz Batzarrean Izadi au katolikotasunean aberritzeagaz, izkuntzazko Aberritar Nortasundunai⁽⁴⁾, lapurkeri andiena egin arte. Kontu aundian artu bear dana.

(1) Birikerizko gaitzaldia = enfermedad de los pulmones-pulmonia. (2) Uritar = ciudadano. (3) Munduko Uritar edo Uritar gizon/emakua = ciudadanos del mundo. (4) Izkuntzazko Aberritar Nortasundunai = personalidad en su denominación por el idioma que le configuró como pueblo. Esto es: Pueblos de Cultura propia, o pueblos a los que sólo se les puede llamar culturales. Que son los únicos que verdaderamente pueden utilizar la denominación de pueblos, o Naciones.

Eta askeneko frantzez barri oneik, Munduko edo Uritar giza izendatu arte, Nortasunean ezereztuta geratu gindezan.

Zelan biziko ote giñan Nortasun bage Izadi onetan ?.

Azturazko oituraren Nortasunezko lege bidetik, eta norkerizko asmakizun bidetik artu ziran katolikotasunezko gizon, eta Uritarren eskubide oiek:

Leena, *Jaiotzatik bereztasunezko azturaren arduratik daukaguzan, emon-ezin, utzi-ezin edo ta saldu-ezinezkoak diran, Euskerearen izkuntzarekin, Nortasunean jendukuntzatu genduzan Eskubideak.*

Eta bigarrenak: *Norkeriz asmatuta, ziñezkintzatu edo dojmatu ziran katolikotasunezko aberkidetasunezkoetan biurtzeko, Jaiotzatik ekarten doguzan berezko nortasun guztiak ezereztuz.*

Nungo eskubidekin betetan dabe frantzezak, goian aurkeztuko baldintzak: "Legebidea, Askatasuna, ta Anai edo Senidezko" berba eder orreik, euren Munduko Uritarrakaz berezko nortasunbagean itzi ba ebazan, lurralde orreitan bizi diran Euskaldun, Bretoi ta Alemanak ?.

Latinkumezko Frantzez izenburu barri orreikaz jaioteko, ote dauka aita-amarik?.

Aztu jaku esatea, Uritarrezkoa izanez gain, Katoliotasunezko Aberria daukiela kolonizatu edo batzangotzeko latin-kumezko frantzez itxuran.

Uritarrezkoa⁽¹⁾ izatea badakigu zer dan, erri, berri, edo ta moda-zalekeriaren aldekoa izanez, norkeriaren zentzunezkoa ardatza dalako beste barik.

Frantzezak, 1.776ko urtean leenengo Ameriketako Birjinian egin ebezan eskubide orrein adierazpenak, ta 1.787ko urtean Ameriketako Estatu Batuen aberriko konstituzioak ezarri ebezanak, eurengandik eredu lez artuta ezarri ebazala.

Gauzak olan egiteko baiña, Frantzezak ez eben kontuan artu, bertoko lurraldearen giza-seme-alabak nortasunez ezereztu egiten ebezala.

Eta eginkizun ori izango ote zan ba, European be, bere berezko errigizarteak kontuan ez artzeko, eta beste frantzez-lako nortasunbageko erri bat kolonizatu edo sortzeko ?.

Ez.

European, bezte norkerizko asmakizun batzuk euki genduzan iraultzararteko 1.464ko urtetan, ainbeste Sakratuzko-Guda bidez Katoliko Aberritasunean kolonizatzeke, eta gaur beartuz, Merkantil Kaisar Katolikotasunean batzangotuta daukaguzan menperatzaille Laterri anetan, berezko lege guztien aurka ezartzeko.

Konturatu bear gara, bereztasunez artzen doguzan eskubideak, norkeri bidez beartuta kentzeko, Jaungoikuaren Legetik kanpo, beste onura edo mozkin billa dagozela gauza orreik egin gura dabezanak, eta gure oraingo denboran, ordezkari tzarako leen antzezlarri lez daukagun diruaren billa dabiz, jaungoikotu egin dabena.

Ez dago or Urrezko Txekorra ?.

Ze erlijio edo Jaungoikuaren ulermena eukingo ote dogu, Egille edo Jaungoikuak ipinitako legeen aurka egiten ba doguz, egiten doguzan gauza guztiak ?.

Eskubide orreik, bereztasunaren oiñarrizko kanpotik edo guzurrezkoak izaten ba dira, naita naiez samaraiño lokaztuta egon bear gara guzur orreikaz.

(1) Uritarrezkoa = esnob, esnobismo = 1. mania de darse ínfulas con los de abajo, y alagar o imitar a los de arriba. 2. Admiración afectada por todo lo que está de moda, menospreciando todo aquello que representa el derecho moral de cada ser en el derecho histórico de su devenir humanizado.

Ez erpetik oñarrituz, berezko legeakin jokatzeko ba dogu, egi zaletasunezko bizi baten irauongo dogulako, egiaren zentzuzko bizitz baten aurrera egin, arduradunak izanda.

Europak, maltzurrezko guzur orreik alboratuta, bereztasunezko edo Jaungoikuaren

Lege bidera alderatu bear da, or daukagulako Ulermen ezberdiñaren Egizko Zentzua, danon artean Europa indartsu ta zentzudunezko alkarte bat egiteko, bakotzaren eskubideak begirun aundiz artuta.

Beste guztia, nai erlijioz edo ta bizitza noerkeriaren legean edo zentzuz eroanda, "guzur utsa" da.

Konstituziozko adierazpen barri orreik, andrazkoak be ez ebazan Uritar lez kontuan artzen, 1.789ko urtean Urrillaren 5ean eurak izanda lenengoak joan zirenak, Bersallesen egoan erregearen billa. A ta guzti be, baztatu egin ebazan ezeren begirun barik.

1.793ko urtean eta urte bi beranduago leenengo gizon edo ta uritar gizonen eskubideko adierazpenak egin ebezanetik, Olympe de Gouges politikaren ekintsua izan zan, European leen idatzi ebazanak Emakumearen eskubideak, gizonen eskubide parean ipinita.

Emakumeak, politikazko batzarretan berba ezin ebenean, kaletan erritarrai berba egiteko iztoki edo mintza-lekutik asi ziran berba egiten, eta emakumearen alkarte edo biltokiak irasi ebazan, sortzen ziran legeak eta aldizkariak ekarten ebazan berriak eztabaidatzeko.

1.791-1.792ko urte bitartean, emakumeen alkartearen ezagunen artean, Etta Palm'ek irasi eban *egiaren zaletasunezko emakumeen, Ongintzazko eta Abertzaletasunezko Elkartea*, emakumearen ume beartsuentzako, ekanduzko azkuntza, ezkontz-aus-te edo alargunduaren bezelako bizitza, ta politikazko eskubideak ezkatzen ebazanak.



Argazkiko Olympe de Gouges andra au izan zan. Europa onetan leen idatzi ebazanak Emakumearen berezko eskubideak Eta Uritar lez. Munduko Leen Emakumeen alderdikoa⁽¹⁾ izan zana.

1.793ko urtean Emakume matxinatuen artean, antzerki-idazle edo drama-idazle, eta politikako ekintzaille Olympe de Gouges, Emakume eta Uritar emakumeen eskubideak idatzi ebazan, gizon eta emakumeen arteko eskubideak parekatuta.

Olympe de Gouges emakume onek, aurre egin eutson Robespierri, eta agiri bat idatzi eban *Pronostic de Monsieur Robespierre pour un animale amphibie*, agiri orregaitik salatu egin ebana, nasle edo matxin zale izateagaitik.

(1) Emakumeen alderdikoa = feminista.

Epaitu ondoren, ilteko zigorra emon eutsen, eta guillotinarean tresneriagaz moztu eutsoen lepoa.

1.793eko urtean Iraillaren 30ean frantzez batzordeak, Emakumeen elkarteak debekatu ebazan.

1.794ko urtean gogortu egin ziran, emakumeen aurkako eukezan eritziak, eta debekatu eutsoen poitikazko edozein lekuetan egoten.

1.795eko urtearen Loraillan Ongundeko jaurkintzak, debekatu eutsoen andrari, politikazko batzarretara joatea, eta espetxeko zigorra egindu eutsoen, euren etxeetara joaten ez ba ziran.

1.804ko urtean askenez, Napoleonen Lege-Bildumak agertu ziranean, or amaitu ziran emakumeek bear ebezan gizonen antzeko *askatasun, berdintasun, eta anaitasun edo ta senidetasunezko* eskubideak.

Norengaitik antolatuta ote egongo zan, Frantzian egin zan iraultza au ?.

Nortzuk ote dira, norkeri bidez, bereztasunezko giza-seme-alabak, ta Emakumearen eskubideak, Jaungoikuaren Legetik Kanpo gura ebezanak jaurri Izadi au ?.

1.929ko urtean Batikanoa be Laterritu eben, euren norkeriz Katolikotasunaren Aberri-tasunezko guzur-egi ori Izadi onetan ezarri gurean, eta ez edozein eskutik, MUSSOLINI-faziztak emoneko eskutik artu ebelako, bereztasunaren aurkako baimen ori.

Egia jakiteko zein dan, froga-bide geiago bear ote dogu ?.

1. 31. *XVIIIn Luis erregea.*

1.793ko urtean Urtarrillaren 21ean XVIIn Luis il ebenean, Europa ta Frantziako erregetzaren aldekoentzat, bere seme Karlos Luis izan zan Frantziko erregea XVIIIn Luisen izenagaz.

Ilketak baiña, ez ziran geratu XVIIn Luis'egaz.

Eta 1.793ko urtean Urrillaren 16an bere emazte Maria Antonietari moztu eutsoen lepoa.

1.974ko urtean Loraillaren 10ean XVIIn Luisen arreba Maria Isabeleri.

Eta 1.795eko urtean Bagillaren 8an inok ez daki zergaitik, edo ta baleiteke bularretako gaixotasunagaitik il zala XVIIIn Luis au.

1. 32. *36n. Jauna, Bizkaiko jauntzan.*

1.789n urtean Otsaillaren 18an IVn. Karlos Bizkaiko Jaun lez izendatu ebenai, Gernikako Batzarrak oartu eutsoen, Foru-Legeak ziñez izenpetu egin bear ebazala.

1.789n urtean Urrillaren 7an baieztu ebazan IVn. Karlosek Bizkaitar Foru Lege guztiak.

Eta ziñez izenpetutako agiria, Foruko agiri-artxiboan gordetako agindua emon da, agiri batzuk irarri jakon, arduradunaren bulegoetatik bananduta, zalantzak sortzen ba ziran, bear zanari bereala aurkezteko.

Bizkaian, beste akatz gogor bat sortu zan urte oneik aurrera doiazala, Señorioaren Batzar ta Bilboko Iribilduaren artu emonak ez ziralako onak izan, Bilboko Iribilduak bere itsas kaiarekin indar aundia artzen egoala ta.

1.801eko urtearen Uztaillan Señoriokoak, Gernikan egingo zan Orokor Batzarretarako talde bat aukeratu eban, eurak, Olabeagarako asmatuta euki eben, askatasunezko itsas-kai barri bat egitea, babestu egien. Iribildutik kanpo, Señorioaren nortasuna indartzeko euren ardurapean.

Azkenean, Zamakolatar Simon Bernardok artu eban asmo orren babesa, eta baimena lortu be, itsas-kai orren asmakizuna aurrera eroatea, agiriak Gaztelako gortera bialduta baimendu egian.

Eta 1.801eko urtearen Abenduko 31n eldu zan Bizkaiko Jaunak baimenduta, Zamakolak Gaztelako gortera bialdutako eskutzitz-agiri ori.

Bakoitzak bere elburuak lortu naian, bizkaitar alderdi biak, Godoy limurtzen asi ziran. Bilbaoko Iribilduaren, Godoy lenengo alkate izendatu gurean, eta Señoriokoak itsas-portu barri ori, Godoy andigarritzeko, Bakearen Printze emon eutsoen izenagaz “Puerto de la Paz” izendatu eban⁽¹⁾.

1.801eko urtean asita, geiago gurako eban espainitarren lenengo ministru Godoy'-tar Manuelek, bien artean kokatuta, bere Gaztelako erregetzaren elburuak lortzea.

Eta ortik aurera, bien arteko arremanak gorrotatzaille biurtzen asita, 1.802ko urtean Zamakola, Iribilduko gizon maltzurren bidetik zalatu eben, eta Gaztelako erregetzaren ministrua izan zan Urkijotar Mariano Luisek Godoyen orde, Udalaren jabetza artuta.

1.803ko urtean Bilbaoko Iribilduak, gorakeri geiekin Bilboko lenengo alkate izendatu eben Godoy, Urkijotar Mariano Luisek Godoyen orde, Udalaren jabetza artuta.

Eta Bilboko Kotsulek⁽²⁾ etenbako alegiñ bidetik, itsaskai barriaren jabetza artu gurean ibili ziran.

1.804ko urtean Uztaillaren 1ean Zamakolak, errege edo Bizkaiko Jaunaren aldetik, Abandon, Olabeagako kai barriaren jabetza lortu eban Señoriorantzako.

Eta Legeen baldintza artean ekarten eban agindua: *Bilboko Iribildua, bere portu ta kontsulgoagaz aurrera egiala, Señorioko jabetasunaren askatasunari, iñungo oxtopo ipini barik, Bizkaitar Foru Legeak beti lez aurrera eginda, Bizkai Batzarrak indartu zitezzen.*

1.804ko Uztaillaren 25eko urterarte atzeratu ziran Gernikako Batzarrak, erabagi orreik onartzeko ta Zamakola goraltzeko.

Zamakolak baiña, IVn. Karlosen jauntzakin lar siniskor, uts galanta egin eban, eurei esan da: espainitarrak euken asmoa, gure mutillak, euren gudari taldetan lerrokatzeko Señorioaren aldetik, ez zala egongo geiegizko arazorik.

Batzarkideak, laster konturatu ziran Foruen aurkako erabagia zala asmo ori, baiña Zamakolak euki eben eragipenagaz, onartu zan Godoy'k gure ebana.

1.804ko urtean Dagonillaren 12ko eguna aukeratu zan Señorio aldetik, bakezko kai edo portuaren jabetza artzeko.

Bizkaitarren asarrea nun-nai asi zan agertzen, Bizkaiaren demokrazizko askatasunak, balio geiago eukelako, portuko onura orreik ekarten ebana baiño, esaten asita.

1.804ko urtean Dagonillaren 17an, Begoñako erritarrak izan ziran lenengoak euren asarrea erakutsi egin ebanak, Bilbaoko Urira indarkerian beratuta.

(1) Bakearen kaia izena ipini eutsoen. (2) Kontsulgoa = consulado.

Begoñako matxinatuak, Señorioak gordeta euken izkullu tokira joanda, eurekaz jabetu ziran, eta Abandoko bidea artu ondoren, Zamakola oartuta, berak Diman euken etxe bizitzara alde egin eban.

Ez zan Zamakola bakarrik alde egin ebena, arratsaldean, Aranguren ta Sobradotar Franziskok Señorio ta Jaunen aolkulariak be, alde egin ebelako.

Begoñakoak izan ziran bakarrik ordurarte matxinatu zirenak, baiña ego larri ori zabaltzen asita, Barakaldo, Deusto, Dima, Otxandio, Yurre, Artega, Sestao ta Portuga-letera zabaldu zan.

Matxinatuak, Abandon ez ebalako aurkitu Zamakola, Dimara joan ziran, eta Zamakola oartuta, Etxarri-Aranazera aldatu zan Nafarroako errege-ordearen babesera.

12 kaiza paper-agiriekaz aurkitu ebazan bere etxean, eta auk ertzapenduta⁽¹⁾ Bilbora eroan eben, ia arriskugarritzko agiriak aurkitzen ebazan. Baiña ez eben aurkitu ezer.

Matxinada lasaitzen joanda, epaiketaren ordua eldu zan, eta 384 Bizkaitar zigortu ebazan, zigor gogorrenak, Abando ta Begoñakoak artuta.

Larri aldi orreik amaituta, 1.805eko urtean Bizkaitar Batzarrak, Madrillera bialdu eben ostera Zamakola, eta Godoy´egaz egonda, Bizkai´tar Foru-Legeak bere nortasunean egokitu zitezen eskatu autson. Berak baiña, ezin eben lortu ezer, arik eta VIIIn. Fernandok, Foruko Lege guztiak baieztu arte.

1.806ko urtean Urtarrillaren 27an Zamakola Madrillera joanda, lenago Pereira alkatea iraindu ebalako, atxilotu eban.

Eta bere buru edo zorotasunezko gaixotasuna sakontasunean sartuta, naita Parise-ra eroan arren, ez eban euki sendaketarik. Areik eta 1.809ko urtean Epaillaren 30ean, 50 urtegez il zan arte.

1.808ko urtean Epaillaren 19an Napoleonek IVn Karlos espainitarren erregea beartu eban, erregetza bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan itzi egian.

1. 33. *Baztan´eko ibarra, eta Ongundeko frantzez Batzarraren aurka euki eben guda.*

Baztan´eko Ibarra, Añamendikatearen be aldeko Nafarroa eta Frantziko Lapurdiren mugalde artean, dauan ibar ederrean kokatuta dago, Bidasoa ibaia bere Iparreko ibilbidetik ureztatu egiten dauana, eta ortik Baztan Ibar eder orren izena.

Frantzia ta espainitar menperatzail katoliko auk zatituta daukien euskalerriko lurralde onetan, bealdeko nafarroagaz muga egiten dagozan erriak Frantzi aldetik: Aldude, Banka, Baigorri, Bidarra, Itxaso, ta Ezpeleta dira.

Be-Nafarroako udalerria da, bere 374ko km2´ekaz eta 8.545eko biztanle Baztandarrakin, Iruñako Merindadeari lotuta.

Berak daukazan erriak Udalergi baten egokituta: Almandoz, Amaier, Aniz, Arizkun, Arraioz, Azpilikueta, Berroeta, Elbete, Elizondo (Erri-Burua dana), Erratzu, Gartzain, Irureta, Lekaroz, oronoz-Mugairi, eta Ziga dira.

Eta Baztan ibar ta Amaier onetan sortuko ziran zorigaiztuko gauzak frantzez Ongundeko borroka bidetik, ez ziran gertatuko parekorik, Iru urteko Liberalen gudan, iru Karlitada eta Napoleonek gin ebazan sarraldiko erasoetatik be.

(1) Ertzapenduta = precintadas las cajas.

Baztaneko Ibarrek euki ebazan bistanle guztietatik, laurenak ondatu edo aienatu ziran, 2.000 giza semetik gora ilda.

Baztandarrak ez eben garaipen andirik euki, sasi-guda bidez lortu ebezan garaipenetik kanpo, bai alderantziz, euren etxeak itzita, erri-alda gogorrek, bideetan iges doie-sala lapurren erasoak, apaiz-lekaide-lekaimearen aurkako eraso gogorrek, eta euren errietara itzuli ziranean etsaien aldeko lez artuta, euren artean sortu zan sukar-ustel⁽¹⁾ edo sukar-beltza⁽²⁾ baiño besterik euki.

1.792ko urtean eta illabete batzuk geroago, Ongundeko Batzarraren guda⁽³⁾ asi orduko, Baztaneko Batzar agintariak, antolatuta eukingo ebazan gudarako, euren gudari taldeak.

Baztan Ibarrekoak antolatuta euki eban gudalozte onek, zortzi taldeko batalloi bat euki eban, talde bakotza 95gudari, iru gudalburu, eta atabal bategaz osotzen zana, Ongundeko Batzarrak erasorako euki eban gudaloztearen, aurka egiteko.

Etxebarria ta Latadi´tar Juan Bautista Baztaneko alkatea izan zan guda talde orren agintari edo ta gudal kapitaiña.

Eta euskal Baigorriko Nafartar frantzez, Ongundeko Batzarraren aldetik, Arispe´tar Jean Isidorek, ospe andia euki ebanak, Euskal-Eiztariaren gudal taldearen agintari lez.

1.793ko urtean Urtarrillaren 21ean il eben Frantzia ta Nafarroako errege XVIⁿ Luis, Ongundeko Batzarrak aginduta.

Eta Europako erregetzak euki eben aurk-ekintzakin⁽⁴⁾ oartuz, frantzez Ongundeko Batzar orrek, bere inguruko errege guztiei, guda aurkeztuko eutsoen.

1.793ko urtean Epaillaren 3an, aurkeztuko eutsoen frantzezak espainitarrai, gudarako agiri ori, eta espainolak, Epailaren 23an erantzuko eutsen frantzez Ongundeko Batzarrekoai.

1.793ko Udabarritik 1.795eko Udaraiño iraungo eban borroka ori.

1.793ko urtean espainitarren garaipenekoak izango ziran, Auñamendiren Ekialde ta Mendebaleko aldeetan borrokatutakoak.

1.794ko urte erdian guztiz aldatu zana.

1.794ko urte erdi inguruan, Ongundeko Batzar gudalozteak, sakon erasotu eben Auñamendiko Medebala, eta Baztanetik asita Bidasoako ibar guztia: Bizkaia Nerbioi ibarrararte, Gipuzkoa, eta Gazteizko lurraldeak menperatuta, Euskalerra osotik, Iruña geratu zan bakarrik, menperatu barik.

1.794ko urtea Uztaillaren 24ko eguna izan zan gogorrena, frantzez gudariak Baigorritarrakin, illabete ariñago menderatuz euki ebezan, Maia edo Otsondo, Izpegi, ta Berderizgo mendietatik, goizeko leen orduetan erasotu ebazanean.

Otsondoko bideak edo Amaiurreko gaztelua ta Izpegi, Baztaneko atea dira, baiña batez be orko unetan, Berderizgo mendia izan zan garrantzienetarikoa, bere bidetik ordu bi baiño ariñago, Elizondoko ibar erdira sartzen ziralako, espainitarren gudalozte gienak egin bear ebezan atzeraldiak ebagitzeko.

Iruñan be, Euskaldun gudari talde bat osotu zan, euskal guda taldearen izenagaz ezagutuko zan, erregetzaren gogozko 3º guda taldea izanda, Nafarroako iru laterriak, erregetzaren Abizena aldarrikatu ebanean, Dagonillaren 8an, Goyak, Basileako Bakea Uztaillaren 22an sinatu ostean.

(1) Sukar-ustel = fiebre tifoidea. (2) Sukar-beltza = tifus. (3) Ongundeko Batzarraren guda = guerra de la convención (asamblea) francesa. (4) Aurk-ekintza = reacción.

Barregaria zan, inork ez dabelako aipatuten guda talde ori, arik eta gudari orreik, eleizaren ildako liburuetan agertu arte.

Eta edesti au da euskal baztandar Uriarte ta Ballarenatar Jose Mari arduradunak esaten dozkuna, Baztaneko Udaletxearen agiri-zaiñeko agiripillotik aurkitu dauana, eta berton dirala euren edestia idatziz eben Baztandar batzuk, gure dauenak, irakurri egiezan.

1. 34. *Napoleon eta frantzezaren jaurkintzan, artezpideko agintaritzea.*

1.795eko urtetik 1.799ko urteraino, frantzezaren zuzendaritzea edo artezpideko jaurkintza⁽¹⁾.

1.795eko urtea gogorra ei jakien frantzesari, espainitarak, Rikardos'tar Antonio il zan guda nagusiaren orde, Urrutia eta de las Kasas'tar Jose aurkitu ebelako, onek leenengo eraso aldian frantzezak, Nafarroaren Erronkaleko ibarretik atarata.

Kataluñako agintaritzea emon eutsoen Urrutia'ri, eta gudariakaz euki ebazan zorrak ordaindu ta gudalozteak egokituz, Epailleko illean Baskaran, eta Bagillan Ponto'-setik frantzezak, ondo astinduta bialdu ebazan.

1.795eko urtean Dagonillaren 17an, frantzezaren Itun edo Ongundeko jaurkintzak⁽²⁾, konstituzio barri baten jaurkintza onartu eban, Iraillaren 26an erri-autarkiagaz baieztu zana.

IIIIn urteko konstituzioa deitu jakon, konstituzio barri orrek, bost batzarkide euki ebazan zuzenbide edo artezpideko batzordeari emongo eutson frantzez jaurkintza, bere eraikera XVIIn Luisetik, Napoleonen kaisertzarañoko igaro aldia ezarriko ebena.

Jaurkintza onen Lege-Biltzarra, agindu biko zeregiñagaz osotuta egoan, bata berreun eta berrogeita amarreko Gizon zarren batzarragaz, eta bestea, bosteuneko aolkularirenagaz.

Konstituzio onek danoen autarkia kenduta, batzuen autarkiagaitik aldatu zan⁽³⁾.

1. 35. *Napoleonen⁽⁴⁾ eskuetan, frantzezaren jaurpide osoa.*

Aurkaritzea aundia artu eban frantzez artezpideko jaurkintza orrek, eta ainbat matxintasun sortu ziran alde guztietatik, Frantziko gudalozteak arduratu arte. Eta Napoleon frantzezaren guda nagusi ori Ejiptoko ekitaldeetatik etorrita egoan lez.

1.799ko urtean Azaroaren 9n egunean ta Brumarioko 18an⁽⁵⁾, artezpideko jaurkintza orren aurka matxinatu zan, ta garaipenduta urten eban lez, kontsulgoen jaurkintza⁽⁶⁾ ezarri eban.

(1) Frantzian, Artezpidearen jaurkintza = gobierno del Directorio en Francia. (2) Itun edo Ongundeko, jaurkintza = pacto o convenio, el gobierno de la Convención. (3) Batzuen autarkia = sufragio restringido (4) Napoleón = 1.769ko urtean Dagonillaren 15ean Ajazzio Korzika'ko ugartearen jaio zan zortzi nebarreberen artean, Bonaparte'tar Karlos auzi-gizon edo lege-gizona ta Ramolino'tar Letiziaren bidetik. Auen bigarren semea izanda. Bere sendia Korzika'ko aundikitasun artekoa izanda, lenengoetan Frantziaren aurka borrokatu ziran, oneik 1.768ko urtean XVn Luisen Genobako errepublikari Korzegako ugartearen erosten dautsonean. Andik aurrera, Paoli izanda euren menperakitz-taldearen burua. Napoleonen aita, Korsikako ordezkari lez joan zan Frantzira, eta bere seme Napoleontzat ikas-saria (Pensión de estudios) eskuratuta, Brienenko gudari eskolan sartu eban, eta ikasketak amaitzeko, Parisen, Marte'ko Zelai (Campo de Marte) gudari-eskolara bialdu eban. Bere ikasketan ez zan izan argitsua, baiña bere edestiko maisuak au esan eban: *"Biziko gora-berak laguntzen badautsoe urriñ joango da"*. Jose, bere anaiak, Kortzega'ko jaurkintzan, orokorreko-aolkularitzan ordezkari urten eban eta bera guda-teniente koronela izendatu eban. Baiña Josek Kortzikako Paoli, aberriko gizon ospetsuagaitik esan ebazan gauzakaitik, 1.793ko urtetik asi-ta, ies ibili bear izan eben anai biak, Paolistaren mendekuari bildurrez. Andik aurrera, Korzegako askatasunaren kanpotik ibili ziran. Frantzez abertzale bihurtuta, Dugommier'en guda-taldeko kañoidun-arloa bere aginduan artuta eta Tolon menperatuta, 1.793'an Abendua'ren 17 an guda-nagusi egin eban. (5) Brumarioko 18an = segundo mes del calendario Republicano Francés. (6) Kontsulgoen jaurkintza = el gobierno de los cónsules.



Bonaparte' tar Napoleon, Frantziko jaurkintzaren leen Kontsula.

36. 1.799ko urtetik, 1.804ko urteraino Kontsulgoen jaurkintza.

1.795eko Urrillan erregetzaren aldekoak matxinatu egin ziranean, Barasek, deitu egiten dautso Napoleoneri, aurka egin egiotzien, eta lortu eben garaipenagaitik, Frantziaren barruko gudal nagusi izendatu eben.

1.796ko urtean Epaillaren 9an Parisen, matxinadaren gela aundietan esku luze-koa izan zan Beauarnaiseko bizkondea Alesandre, Frantziko gudal nagusia izan zanak, Tastxer eta de la Pagerie' tar Josefinagaz ezkonduko zan, gero Napoleonegaz ezkondu- ta, Frantziko Kaisar Andre agintari biurtuko zana.

1.797ko urtean Italiaren eta Austriaren aurkako borrokan, Napoleon, Frantziaren gudalozteko gudal-nagusi egiten dabe, eta Austriatarrak menperatu egiten dabeza- nean, Kanpoaloridoko elkargoa sinatzea galazo eutsoen Austriatarrak.

1.798ko urtearen udan, Ejiptora joan zan, ortik Inglaterrari bear ebazan bideak zarratzen asita. Azken baten Indiatik botateko.

1.798ko urtean Uztaillaren 21ean Malta ta Alejandria artu ondoren, txunxur edo Piramideseko borrokan, mamelukoak menperatu ebazan.

1.798ko urtean Dagonillaen 1ean aipatu bear da, Nelsonek, Napoleonen gudaontzi taldea ezereztu ebala. Baita esan bear, Napoleones, 167 jakintsu eroan ebazala Ejipto- ra, euren oiturak goitik-bera ikertu, ta balio andiko gauzak Frantzira eroateko.

Ejiptoko ekitaldiak, 1.798ko urtearen Uztaillatik 1.799ko Dagonillartarte iraun eben.

1.799ko urtean Azaroaren 9an Frantzian, nausitzargoa⁽¹⁾ ezartzen dabe, buruan iru nagusi dirala: Sieyes, Dukos eta Napoleon. Gero Napoleon, Kontsul ordezeko izenda- tzen dabe, nausitzargoaren buru izanda.

Napoleonek, jaurkintzaren nagusitasuna artuta, jaurkintzaren lanak zortzi taldetan banandu ebazan.

Lan orretarako, gizon jakintsuenak aukeratu ebazan, euren politikako aldegogoak kontuan euki bage.

(1) Nausitzargoa = dictadura.

Komunak edo Udaletxeak ziran Laterrien oiñarrizko erpeak, eta lan aundia izan zalako eurak bideratzea, udaletxearen arrazoiak bastartuz, lenauko jaurkintzaren Feudal Arauakaz aurrera egin eban,.

Orretarako, giza-mailla jerarki-arauz antolatu eban: Erri-Buru zaintzatik asita⁽¹⁾, Buru-ordego⁽²⁾, eta diru-zaiñak⁽³⁾.

Danak barneko ministruaren agindupean, eta goitik beerako agindu gogor baten sortuta bere jaurkintza osoa.

Izendapen oneik, ez ziran demokratikoak izan, baiña bai bere asmakizuna beteteko oso eraginkorrak. Gero, Frantziako jaurkintz guztiak erabiliko ebena, ia gizaldi baten bai beintzat.

1.799ko urtean Abenduaren 25ean Pierre Daunou'k, Brumarioko VIIIⁱⁿ urtean irasi eban konstituziozko jaurkintza ori, lege aldeko agindu zale jaurkintza gogor baten ezarrita, eta jaurkintza orren agintaritzazko almen guztiak, Napoleonen eskuetan batuko ziran, frantzez jaurkintza ori, errege zaleen eskuetara ez edin.

Eta irasi ziran konstituzioaren aurkako jaurkintz-lege barri oneik, ez eban aldarrikatzen frantzezaren *Askatasun, Legetasun, Bardintasun eta Senidetasunezko* eskubide orreik.

Jaurkintza orren eginkaritasuna, iru kontsulen artean banatzen zan, eta Konstituziozko jaurkintza orren aginduz, leenengo kontsul Bonapartetar Napoleonen eskuetan itzi ebazan aginduzko almen guztiak, beste kontsul biak, Itun-batzarre⁽⁴⁾ edo galderaren ardureakaz geratuta.

1.799ko urtean Abenduaren 12rarte iraungo eben kontsulgo ardura orrekaz Bonapartetar Napoleon, Sieyestar Enmanuel Joseph⁽⁵⁾ eta Dukos'ek⁽⁶⁾

1.799ko urtean Napoleon kontsul egin ostetik, euki ebazan arremanen arrazoiakaitik, jaurkintza, gudu jaurkintz aldi baten biurtu eban, eta eleizagaz txarto egon ziralako frantzezak, VIⁿ Pio Aita Santua Eleizaren agintzatik kenduta, aldikada baten utzik egon zan San Pedroren ezar lekua.

1.800eko urtean Epaillaren 17an Frantzia ta espainitarren alderdikide zan Bernabe Txiamonti Kardinala, Imolako gotzaiña egin eben Aita Santu, VIIⁿ Pio izenagaz.

Arezkeroztik, katolikotasuna indartzeko alegiñetan asi ziran⁽⁷⁾.

Eta ori izan zan berentzat Kristau erlijioa ta katolikotasunezko alderdia, Kaisar-tzangoko edesti guztian jokatu eban antzera.

1. 37. *Napoleon, orokorrezko kontsula.*

Italiatik etorri zanean eta apaiz gizonak eliz batzarrean batuta, auxe esan eutsen: Gaur, Frantziaren agintaritzaz neure eskuetan dago eta gertu nago bear diran aukera ongarri guztiak ipinteko, katoliko erlijio au gogortu ta jabetu daiten.

(1) Erri-Buru zainaza = prefectura. (2) Buru ordego = subprefectura. (3) Diru zaiñak = syndicos. (4) Itun Batzarre edo Konsulgoaren jaurkintza = Napoleón instauró el gobierno de los cónsules como junta consultiva. (5) Sieyes'ar Enmanuel Joseph kontsula = 1.748ko urtean Frejus'en jaioa eta 1.836ko urtean Parisen ilda, urte bitarte onetan bizi zana. 1.787ko urtean, Txartres'eko ordezkari nagusia izan zan apaiza. 1.789ko urtean eta Frantziko Iraultzaren baiño egun batzuk ariñago: Qu'est-ce que le Tires État liburua argitaratu ebena, eta zabalkunde aundia euki ebalako Orokoresko Laterrien diputadua izendatu ebena. Laterrizko Batzarren gogotari edo balizkai (teorizante) aundiena izan zan. Prusiana bialdu eben ordezkaria be izan zan. Napoleoneri lagundu eutsan, eta onek Kontsul izendatu eban eta gero senatore. Frantzezaren lengoratzeko berregintzaren jaurkintza aldetik eragozle edo gal-erazle lez (proscriptor) artu ta atzerriaratu, 1.830eko urtean itzuli zan ostera Frantzira. (6) Dukos = Ducos. (7) Iñok ez dauena sinisten, bere aldera jokatzen ebalako.

Eta jaurkintzan egin ziran aldaketakaz, erlijio katolikuari berpizten asko lagundu eutson lez, VIIIn Pio Aita Santua, bere egikeraren laguntzaille aundiena biurtu zan, arik eta geroago, Napoleonen aurkari aundiena biurtu arte. Ekiñaldi auek baiña, eleiz eta Frantziko iraultzazkoen artean, bakeak egiteko balio eban.

Lenengoetan, Europako errege geienak bere alde egon ziran, erritarren bizitzak, euren menperatzaillearen arauetan iraun egian.

Balekite be, bildurragaitik izatea.

Konturatu ziranean baiña, euren menpekotasuna zala (Hitler`egaz bardiñ), Euro-pako errege guztiak, Napoleonen aurka kokatu ziran.

1.800eko urtean Bagillako 14an Napoleonek, Melas mariskalaren agindupean egon ziran Austria ta Ingalaterraren bigarrenko alkarteari aurka egiten dautso, Austriarrakaz Italiaren lurraldeko Marengo erriko zelaietan garaipena lortu eta Lunebillen bakeak sinatzea beartu eutsoen Austriatarrai.

1.800eko urtearen Abenduan Napoleonek, Ingalaterrari Hohenlinden⁽¹⁾ borrokea irabazi eutson, eta Amiens`en Lunebilleko bakeak sinatuazota, Ingalaterrak, atzera emon bear eutson Frantziari, len artu eutsoezan koloniak.

1.800eko urtean Napoleonek, Frantziko diruaren kutxa sortzen dau, ta beragaz, diruaren banaketazko jaurkintzan, erdirakuntzaren agintaritzaz.

Emen artzen dau menperatzailletasunezko bidea, jaurkintzaren arlo guztiak erdi-ratuta, eta berezkotasunaren aurkari amorratua biurtuz.

1.801eko urtean Uztailaren 16an sinatu zan Eleiz ituna, Napoleonek baldintza bi auek ipinita:

a) Frantziko gotzai guztien ardurak berari emonda, berrizkuntzako aurrerapen bat asteko.

b) Eleizaren ondasunak saltzea, jaurkintzak abadeai, lan-zari bat ordezt emonda.

Ortik aurrera, Napoleon berak izendatzen ebazan gotzaiñak, iraultzaren aurretik egon ziran arauakaz, Aita Santuak bedeinkatuta.

Kaisar eta Aita Santuaren arteko arremanak, oso bekaiztiak ziran, kaiserrak bildur aundia eukiten eutsolako Aita Santuaren aalmenari.

Napoleonek, guda indar eta arau bidez debekatu eutson Batikanoko Laterrien jabetasuna Aita Santuari, arik eta 1.929ko urtean Otsaillaren 11n Mussolinik, XIIn Pio Aita Santuari, Batikanoko Laterriaren jabetasuna emon arte.

1.802ko urtean Napoleonek beartuz, senat-lege edo senat-erabakizko⁽²⁾ jaurkintzaren baimena ezarri eban, eta orko bidetik, Napoleoneri bere bizi denborarako emoten eutson agintaritzatik, bera bakarrik euki eban almen guztia, urrengo agintariak nortzuk izango ziran aukeratzeko.

1.802ko urtean Epaillaren 25an Napoleonek Ingalaterragaz Amienseko itun edo egijunea sinatzen dau. Eta Loraillaren 8an omenezko lejioa⁽³⁾ irasiko dau.

1.802ko urtean Dagonillaren 3an Napoleon`i, bizi-arteko kontsula egin ondoren, eta jaurkintzarako beren urrengoa aukeratzeko eskubide osoa emon eutsoelako, errege-

(1) Hohenlinden = Alemaniaren Babierako land lurraldetik 30kilometrura, eta Munitx`eko Ekialdean dagon errian borrokatu ziran Austria ta Napoleonen gudalozteak, eta Austriarrak menperatuta geratuz 1.801eko urtean Lunebilleko bakeak sinatu bear ebazan. (2) Senatt-Lege edo Senat-erabakizko = Senado-consulto. Del latin Senatusconsultum, Decreto o determinación del antiguo senado romano. Se aplicó a los decretos senatoriales del imperio francés. (3) Omenezko lejioa = legión de honor.

tzaren alosokerizko jaurkintza berrezkuratu eban oster, gudu jaurkintz bat izan arren berak bideratzen ebana.

1.803ko urtean Jorraillaren 7an, 12ko Jerminalaren legeakaz, diru banaketaren arauak ezartzen dauz.

1.803ko urtean Loraillaren 13an Frantzia eta Ingalaterraren arteko guda asmatzen asten da, Ingalaterrak Maltatik ez dauelako urten gura, ta Frantziak, Olanda, Suezia ta Piamontetik ez dauelako gura alde egin.

1.803ko urtearen Loraillaren 16an Ingalaterrak, Frantziko diru kutzak gerazi edo baitu egiten dauz, Napoleon Ingalaterrari, erasoaldi edo sarraldia egiteko prest agertuta.

Napoleonen goral dian, Europako errege geienak lenengoetan, bere alde egon ziran.

Eleiztar katolikuak, Europa katolikotasunean batzangotzeko bideratzen, ainbat gizaldi kosta jakiezenakaz, Europako erregetzaren maldaberan pozik eta itxaropen aundiakin agertu ziran, Frantziako iraultzaren bidetik, ta iraultza ostean lortuko eben kaisar edo beste era bateko menperatzail katoliko bitartez, Europa guztian berezko errigizarteak alboratu edo ezereztuteagaz, gaur daukaguzan kolonitzaille Laterri katolikuak ezartzeko, Europa eta Mundua Erromatar-Merkantil-katolikotasunezko arau bardiñetan iraun egian.

Orduko erregeetan balekite, euki ebazan menpetasunezko bildurragaz, ez zirala ausartzen Napoleonen aurka egiten, baiña Napoleonen maldaberan, danak alkartuko dira beren aurka ikusiko dan lez.

1.804ko urtean Epaillaren 9an, Kadoudal⁽¹⁾ atxilotu egiten dabe, Napoleon iltze-ko asmotan, zelatazko antolamenduetan ibili zalako. Epaillaren 20an Bonzennesen, Enghieneko Dukea il eben.

1.804ko urtean Epaillaren 21ean, gizarteentzako lege-sorta jardueran asten dau Napoleonek.

Eta euren buruz esaten eban Napoleonek: *Nire benetako ospea, ez da agertuko berrogei guda nagusien garaipena lortzearren, ezerk ez dauana gain-marratuko, Gizarteentzako egin dodaz nire Lege-Sortak diralako, betiko bizitza eukingo dabenak.*

1. 38. *Napoleon, frantzez kaisertzaren kaisar jaun.*

1.804ko urtean Loraillaren 18an Napoleoneri Senatore Batzarrak, kaizartzaren burestuna edo koroia eskeiñi eutson.

1.804ko urtean Abenduaren 1ean Frantziako ordezeko kardinalak, Eleizatik ezkonduko ebazan Napoleon eta Josefina, aurrean iñor egon barik, ararte erriko epaitegitik bakarrik eskonduta egon ziralako.

1.804ko urtean Abenduaren 2an VIIIn Pio Aita Santuak, Napoleon eta Josefina kaizar Sakratu bedekatu ebazan.

Napoleonek, bere burua ta bere emazte Josefinaarena koroatu ebazan, Aita Santuaren eskuetatik koroia kenduta.

Napoleonek keiñada orregaz, Mundu onetako guztien ulertzera emon gure izan eban, Izadi onetan bere gaiñetik ez zala egon iñor, gogo edo arimeen izaerak kontuan artu barik.

(1) Kadoudal 'tar Jeorjes = Frantzez erregearen aldeko gizona. 1.771ko urtean Karlenon jaio zana eta 1.804ko urtean Pariseko gillotinagaz il ebena. Bendeeko iraultza bideratu ebena eta I Napoleonen aurkakoa izanda, onek iltzera zigortu eban.



Bonaparte' tar Napoleón eta Josefina'ren Kaisar koroatzea.

1.805eko urtean Jorraillaren 11n, Ingalaterra, Austria eta Rusiak, irugarren alkartasuna osotzen dabe, Napoleonen aurka.

1.805eko urtean Loraillaren 26an Napoleon Milanen, Lonbardiako erregea, burdiñezko koroiaz, Italiako errege izendatzen dau.

Eta Europako Laterriak alan erabagitu ebelako, onen ostetik asten da Napoleonen ospea maldaberan, eta VIIIn Pio Aita Santuarena gorantza eginda, oraindiño beren gudalozteak Europan, ainbat garaipen lortu arren.

1.805eko urtean Urrilaren 21an, Nelson Ingeles Itsas-Gudal nagusiak, Trafalgarreko itxas borroka aundian, Frantzia ta espainitarren itxas ontzidiari irabazi eutsen. Nelson bera be, borroka orreitan ilda.

Borroka orren garaipenagaz Ingelesak, itsasoaren ugazabak egin ziran, eta Napoleonek, Ingalaterrari janariekin lagundu ez eutsoen, Europako beste erregetzari debekatu eutsoen laguntza ori emotea, berak Boulognen antolazen egon zan itsas gudalozte aundiagaz Ingeles ugarteak inguratzeko, eta gozeagaz menderatzeko edo indarrez artzeko. Bitarte orreitan Ingelesak Boulognera joanda, ezereztu eutsoen antolatzen egon zan itsas gudalozte andi ori.

1.805eko urtean Abenduaren 2an Napoleonek, Txekoeslobakiaren Austerlitz'eko erri inguruan, Rusia ta Austriaren aurka egin eban iru kaizarren odol zalezko borroka esaten jakonai, ezereztu ebazan Austria ta Errusiaren gudalozteak.

1.805eko urtean Abenduaren 26an, Austerlitzeko guda ostean eta Bratislaban baztartzuta, Napoleonek eta Austriako I Frantziskok alkargo bat sinatu eben, Napoleonen alde, Italiaren Benetoko erreinua geratuz.

Alderantziz Napoleonek, Alemaniako Babiera ta Wütenberg'eko erreinua ontzat lez artu bear izanda.



***Napoleon, bere kaisertzaren aulkian etarrita Kaisar Jaun lez.
1.806ko urtean Jean Auguste Dominike'k margoztukoa.***

Ekiñaldi onegaz baiña Napoleonek Austriari, itsasorako bide guztiak moztu eutsazan.

1.806ko urtearen Urtarrillan Willian⁽¹⁾ tar Pitt⁽¹⁾, 1.793 ta 1.798urtean Napoleonen aurka elkartasun bi lortu ebazan politikari aundia, eta Irlandaren benetako abertzalea zana, il zan.

Urtarrilla onetan Napoleonek, Luis eta Jose bere anaiak izendatzen dauz Olanda ta Napoleseko errege.

1.806ko urtearen Uztaillan Napoleonek, Europako alkarte andiena lortzen dau Alemaniaren Rin⁽¹⁾ aldeko 16 Laterriak alkartuz, Frantziagaz bateratu egin ebazanak gudarako elkartean, bera urgazle edo jagole nagusi izendatuz.

1.806ko urtearen Dagonillan, Germaniako Erromatar Kaizar Sakratua ezereztu egiten da. IIn Frantzisko Germaniako Kaisar-jauntzatik, I Frantzisko Austriaren Kaisertzara aldatuz.

1.806-1.807ko urte bitartean Napoleonek, Austria-Ungria, Prusia ta Rusiak osotutako laugarren alkarte ezereztu egiten dau.

1.806ko urtearen Urrillako 14an Napoleonek, Jena ta Auerstedtz⁽¹⁾eko borrokan, Prusia azpiratuta, eta Errusiako gudalozteai Friedland⁽¹⁾en irabazita, Zemendi edo Azaroaren 21ean Polonian sartzen da, eta Europaren esi-aldia edo Ingalaterra inguratzea agintzen dau.

Bertan Walewska⁽¹⁾ tar Maria, Poloniako konde Andrea ezagutzen dau, eta beragaz seme bat euki eban.

Eta 1.807ko urtean Otsaillaren 8an leen borrokan, Errusiari Kaliningradoko lurraldearen Eylau errian⁽²⁾ irabazita, Bagillaren 14an Friendlanden, Tilsiteko bakea sinatuazo eutson Errusiako I Alejandrori.

Bagillaren 24tik Uztaillaren 9ra Napoleonek Tilsit inguruan, I Alejandro Errusiako kaiserragaz alkartzen da, onek onartu bear izanda Frantziak euki ebazan guda-garaipenak, eta Napoleonek bere aldetik, Errusia⁽¹⁾ren mugak zabaltzea onartu ostean, Finlandia bere barruan sartu eban.

Napoleonek, bere anai Jeronimo Bonaparte egiten dau Westfaliako errege, Barso-biako dukerria Sajoniako erregeari emonda, biak Frantziko kaisertzara aldatu ziranak.

1.807ko urtearen Azaro edo Azillan Portugalek, Ingalaterra inguratzeke Napoleonek emon eban aginduaren aurka agertzen danean, Napoleonek, Junot gudal nagusia bialtzen dau Lisboara, eta Portugaleko errege VIIn Juanek alde egiten dau Brasillera bere sendi guztiagaz.

1.808ko urtean Otsaillaren 3an, Frantziko gudalozteen gudal-nagusi Miollis buru zala, Erroman Sartzen da, eta VIIIn Pio Aita Santuak Napoleoneri, ez eutsolako lagun-

(1) Willians⁽¹⁾ tar Pitt edo Pitt Willians = 1.759ko urtean Txatanen (Chatham) jaioa eta 1.806ko urtean Groelandiako ugarteko Ayese⁽¹⁾ko Urian (Hayes) il zana. 24 urteagaz ministrua izendatu ebena, aurkari asko euki ebazan berak, aldaketa berri aundiak eroan ebazalako jaurkintzara. 1.784ko urtean diru arloaren berri batxuk onartu ebazan. Frantziko Iraultzaren denboran 1.793-1.798ko urteetan alkarte bi antolatu ebazan. 1.800eko urtean Irlandar katolikuen aldetik urruntzeko ta Irlandar lurraldeak alkartzeko alegiñean, antolatu ebazan auteskundeetan erregearen baimena ez ebalako onartu, 1.801eko urtean, utzi eban Jaukintzan euki eban ministruren ardurea. 1.804ko urtearen Loraillan, osteria izendatu eben leen ministrua eta irugarren alkarte antolatu eban Frantziaren aurka, eta 1.806ko urtean Ulm ta Austelitz⁽¹⁾en Napoleonek lortu ebazan garaipen andiak ezagututa egun gitxi barru, Ayesen il zan. (2) Errusiaren Kaliningradoko lurraldean Eylau erria, 1.945⁽¹⁾ erañio Alemania⁽¹⁾ rena izan dana eta ordutik ona Bragationovsk deituten dan Uria dana.

tzen edo Aita Santua aurka eukelako Ingalaterrakin egin gura ebenagaz, Aita Santua atxilotu eban Napoleonek, eleizaren Laterriak menderatuz.

1.808ko urtean asi zan Napoleon espainitarren lurraldeak menderatzen, 1.813ko urteraiño iraun ebena, arik eta Ingelesaren laguntzagaz, espainitarren lurraldeetatik bota arte.

1.808ko urtearen Epaillan, kaisertzaren Ikastetxe Nagusia sortzen dau, ikastetxe jabadunak zainpenean ipinita.

1.808ko urtearen Epaillan, Frantziko gudaloztearen gudal-nagusi Murat`ek, Madrillen sartzen da.

1.808ko urtearen Jorrail-Lorailako ille bitartean espainitar erritarrak matxinatzen dira, IVn Karlos espainiko erregea beartzen, erregearen koroia, bere seme VIIIn Fernandori emon zedin.

Napoleonek, biak atxilotzen dauz Baionan, eta Godoy`en salkeri edo judaskeri, IVn Karlos ta VIIIn Fernandoren oillokeriagaitik, bere anai Jose ipiniten dau espainitarren errege lez.

Marian Luis de Urkijo eta Jose Mazarredo Bizkaitarrak, artu emon onak euki ebazan Frantzesakaz, eta Bizkaiko Batzar Nagusian Mazarredo buru izanda, euren bitartez, Bonaparte`tar Josek itz eman eban Bizkaiko Jaun lez.

Garat anai Lapurditarrek euskaldun lez, gogor jokatu eben Euskalerrriaren alde, eta Garat`tar Dominike Joseph`ek Napoleon`i, bein eta berriro eskaiñi edo eskatuko eutsen, Euskalerriko Laterriak bateratu egiazala **Fenizia Barria** deituko zan, Frantziako euskal lurralde onetan.

Napoleonek a ta guzti, Euskal Nortasuna onartu arren, berak Europako Laterri guztiak lez, euskal izatasuna be Frantzez biurtu gura eban. Napoleon berak kontuan artu barik, bera be izan zala bere aitagaz Korsikako ugartearen igeslaria.

1.808ko urtean Uztaillaren 23an, espainolak Bailen`en, Dupont`eri borrokea irabazten dautsoe.

1.808ko urtean Dagonillaren 1ean Wellingtonen gudalozte ingelesak, Portugaleko itsas bazterrean legorreatzen dira.

1.808ko urtearen Iraillan Napoleon Erfurt`en⁽¹⁾, Errusiako I Alejandrogaz alkar ikusten da.

1.808ko Azaraoren 5ean, Napoleon peninsula edo ugarteerdi onetara etorten da, eta Madril beraganatu egiten dau.

Auñamendiko borrokak izan ziran saio aldi ederra, Urrutia eta de las Kasas`tar Jose espainitarren gudal nagusientzako, gero erdiugarte edo peninsula onetan, sasigudan asteko frantzezaren aurka. Napoleonentzako, gauza barria izan zana.

Bai ta orrez gain, 1.794ko urtean idatzitako beste gauza bat be aztu jakon Napoleon`i, erdiugarte edo peninsula au menderatzen etorten bazan, **“lurralde guztiak matxinatu edo aurka egingo eutsoela”**.

(1) Erfurt = Alemaniako lurradearen erdian, Karlomajnok Turinjiako mugaldea irasi eban lurraldetan dagoena, eta 1.485eko urtetik 1.918ko urterarte, leen dukadoa izatetik gero Sajoniako erregetza izan zana, eta 1.918ko urtetik 1.933ko urterarte Alemaniako Errepublikaren alkartutako laterria zana, Gera ta Suhl laterri edo lurraldeakaz batera. 1.808ko urtean Urrillaren 12an, Erfurt`eko batzarren tokia izan zana, Aleman Jauntzu batzuk, Errusiako I Alejandro eta Napoleonegaz batzartu ziranean.

Espainitarrak Frantzesaren aurka, ordurarte gudu arauetako antolamenduetan, ezagutzen ez ziran sasigudak asten dira, eta peninsula edo erdiugarte onen lurralde osoa biurtu zan guda toki baten. Frantzezak, lenengo Baionan eta gero Gazteizen egin ebazan gudak galdu ondoren, 300.000 gorako gudariak galdu ebazan.

1.809ko urtean Napoleonek, espainitarren lurraldeak itzita, Frantzira itzultzen da, Austriarrakaz euki eban alkartea apurtzen zala jakin ebelako, ta baita Foutxe ta Talleirand'ek ixilka, beren aurka alkartu zirala jakin ebalako.

1.809ko urtean Loraillaren 13an, Napoleon Bienan sartzen da.

1.809ko urtean Bagillaren 5ean, Napoleon Austriako lurraldean eta Bienaren Ipar Ekialde ondoan dauan Wagran erritxoan, Austriarrak menperatzen dauz. Eta Napoleones, bere gudalozteetan be egin zan sarraski aundia ikusita, oraindiño arrokeriz: **Emengo eriotzea, Parisek bakarrik gaba baten konpondu Leiken gauza da** esan eban.

1.809ko urtean Bagillaren 10ean Napoleones, Erroma ta Aita Santuaren Laterriak bereganatzen dauz, Aita Santua erbesteratuz.

1.809ko urtean Urrillaren 14an Napoleonek, Bienako alkargoaren bitartez, Prusia bakartzea, eta Europa zatitzea lortu eban.

1.809ko urtean Abenduaren 16an, Napoleon eta Josefinaren arteko eskontza eze-reztu egiten da.

1.810eko urtean Jorraillaren 2an, Napoleon, Austriako Maria Luisa printzeagaz eskontzen da.

1.811ko urtean Epaillaren 20an, Erromako erregea jaiotzen da, arrano-kume deituko eutsoenai.

1.812ko urtean Jorraillaren 25ean Errusiako I Alejandrok Napoleoneri, azkeneko itza emon eutson Prusiatik alde egian.

1.812ko urtean Bagillaren 24an Napoleonek, Bielorrusia ta Lituaniaren artean dagon Niemen ibaia zearkatu egiten dau, eta Errusian sartzen da 600.000 gudarigaz.

Errusitarak eraso ori ilusita, atzeratu egiten dira, lur-errearen antolabidea artuta, frantzesak janari barik izteko.

1.812ko urtean Dagonillako 17an Napoleonek, Errusiako lurraldean dauan Smolensk'eko Uria menperatzen dau.

1.812ko urtean Iraillaren 7an Napoleonek, Errusiako lurraldean dauan Borodino'ren auzunean, Kutuzov'ek bideratzen ebazan Errusiako gudalozteagaz aurrez-aurre kokatuta, odol-zaleko borrokan baten bidez, menperatu ebazan, Moskura sartzeko bideak zabalduz.

1.812ko urtean Iraillaren 14an Napoleon, Moskun sartzen da, eta alperrik itxaroten dau errusitarak bere aurrean agertu egiezan. Errusitarak, Napoleonek ez ebena gogoratu eginda, euren atzerakadan lur guztiak erre, bere gudalozteai jateko, ezeren mozkin barik itzita.

1.812ko urtean Urrillaren 19an, Napoleonek neguaren bildur, Moskutik alde egiten dau.

1.812ko urtean Urrillaren 22an Malet⁽¹⁾, Parisen matxinatzen da, eta egun bateko garaipena lortzen dau, Napoleononen eriotzea aldarrikatuz.

(1) Malet'tar Klaude-François gudar nagusia = 1.754ko urtean Dôlen jaio eta 1.812ko urtean Parisen ildakoa. Napoleononen etsaia izanda, beren aurka matxinatu zana, eta atxilotu ebenean espetxetik iges eginda, Napoleón Errusiatik ibili zala, Pariseko gobernua baitu gura eban, bera arrapau eben baiña, eta bere guda lagun gudari batzuk tirokatu eban orma baten aurrean.

1.812ko urtean Abenduaren 18an negua eldu zanean Napoleonek, an ezin ebala ezer egin, eta Mokowa´ko borroka, Moskuren ateak zabaldu eutsozana, ta Beresinako borroka bakarririk irabasa, gudaloztea izten dau eta Parisera doa.

Errusiatik Frantziko gudaloztearen atzerakadan, otz aundiko neguaren bitartez ta errusitar Kosako gudariak frantzez gudaloztearen atzeak eten barik murrizten joan ziralako, Errusira joan ziran 600.000 gizonetik, 120.000 bakarririk eldu ziran Frantzira.

1.813ko urtean Otsaillaren 28an, Prusia eta Errusia elkartzen dira.

1.813ko urtearen Loraillako 2 eta 20garreneko egun bitartean Napoleonek, Errusia ta Prusiako gudalozteak menperatzen dauz, leenengo Lützen´eko errian, eta bigarrena Bautzen´eko errian.

1.813ko urtean Bagillaren 21ean Wellington`ek Arabako Gazteiz zelaietan, Frantziako gudaloztea menperatzen dau.

1.813ko urtean Dagonillaren 10ean, Austria sartzen da gudan.

1.813ko urtean Iraillaren 16-19ko egun bitartean Leipzig`en, Europako Laterrien borroka nagusia egin zan, edo obeto ezanda, Europako Laterri ta Frantziko kaisargotzaren arteko borroka nagusia egin zan, Prusia, Errusia, Austria eta Suezia alkartuta, Stxwartzenberg, Blutxer eta Bernardote`ren aginduetara, Napoleonen aurka.

Alkarteak lortu eban garaipen ori, eta bere ondorioz, Alemania askatu eben.

1.814ko urtean Urtarrillaren 25ean Napoleonek, Parisetik urten egiten dau, eta azkezez ikusiko dauz bere emaste Maria Luisa kaizar Andrea, eta bere seme Erromako erregea.

1.814ko urtean Otsailla eta Epaillaren bitartean frantzesak, irabazi eutson alkar-teari: Txanpauert, Montmirall, Bautxanp eta Montereau`en. Elkartekoak baiña, aurrera egin eban.

1.814ko urtean Epaillaren 31n, Errusiako kaiserra eta Prusiako erregea, Parisen sartzen dira euren gudalozteakaz.

1.814ko urtean Jorraillaren 1ean Talleyrand`ek, bitarteko jaurkintz bat sort-arazten dau.

1.814ko urtean Jorraillaren 2an, senatore batzarrak, Napoleonen suntsidura edo itzaldura aldarrikatzen dau.

1.814ko urtean Jorailaren 6an Napoleonek Fontainebleau`nen, bere uzte-agiria izenpetzen dau, eta Elbako ugartera atzerriratzen dabe.

1.814ko urtean Jorraillaren 20an Napoleon, Elbako ugarterantza eroaten dabe.

1.815ko urtean Napoleonek, oartuta Frantziko erregetzan ipini eben XVIIIIn Luisiek, zelako erri-gorrotuen arten egoala jaurkitzen eta Jakinda, bonapartistak ta errepublikanoak zelako azpikeri-asmakuntzatan ibili ziran, Frantzira itzultzea erabagiten dau.

1.815eko urtean Epaillako 1ean Napoleonek, Jura deritson itsas-golkoan lurra aritzen dau.

1.815eko Epaillaren 20an Napoleon Parisera eltzen da, eta XVIII Luisiek alde egiten dau bere erregetzazko ezar lekutik.

1.815eko urtean Bagillaren 16an Napoleonek Ligny`n, Blützer`en agindupean egon zan Prusiako gudaloztea menperatzen dau, berak jaurkintzazko 100 eguneko agintaritza egiten dauan bitartean, arik eta Waterloo, bere garrantzienetako guda galdu arte.

1.815eko Bagillaren 17an Wellingtonek, berak al eben azkartasun guztiagaz alde egin bear dau, Napoleonen gudalozteak, bere gudaloztearen atzean ibili ziralako inguratzeko alegiñetan.

1.815eko urtean Bagillaren 18an baiña, Wellington`ek Beljikan, Brabanteko lurraldearen Waterloo`ko erriaren zelai inguruan, Napoleon`i aurea emoten dautso, jakin ebalako alkartearen gudalozteak urbil egon zirala, eta aukera orreitan sortu zan arratsalde inguruan, Napoleon eta bere gudaloztea menperatzea, gudaldi odolkoï aretan.

1.815eko urtean Bagillaren 22an, Napoleonek oster a be beartuta, bere agintaritzazko uzte-agiria izenpetu bear izaten dau.

1.815eko urtean Uztaillaren 15ean eta Ameriketara ezin ebalako alde egin, Ingelesaren Bellerophon itsas-guda-ontzien agintariai etsaimeduten da.

Ingelesak emendik, Santa Elenako ugartera eroaten dabe, eta 1.816ko urtetik 1.821eko urtearen Loraillararte egon zan an, 1.821eko urtean Loraillako 5`ean pozinduta il eben arte.

Napoleonek, Las Kases`eri⁽¹⁾ aginduta, astiro idatzi egiazala bere oroimenak.

Gaur eta 1.840 garrengo urte ezkeroztik, bere gorputzaren auts-kondarrak, Pariseko Elbarrituen-Arroztetxe⁽²⁾ edo Ostaletxean dagoz.

1. 39. *IVn Karlos espainitarren errege.*

1.748ko urtean Azaroaren 11n jaio zan Napolesko lurraldearen Portizi urian IVn Karlos errege au, bere aita IIIn Karlos Italiaren Sizilia Bien erregea, eta Sajoniako Maria Amalia amaren bidetik.

1.788ko urtean Abenduaren 14an Frantziko iraultzaren baiño urte bat ariñautik, 1.808ko urtean Epaillaren 19rarte izan zan espainitarren errege.

Bateatu egin eben orduan: *Karlos, Antonio, Paskual, Franzizko, Javier, Nepomuceno, Juan, Jose, Januario, Serafin eta Diego`en* izenak aipatzekoak dira.

Eta bere bizitzan eroan eban ez-izen edo izen gaizto lez: *Eiztaria`* rena zan.

1.759ko urtean bere osaba espainitarren errege izan zan VIIn Fernando, ondorio barik il zanean, VIIn Fernando, IIIn Karlosen anai lez, onen ardurapean jausi zan espainitarren erregetza ori, eta IVn Karloseri, bere aita IIIn Karlosen ondorengotasunetik.

1.760ko urtean Uztaillaren 19an izendatu eben Asturiaseko Printze lez IVn Karlos au.

Eta 1.788ko urtean Abenduaren 14an bere aita IIIn Karlos il zanean, IVn Karlos egin eban espainitarren errege.

IVn Karlos erregea, belaska edo bigune ta izaerabagekoa zan gizon au. Eta berak euki ebazan bereiztasun orreik izango ziran, bere erregetzarenak be: *etenbageko zalan-tza, eta elkar-gaitz edo ezereetan elkartu-eziñezkoa.*

(1) Las Kases edo Las Cases gazteleraz = Emmanuel`tar Agustin Las Kaeseko kondea. 1.766ko urtean Rebelen jaioa eta 1.842ko urtean Passy-sur-Seinen ilda, edestilari frantzeza izan zan. Konde`en gudaloztean borrokatu eban, iraultzaren denboran Ingalaterrara iges eginda, Frantziara itzuli zanean, Atlas-historique idatzi ebena, eta Napoleoneri lagundu autsona bere baitazko erbezeratzean, Napoleones asken naiak batuta. 1.823ko urtean Memorial de Sainte-Hélène argitaratu eban. (2) Bere auts-kondarrak Elbarrituen Arroztetxe, edo Ostaletxean dagozela = que sus restos están en el Hostal de Los invalidos.

Orregaitik itzi eban bere erregetza bere emazte Parma'tar Maria Luisaren eskuetan, eta esaten ebanagaitik, bere Godoy maitalarien eskuetan.

1.819ko urtean Urtarrillaren 19an Napolesen egoala il zan.

1. 40. *Floridablankaren jaurkintza.*

IVn Karlosek artu ebazan leen erabagiak, Floridablanka kondea, Laterri eta bulegoko ordezkari lez ipintea zan, bere aita IIIn Karlosek aolku lez, ori egin dagian esan eutsolako.

Floridablanka orokorrezko ministru onek, argitzaillezko zentzutik etorten zana zan, eta bere lenengo neurriak: zergaren ordainketetan luzapenak edo atzeratuen parkamenak sortu, ogien sal-neurriak edo balioak mugatu, esku geldí edo illetan egon ziran aberastasuren ondasunen laburketak edo eurak mugatzea, lotura ta etxaguntzak kendu edo ezerez-tutea, eta diruaren azkerari aurrerakuntzazko bideak zabaltzea gura eban.



*1.789ko urtean Goyak margoztutako laukie, IVn Karlos espainitarren erregeari.
Bere armaria eta bere idaz zirriborroa.*

IVn Karlos errege berak artu eban erabagia, bere ariñauko errege Vn Felipek irasi eban Salikako Legea ereztuteko, 1.789ko urtean gorteak baimendu egin ebena, baiña sekula ez zana aldarrikatu edo argira atara.

1.789ko urtean Frantzian agertu zan iraultzagaz, gauza guztiak aldatu ziran espainitarren jaurkintzan.

Frantzitik egertzen ziran barriak iraultzaren gora beran, espainitarren errege, gorte edo ta jaurkintzazko gizonen arteko urduritasuna, gero ta larriagoa izan zan, arik eta Floridablankak IIIn Karlosen aolkuz, gorteak ertsi edo zarratu arte, eta gorte orreik Floridablankaren kontrolpean egonda, Asturiaseko pintzearen izena onartzeko batu ziran arte.

Iziltasunezko erabagia artu eben euren erritarren artean barri txar orreik espainitar lurraldeetatik zabaldu ez zitezen, eta Floridablankak ikusi ondoren berri orreik euki eben erakarrezko indarra, Frantziagaz euki zituzen senidetasunezko ongundeak apurtu ebazan, mugaldeetatik kontrol gogorrak ipinita, bien bitartez alegiñ aundiak eginda XVIIn Luisen alde.

Ariñautik eta erregezko jaurkintzatik etorten ziran eraberri zaleko egitamuak be, ebagi ebazan, zaintzazko erabagitasunezkoagatik aldatuta, eta inkiziziozko neurriak gogortuz, Kabarrus baitu, Jobellanoz atzerriratu, eta Kampomanes, euki ebazan ordezk-ko arduretatik kendu eban.

1. 41. *Aranda kondearen jaurkintza.*

1.792ko urtean Floridablanka kendu eben jaurkintzatik, eta Boltaire eta beste frantzez jakitun edo ta irudidunakaz⁽¹⁾ lagun izan zan Arandako kondea ipini eben bere orde.

IVn Karlos erregeen aldetik, 1791ko frantzez konstituzioa onartu bear izanda, eta bere lengusu XVIn Luis, Barenneseko iges aldian porrot eginda espetxeratu ebalako, ia ezinezkoa zana aurrera eroaten, XVIn Luis askatu egiala agindu eutson Arandako kondeari

Eta 1.792ko urtetik aurrera, Frantziko matxinatuak artu eben gogortasunagaz, XVIn Luis erregetzatik kendu ta atxilotuaz batera, erabagi oneik izan ziran IVn Karlos alegindu ebazanak, Aranda kondea emon eutsozan arduretatik kentzeko, ta 1.792ko urtean Azaroaren 15ean espainitarren jaurkintzan Godoy ipinteko.

1. 42. *Godoy'tar Manuelen leen aldiko jaurkintza.*

Godoy'tar Manuel'ek, erregeak babesteko gudaria izanetik⁽²⁾, eta erregeakaz euki eban adiskidetasunagaitik, igon eban aīn arin gorteko agintaritzara.

Godoy, andiki edo odol-garbikoa izan zanetik, laster igon eban, Alkudia eta Suekako dukea izatera, eta gudalezko kapitan nagusia izendatu ebenetik, 1.972ko urte amaieratik, IVn Karlosen orokorrezko ministro aundienariko almenagaz kokatu zan.

1.792ko urtean Azaroaren 15ean jaurkintzazko arduratan, ipini eben leen ministro Godoy'tar Manuel onek, argitasunezko eritziaren gogoetatik agertuz, neurri barriaren zalea zan, bizitzarako jakiteak⁽³⁾, Erri Lagunen Diruzko Alkartek, edo ta Godoy'en sal-erosgai edo ondasunen askatasun izenagaz⁽⁴⁾ ezagutu ziran gaisotegi, errukizko etxe, eta lekaidearen elkarteak eroaten eben ume ta txiro etxearen ondasunen barriak bultzatu gura ebazan.

Baiña, ostopo aundi bat euki eban, Frantziko iraultzak beartuta euki ebala espainitarren jaurkintzazko politikea.

Godoy'en lenengo neurriak, espetxean giltzapetuta eta iltera zigortuta egoan Frantziko XVIn Luis erregea, askatzea zan.

1.973ko urtean baiña, Europako errege guztien aldetik, XVIn Luis askatu egien ainbeste alegiñ egon arren, Frantzezak urte onen Urtarrillan il eben erregea lepoa moztuz, Europako errege guztiak bat eginda Frantziko iraultzaren aurka, Ongundearen Gudako izenagaz⁽⁵⁾.

Espainol gortekoak be sartu ziran burruka orretan, eta euki ebazan gudalozteak txarto antolatuta egon ziralako, ez eben aukerarik euki, Sans Kulotes frantzez gudalozte sutsuen aurka ezer egiteko.

Ricardos espainitar gudal nagusia sartu zan 25.000 gudariekin Rosellonetik, garai-pen batzuk lortuta.

1.794ko urtetik espainitarrak, atzerantza asi bear izan eban baiña, eta frantzezak, Figeras, Irun, Donosti, Bilbao, Miranda, eta Ebroren zelaikadak menperatu ebazan.

(1) Jakitun edo irudidunakaz = ilustrados. (2) Erregeen zaintzarako, onek euki eben gudaria = guardia de corps. (3) Bizitzarako jakiteak = ciencias aplicadas. (4) Godoy'en sal-erosgai edo ondasunen izenagaz ezagutu ziran = La llamada desmortización de Godoy de bienes pertenecientes a hospitales, casas de misericordia y hospicios regentados por comunidades religiosas. (5) Ongundearen gudako izena ipini = guerra de la Convención.

1.975eko urtean Godoy'k, Basileako bakea izenpetu eban, eta Frantziko errepubli-
keak ostera emon eutsoezan menperatu ebazan lurraldeak, Santo Domingon koloniza-
tutako ugarteetatik, espainola deitzen zan ugartea frantzezari emonda. Godoy'k bake
orren ordez, *Bakezko Printzearen* izena artu eban IVn Karlosen eskutik.

1.796ko urtean Frantziko iraultzaren aldi gogorrena amaituta, Godoy'k San Il-
defonsoren Ongundea sinatu eban, eta frantzezaren edizkide lez biurtuta geratu ziran
espainitarrak.

Ingelesak, Frantziko iraultzaren etsai aundienak izanda, eta espainitar betiko aur-
kariak be izan ziralako. Godoy'k Aldaketazko Ongunde onekaz, leen aurkitu edo bi-
llatu gura ebena, itsasoaren nagusitasunagaz geratzea zan frantzez laguntzarekin, es-
painitarrek Ameriketatik ekarten eben urre-gorria ta salerosteko mozkiñak babesteko.

1.797ko urtean espainitarren Itsas-gudalozteak, ikaragarritzko zigorkada edo as-
tiñaldia artu eben Nelson Ingelesaren aldetik, San Bizenteko lur muturraren aurrean,
nai Kadiz eta Tenerifeko Santa Kurtzek, eutsi edo ta gogor erantsun, Ingelesaren era-
soari.

1.798ko urtean Ingelesak, Trinitadeko ugartea menperatu eben, astiñaldi gogorra
artuta baiña, Aberats-Kai'aren⁽¹⁾ inguruan.

Eta ekintza ori izan zan Godoy bere ardurazko agintaritzatik kendu ebena 1.798ko
urtearen Loraillan.

1. 43. *Saabedra*⁽²⁾ *ta Urkijoren*⁽³⁾ *jaurkintzak.*

1.798-1.800eko urtetan, Saabedra'tar Franzizko eta Urkijo'tar Mariano Luis artu
eben espainitarren jaurkintza.

1. 44. *Godoy'en bigarren aldiko jaurkintza.*

1.799ko urtean Napoleon Frantziko jaurkintzara eldu zanean eta 1.804ko urtean
Frantziko kaisar jaun izendatu ebenean, Europako erri guztiekin euki ebazan politi-
kazko arremanak aldatu ziran guztiz, ostera espainitarren arremanakaz asita.

Napoleonek Ingalaterraren aurka egiteko, espainitarren laguntza bear izan eban,
eta batez be Itsas-ontzidiarena.

Orregaitik estutu eutson espaintar errege IVn Karloseri, espainitarren erregetza
Godoy'en eskuetan ostera itzi egien.

1.800eko urtean artu eban Godoy'k espainitarren orokorrezko agintaritzza.

(1) Aberats Kaia'ren o Puerto Rico. (2) Saabedra'tar Franzizko = 1.746ko urtean Sebillan jaiola eta 1.819ko urtean Sebillan ildakoa. Arjelen borrokatu zan. 1.781ko urtean Ameriketan, Pensakola artu ebenean be an egon zan. 1.783ko urtean Karakaseko arduraduna be izan zan. 1.797ko urtean diru zain ixil-gordari (secretario). Eta 1.798ko urtean, Laterriaren ixil-gordari. Ta 1.810eko urtean Frantzezak eriuarte onen lurretara sartu ziran, erregetzaren aolkularia. (3) Urkijo'tar Mariano Luis = 1.768ko urtean Bilbon jaiola eta 1.817ko urtean Paris'en ildakoa. Zezarren ilketa itzuli eban frantzetatik, eta Inkizizioagaitik eraso edo jazarpenduta, Floridablankaren babesak askatu eban. 1.798ko urtean Laterrien ministrua izendatu eban. Txertoa (vacuna) sartu eban espainitarren lurraldeetara. Bera izan zan leena European menpekotasuna (esclavitud) debekatu ebana. Napoleonegaz Aranjuezko ongundea sinatu eban. Baiña Napoleones azpikeria eta eleizaren aurkaritza, bere zorizaiztoa bultzatu eben. 1.800eko urtean kendu eben bere agintaritzazko ezar lekutik eta Iruñan espetxeratua. VIIIn Fernandok aske itzita, Bonaparte'tar Josegaz izan zan ministrua, gero beragaz Frantzira joanda, eta bertan nortasunezko agiri barria artuz, sekula ez zan geiago etorriko espainitarren artera.

Eta 1.801eko urtean Godoy'k, Aranjuezeko itun edo ongundea sinatu eban, alde ortarik Napoleonen eskuetan itxita espainitar Itsasontzidia. Eta ekintza orren bidez espainitarrak, ostera gudan agertu ziran Ingalaterragaz.

1.801eko urtean Godoy'k, Portugal Ingalaterrarekin alkartuta egoan lez, guda aurkeztu eutson Portugaleri, Frantziak egin orduko.

Eta borroka au, laranjaren guda ezagutu jakon bidetik, espainitarrak Olibenza erasotuta, Portugezak beartuta agertu ziran Ingeles'eri debekatzen, euren kaietan, Itsazontzirik sartu ez egien.

1.805eko urtean, espainitar eta frantzezaren alkarte orren itsasozko nagusitasuna, ankaz gora geratu zan, Ingelesak Trafalgarren emon eutsoen astinketa bidez.

Napoleonek au ikusi ondoren, Europako errege guztiai eskatu eutsen Ingalaterra ertsitu edo inguratu egien, Ingelesak euki ez egien jatekorik edo mozkiñik artu itsas bidetik, espainitarrak beragaz alkartuta.

Eta 1.807ko urtean Godoy buru zala, Frantzez ta espainitarren artean, Fontainebleau'ko ongundea sinatu zan, Portugal, bien artean eta Godoy'egaz be zatituteko. Bide batez, menpetasunezko alegiñ ori frantzez aldetik beteteko, espainitarren lurraldeetatik bideak aske eukitea zan, eta alan sinatu zan.

1. 45. *Askeneko larri-unea.*

Ainbeste gudakin, espainitarren diru arloko jaurkintza, makaldu egin zan ezin besarterate, IVn Karlosen ministrak ezin ebena zuzendu, Frantziko iraultzari euki eutsoen bildurragaz, lotuta agertu ziralako artu bear ziran neurriak artzen, eta geien espainitar talde nagusiak lortu ebazan eskubideak, zalantzan ipinten ziralako, artu edo sartu bear ziran neurri orreikaz.

Espaintar lurraldeetara sartu ziranean frantzez gudalozteak, erritarren asarre gogorra agertu zan Godoy'en aurka, frantzezari eurak gura eben guztia emoten eutselako.

1.807ko urtearen askenetan Eskorialeko Zin-kide edo Erkidetasuna sortu zan, gero VIIIn Fernando errege izango zan Asturiaseko Printzeak bideratzen ebana, Godoy bere lekutik kendu eta bere aita IVn Karlos, erregetzatik be kentzeko asmoan.

Eta uts urten ebalako alegiñ au, VIIIn Fernando berak, zalatu ebazan bere laguntzailleak.

1.808ko urtean ikusita frantzez gudalozteak espainitar lurraldea inguratuta euki ebala, Godoy'k erregeari eskatu eutson, alde egin dagiela espainiako lurraldeetatik.

Erregeak Aranjuezeko jauretxean egon zirala baiña, erritarrak matxinatu jakiezan euren aurka, eta Godoy baitu eban.

Eta IVn Karlosek ikusita gauzak baltz agertzen zirala berentzat, bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan itzi eban espainitarren jaurkintza, agiri onegaz:

Como los achaques de que adolezco no me permiten soportar por más tiempo el grave peso del gobierno de mis reinos, y me sea preciso para reparar mi salud gozar en clima más templado de la tranquilidad de la vida privada; he determinado, después de la más seria deliberación, abdicar mi corona en mi heredero y mi muy caro hijo el Príncipe de Asturias. Por tanto es mi real voluntad que sea reconocido y obedecido como Rey y Señor natural de todos mis reinos y dominios.

1.808ko urtean Epailaren 25ean, Madrilleko Gazeta Aldizkarian agertu zana.

Napoleon bere aldetik kezkatu, ez zan lar egokitzen erabagi orrekin eta bieri deitu eutsen, Frantzi aldeko Baionan alkatu zitezen.

1.808ko urtean Loraillaren 6an VIIen Fernandok, Napoleonek eta bere aita IVn Karlosek egiten eutsoen premiñakin, oster a itzuli eutson errege koroari bere aitari, ezer jakin barik, bere aitak ariñauko egunean, Napoleoneri emon eutsozala espainitar erregezko eskubideak.

Napoleonek, bear eben legezko agiriak bere eskuetan eukinda, bere anai Bonaparte 'tar Jose, espainitarren errege izendatu eban.

1. 46. *IVn Karlosen atzerriratzea eta eriotzea.*

Napoleonek, Paris 'etik 80 km. iparrerrantza dauan Kompiegnes 'eko Jauretxera bialdu ebazan IVn Karlos bere sendi guztiagaz.

Andik denbora gitxi barru baiña, IVn Karlosek euki eban oin-itoi edo oin-zainar⁽¹⁾ gaitzaldia errentzak Pikardiako egu-giroa ez zala ona ta, Nizan bizitzeko eskatu eutson Napoleoni.

On artu eban Napoleonek, IVn Karlosek egin eutson eskaria, baiña ez beren erantzuna emon barik: *“gaitzaldi ori bere erruagaitik sortzen zala esanda”*, Napoleonek bere aldetik bete barik, diru kontuetan agindu eutsoezanak.

IVn Karlosek bere sendi guztiagaz, ez zan egokitzen Nizako lurraldeetan, eta zorez beterik Marsellara joan ziran.

1.812ko urtearen udan baiña Napoleonek, IVn Karlos bere emazte ta euki ebazan laguntzailleak Erromara bialdu ebazan, Borgeseko jauretxean ezarri edo antolatzeke.

1.814ko urtean Napoleon jausi zanean, IVn Karlos eta Maria Luisa bere emazteagaz, Erroman bertan dagon Berberini 'ko jauretxera aldatzen dira, bertan ia lau urte bete arte, euren seme VIIen Fernandok espainitar erregetzaren ezarlekuan oster a kokatuta egoala, bialtzen eutsoen diruakaz. Bide batez aita amari debekatuz, espainitar lurraldeetara oster a etortea.

IVn Karlos, bere emaztea anka biak apurtuta eukezala eta larritasunezko osasunean egoala, Napolesera joan zan bere anai I Fernando Sizilia Biko errege zanarengana, bere anketako oin-zainarrentzako atsedean apur bat aurkitzen ba eban.

1.819ko urtean Urtarrillaren 1ean eta azken igurtzi artuta⁽²⁾, urrengo egunean il zan bere emazte Borbon eta Parmako 'tar Maria Luisa erregeña.

1.819ko urtean Urtarrillaren 13an IVn Karlosek, bere emaztea il zanaren barria artu ebanean, laster apaindu zan Erromara oster a itzultzeke.

Eta 1.819ko urtean Urtarrillaren 19an baiña IVn Karlosek, oin-zainarren eraso gogor bat artu eban, eta agertu jakon sukarragaz, ez eban indarrik euki gaisoari geiago egiteke, eta bertan il zan.

1. 47. *IVn Karlosen ezkontza eta euki zituzten alaba-semeak.*

1.765eko urtean ezkondu zan IVn Karlos bere arreba-lenguziña zan Borbon ta Parmako 'tar Maria Luisagaz, eta amalau alaba-semeak euki zituzten, euren adiñetara zazpi bakarrik elduta:

(1) Oin-itoi edo oin-zainar = podagra, o gota de los pies. (2) Azken-igurtzi edo oliadura = extrema-unción.

-1.771eko urtean Iraillaren 19an jaio tako Karlos Klemente Antonio. 1.774ko urtean Epaillaren 7an il zana.

-1.775eko urtean Jorrrillaren 25ean jaio tako Karlota Joakina, Potugaleko VI In Juanegaz ez konduta. 1.830eko urtean Urtarrillaren 7an il zana.

-1.777ko urtean Iraillaren 11n jaio zan Maria Luisa Carlota. 1.782ko urtean Uztaillaren 2an il zana.

-1.779ko urtean Urtarrillaren 9an jaio tako Maria Amalia, eta Bere osaba Borbon'eko Antonio Paskual'ekin, III In Karlosen semea eta IV In Karlosen anai txikerra izan zana-gaz ez kondu zana. 1.798ko urtean Uztaillaren 22an il zan.

-1.780ko urtean Epaillaren 5ean jaio tako Karlos Domingo Eusebio. 1.783ko urtean Ekainaren 11n il zana.

-1.782ko urtean Uztaillaren 6an jaio tako Maria Luisa Josefina, Borbon ta Parmako'tar Luis, Parmako dukea eta Etruriako erregeagaz ez konduta. 1824ko urtean Epaillaren 13an il zan.

-1.783ko urtean Iraillaren 5ean jaio tako Karlos Frantzizko de Paula, 1784ko urtean Azaroaren 11n il zana.

-1.783ko urtean Iraillaren 5ean jaio tako Felipe Frantzizko de Paula. 1.784ko urtean Urtarrillaren 18an il zana.

-1.784ko urtean Urtarrillaren 14an jaio tako Fernando, gero VII In Fernando izenakin, espainitarren errege lez ezagutuko zana. 1.833ko urtean Iraillaren 29an il zan.

-1.788ko urtean Epaillaren 29an jaio tako Karlos Maria Isidro Molinako kondea, Karlistaren sortzaille izan zan espainitarren errege izateko. 1.855eko urtean Epaillaren 10ean il zan.

-1.789ko urtean Uztaillaren 6an jaio tako Maria Isabel, bere lengusu Sizilia Biko errege I Frantzizkoekin ez konduta leenegoz, eta bigarren Balzoko kondearen Franzizkoekin ez kondu zana. 1.848ko urtean Iraillaren 13an il zan.

-1.791eko urtean Otsaillaren 16an jaio tako Maria Teresa. 1.794ko urtean Azaroaren 2an piko edo nabarreriko gaixotasunagaz il zana.

-1.792ko urtean Epaillaren 28an jaio tako Felipe Maria Franzizko. 1.794ko urtean Epaillaren 1ean il zana.

-1.794ko urtean Epaillaren 10an jaio tako Franzizko de Paula Antonio, Kadizeko dukea, eta bere arrebaren alaba, Borbon'tar Sizilia Biko Luisa Karlota bere lobagaz ez konduta, 1.865eko urtean Dagonillaren 13an il zana. Ezkontza onen lenengo semea, Borbon eta Asis'eko Franzizko izan zan espainitarren II In Isabelegaz ez kondu zana.

1. 48. *Bonaparte'tar I Jose, Pepe Bonbil edo Botellaren izenagaz ezagutu zan, I Napoleonen anaia.*

Bonaparte I Jose au, Korzikako Korte errian jaio zan 1.768ko urtean, eta 1.844ko urtean Florenzian il.

1.764ko urtean Ajakzion jaio ta 1.785ko urtean Montpellier'en ildako Bonapartetar Karlos Maria eta 1.764ko urtean jaio zan bere emazte Ramolino'tar Letizia'gaz

euki ebazan 13 seme alabetatik leenengo semea zan eta I Napoleonen anaia. 7 Seme bizi izanda, euki ebezan 13 seme alabetatik.

1.768-1.769ko urte bitartean Korzegako aberriaren askatasunagaitik borrokan ibilita, alde egin bear izan eban Bonaparte´tar Karlos Maria onek bere korzegako ugartetik sendi guztiagaz, Korzegako aberriaren gizandi zan Paoli euren etsaiak, atzean ibili zalako, eta Frantzez jaurkintzaren zerbitzura ipinita, bere lagun Frantziko Marbeuf kondearen bidetik, bere seme nausienak I Jose ta I Napoleon, Autun´eko ikastetxean sartu ebazan bekadun lez.

I Napoleon izan zan, ikas maillan aurrerago ibili zana, eta matematiketan geien, ortik Brienneko gudarako ikastetxean sartuta.

17 urtegaz urten eban Napoleon guda ikastetxe ortatik, teniente ordezeko maillagaz, Balenzeko urira bialduta bere leen ardurazko lan lez.

1.796ko urtean, Jose au legeak Italiako Pisa urian ikasita ondoren, Korzegako mezugillaren arduraduna izendatu eben, gero Parma ta Erromara bialduta.

Frantziaren be-maillako lege egilleen 500 aolkularitzazko diputadua izan zan, artezpideko denboran⁽¹⁾.

1.801ean Lunebillen, Erromako eleiztarrakin eleiz-itun, eta 1.802ko urtean Amienseko ongundea sinatu ebazan.

Saboia egiten eban aberats baten alaba Klary´tar Juliagaz ezkondu zan alaba bi eukinda: Zenaida, Bonaparte´tar Karlos Juliogaz ezkondu zana. Eta, Karlota, Bonaparte ta Blestxanp´tar Karlosegaz ezkondu zana.

Klary´tar Julia, sekula ez zan etorri erdiugarte edo peninsula onetara, Napoleonegaz egon zalako bere senar Bonaparte´tar Jose´en irabazkiakin arduratuta.

Napoleonen guda bitarteetan, Bonaparte´tar Jose onek, beti egin eban lan mezulari edo mandatari arduradun lez: Estatu-Batuekaz, Austria, Breña Aundia, eta Batikanoagaz ongundeak sinatzen.

Erromako ordezkaria be izan zan, eta 1.797ko urtean bere anai Napoleoneri lagunduko eutson antolatzen, 1799ko urtean Frantziko Laterriari emongo eutson matxintasunean, Konsulen jaurkintza ezartzeko.

1.806ko urtean Napoleon kaisar lez izendatu ebenean, onek bere anai Bonaparte´tar I Jose, Napoleseko errege izendatu eban, bertan 1.808ko urtearen udarte egonda.

1.808ko urtean Loraillaren 5ean eta IVn Karlos´ek Baionan egin ebazan erregetzaren utziera ostean.

1.808ko urtean Bagillaren 6an, Napoleonek bere anai I Jose ipini eban espainitarren errege, eta Murat, Napoleonen kuñatua zana, erdiugarte edo peninsula onetan frantzez gudaloztearen agintaritzan egon zana, Napoleseko errege lez ipini eban.

1.808ko urtean Uztaillaren 6an eta Bonaparte´tar Jose batzar orretara eldu orduko, Napoleonek an batu ebazanakaz, bere konstituziozko legedi sorta bat baieztu eban, bere anai I Jose´en erregetza babesteko, **Bayonako Konstituzioa** deituko jakonari.

Napoleonek, bere konstituziozko lege barriak espainitarrai aurkeztu ta onek sinatu ondoren, espainitar gorteak batu ebazan Baionan, eta bertan ziñ eban I Josek espainitar errege lez.

(1) Artezpideko denboran = tiempos del directorio que sustituyó a la Convención, a la que Napoleón dió un golpe de estado en el año 1.799 el 9-10 de Noviembre, o del 18 de Brumario, que lo sustituyó por el gobierno de los Consules.

1.808ko urtean Uztaillaren 7an ta espainitarren askatasunezko guda asi zanean izendatu eban Napoleonek bere anai I Jose, espainitarren eta Indiaseko errege.

1.808ko urtean Uztaillaren 20an sartu zan Madrillen Bonaparte´tar Jose, I Bonaparte´tar Jose erregeen izenakin, gudalozte indartsu bat bere agindupean eukala. Eta I Jose Madrillen sartzen egoala, Bailen´en Dupont gudal general nagusia menperatu ta atxilotu egin eban espainitarren gudalozteak.

1.808ko urtean Iraillaren 22an I Jose´k, ikusita eurentzat guda zelako biurkeria artzen eban Burgosera joan zan, gero Ebroko Mirandatik, askenez Gazteizera joateko, eta bertan ezarri eban bere gudaltegia, arik eta Napoleon agertu arte, bere gudalozte aundiagaz.

1.809ko urtean Urtarrillaren 22an I Josek bere aniaren garaipenak ikusita, eta baita jakinda erdiugarte edo peninsula onetara etorten egoala, ostera sartzen da Madrillen.

Eta Madrillen egoala, bere anai Napoleon´i esaten dautso, bera ez zala egon pozik uri aretan, bere alde ez eukelako iñork eta bai alderantziz etsai larregi.

I Jose au, sekula be ez zan izan espainitarren gogoko edo atsegintasunezkoa, erritarrak *“Pepe Bonbil edo Botellaren”* eta *“Pepe Enparantzakoa”* ez izenakaz deituta.

I Jose au, nai erritarren atzeginezko legeak egin edo ta erritarrentzat jai-aldi ugarriak egin, erritarrak atzeritar menperatzaille bat lez euki ebelako, gero ta erri-gorrotan edo errien-iguingarriagoa⁽¹⁾ biurtzen zan.

I Jose´en erregetza, askatasunezko gudaren baldintzapean egin zan, beti espainitar jakitunen billa ibilita, gero oneri, *“prantzez-zale”* deituko eutsoenai.

Eta I Josek ezin ebana sekula egokitu, bere jaurkintzarako ekarten eban eraberri-zalezko egitaraua izan zan.

1.810eko urtearen Urtarrillan, berak, bideratu eban Andaluziako gudaldia.

1.811ko urtean eta Parisera ostera bat egin ostean I Napoleonen seme ta ondorengo zana ezagutzeko, berak utzi gura eban espainitarren agintaritza ori, Napoleon bere anaiak baiña, espainitar gudalozte guztien general nagusi izendatu eban.

1.812ko urtean I Josek, Kadiz´eko gorteak sortu ziranean, eurakaz adostu edo adostasun baten atzean ibili zan, baiña ez eban lortu ezer.

1.812ko urtean 22ko Uztaillan Salamankako Arapiles´en, Wellington dukeak espainitar eta Ingelesaren gudalozteak aginduten ebazan bidetik, Marmont Mariskalaren agindupean egon ziran frantzezari emon eutsoezan astiñaldi gogorragaz, I Jose´k, alde egin bear izan eban Madrilletik Balentziara, Sutxet Mariskalaren babesera.

Urte orren neguan I Jose, ostera joaten da Madrillera, Wellington´ek, alde egin ebalako.

1.813ko urtearen Bagillako 13an ekitaldi onetan I Josek, azkenez urteten dau Madrilletik Gazteizera Wellington´eri aurre egiteko, onek, astiñaldi gogora emonda I Jose´en gudalozteai.

1.813ko urtean Bagillaren 21ean Gazteizen, frantzezak ostera artu eben beste astiñaldi gogoragoagaz Wellington´en eskutik, amaitu zan Bonaparte´tar I Jose´en erregetza, frantzez gudalozteak, Añamendiak betiko aldatuta, frantzez lurraldeetara joateko.

(1) Errien iguingarri = odioso, execrable, repugnante a los ojos del pueblo.

1.813ko urtean Abenduaren 11n, Frantziko lurraldean eta I Napoleonek, VIIIn Fernando atxilotuta eukan Talleyrand'en gazteluan ospatu zan Balenzay'ko ongundean, Napoleonek, onartu bear izan eban VIIIn Fernando'en erregetza, espainitarren askatasunezko borrokari amaiera emonda.

1.814ko urtean Epaillaren 13an VIIIn Fernando espainitarren lurrerantza urten eban, I Jose Frantzirantza joan zan bitartean.

I Jose Parisera eldu zanean Napoleonek, Kaisertzaren ordezkoa izendatu eban, bera izanda Frantziko gobernuaren jabeduna, Napoleon kanporatu egiten zanean.

1.815eko urtean Bagillaren 18an Wellington'eko dukeak Beljikako Waterloo'ko urian Napoleoneri asken borroka odoltzu ori irabazita, I Jose leen Suizara atzerriratu zan, gero Napoleonen 100eko jaurkintza ostetik, Ameriketara eta Londresera atzerri-ratuta.

1.821eko Dagonillaren 10ean I Josek, jakin eban zelan sortu zan bere anai Napo-leonen eriotzea Santa Elenako ugartean, eta bera aldatu zan ortik aurrera, Bonaparte senditarren buru izatera

1.832ko urtean Liverpool'era aldatu zan, eta 1.840ko urtean perlesi edo odol gol-pe bat⁽¹⁾ euki eban, ibilkerarako ezereztu eutsoena. Eta Frantziko gortekoak berau ja-kinda, itzi eutsoen Frantzira itzultzen.

Eta 1.841eko urtean Florenziako urian bere bizi bidea egokituz, andik iru urtera ilgo zan, 1.844ko urtean Uztailaren 28an ain zuzen.

1. 49. XVIIIIn Luis Frantziko erregea

1.755ko urtean Azaroaren 17an jaio zan Luis Estanislao Javier edo XVIIIIn Luis "Naigarria"⁽²⁾ au, Bersalleseko jauregian.

Eta 1.824ko urtean Iraillaren 16an Paris'en il.

Luis, Frantziko ondorengotasunezkoa zana eta Sajoniako Maria Josefaren seiga-rrren semea zan, eta XVn Luisen billoba.



XVIIIIn Luis bera eta bere armaria

(1) Odol golpe bat = apoplejía. (2) Naigarria = deseado, (désiré).

Jaiotzeagaz, Probentzako kondearen izen burua emon eutsoen. Beren anaia erregetzara igon ebenetik baiña, *“Monsieur”* ezko izenagaz ezagutu zan.

Louis Stanislas Xabier'en izenagaz bateatu eben jaio ta sei illabete barru. Bateatua-ren bidez *“Arnas Saindu, edo Izpiritu Saindu'en Zaldun Elkargoaren kide”*⁽¹⁾ izendatuz.

1.814-1.824ko urte bitartean izan zan Frantzia eta Nafarroako errege. Kontuan eukinda, Napoleonek Elbako ugartetik bere Pariserako itzulkeran, Frantzia jaurkitu ebazan 100 egunak izan ezik.

XVIIIIn Luis, Frantziko ondorengotasunezkoa zana, Sajoniako Maria Josefaren seigarren semea zan, eta XVn Luisen billoba.

Napoleon bera izanda, Borboien berregintza edo lengoratzean, Frantziko lenengo erregea.

XVIIIIn Luisek 1.791-1.814ko urte bitartean, 23 urte egon zan erbestean edo kanporatuta, arik eta Frantziko Iraultza eta kaisertzaren denborak osotu ziran arte.

XVIIIIn Luis onek, Provenzakon kondearen izen burua euki eban, bere anai XVIIn Luisen antzera.

Eta 1.795eko urtearen Bagillan, XVIIIn Luis, bere aita ama ta arrebakaz espetxeratuta egonda il zanean, bere osaba XVIIIIn Luis igon eban Frantziko erregetzara tituludunezko izen-lerro lez.

Bere atzerriratzean, Prusian, Ingalaterra, ta Errusian bere bizitza eginda.

Eta 1.814ko urtean asken baten, seigarren alkarteak, Napoleoni irabazi eutsonean, XVIIIIn Luis igon eben erregetzara, danari gogoratzen, XVIIn Luis eta errege zaleen eskubidekoa zala Frantziko erregetza ori.

Napoleonek baiña, Elbako ugartetik iges egin ebanean, berak be, bere eskubideko kaisergotza lez euki ebalako Frantziko jaurkintza eta ostera berreskuratzeko agertu zanean, XVIIIIn Luisek alde egin bear izan eban.

Zazpigarren alkartea osotu zan, berrezkuratuko kaisertza ostera ezereztuteko, eta Waterloo'n menperatu eban Napoleon.

Bigarrenez ipini eban XVIIIIn Luis Frantziko erregetzaren aulkian. Orain, bein betiko edo XVIIIIn Luis iltzen zan arte.

Amar urte baiño gitxiago Jaurkitu eban XVIIIIn Luis lenauko erregen antzera. Ariñauko erregearen jaurpidea alosokerizkoa izanda, oraigo Borboien yaurpidea, jaurgo aldeko legea zalako⁽²⁾.

XVIIIIn Luisen jaurgo-legezkoa lez, benetan euki eban salbuespeneko eskubidea, 1.814ko urtearen eskutitz, edo Frantziko araudi barrian oiñarritua egoana, eta bere eriotzean alaba semerik ez ebelako euki, Frantziko erregetzaren aulkian, bere anai Artoiseko kondea, Karlos ezarri zan.

XVIIIIn Luis izango zan Frantziaren askeneko erregea, il zan arte jaurriko ebena. Eta bere asierazko erregetzaren jarreran, errege-aldeko⁽³⁾, Bonaparte-aldekoak eta erkalderriko edo Errepublikanuak alkartu gurean, bere anai Karlosek, sarritan sartzen

(1) Izpitu Saindua'en Zaldun-Elkargoaren Kide = caballero de la orden del Espíritu Santo. (2) Jaurgo aldeko-legea zalako = constitucional, adicto a la constitución, porque era una monarquía constitucional. (3) “Royalistes esaten eutsienai.

jakon aitzakiakaz edo boikota egiten. A ta guzti, antz baten lortu eban gure ebana, ia beren eriotzararte.

1.771ko urtean Loraillaren 14an XVIIIIn Luisek, Saboyako Maria Josefinagaz⁽¹⁾ eskondu zan, Marie Joséphine'n izenagaz ezagutu zana. Saboyako Biktor Amadeo dukea, gero Zerdeñako errege izango zan IIIIn Biktor Amadeo'ren izenakin, eta bere Borbon'eko Maria Antonia emaztearen alaba zana. Bere anai Frantziko Karlos, XVIIIIn Luisen koñata, Maria Teresagaz ezkonduko zan.



*XVIIIIn Luis txikerra, bere anai Luis Augusto
Gero XVIIn Luis izando zana, orduaneroaten zan, neskak lez jantzita.*

1.771ko urtean Loraillaren 20an ezkonduko ziran, XVIIIIn Luis eta Marie Josepine⁽²⁾, ezkondu ta gero bere emaztearen atzeraldiagaz, onek motz edo itsusi⁽³⁾, aspergarri⁽⁴⁾, eta Bersalleseko gortearen oiturazko arloetan, ez jakin lez aurkitzen ebalako, urteetan egon ziran ezkontzeko gauzak bete barik.

1.773ko urtean bere aitite XVn Luisek emondako izen-buru oneik artu ebazan: *“Anjou'ko kondea, Maine'ko kondea, Pertxe'ko kondea, eta Senotxes'ko kondea, denbora onetan Probenzako kondea lez ezagututa”*.

1.773ko urten Abenduaren 17an *“Jerusaleneko San Lazaroren Elkargoko Buruzagi Nagusia”*⁽⁵⁾.

1.774ko urtean Estanislao edo XVIIIIn Luis, lortu eban Maria Josefina aurdun iztea, aur-galtze baten amaitu zana.

1.781ean be aurdundu eban Maria Josefina, eta euki eban bigarren aur-galtzetik, gero sekula be ez eben euki alaba-semerik.

1.795eko urteko Bagillaren 8an il zan Frantziko XVIIIn Luis, eta Frantzian egon zan Salikako legeagaitik, bere arreba Maria Teresa ezin ebalako errege aulkira igon, Probenzako kondea egin eben errege *“XVIIIIn Luisen izenakin”*.

XVIIIIn Luis, bere lobia il zanean *“Beronako adieraztea”*⁽⁶⁾ argitaratu eban, bere politikazko errege ekintza aurkezteko, Frantziari esaten: oster a itzuli bear zirala erregetzaren al-osotasunezko jaurkintzara, 14 gizaldiko aurrerakuntzatik Frantziko ospagarria izan zalako.

1.795eko urte onetan XVIIIIn Luis, bere loba Maria Teresa espetxetik atarateko arduratu zan, bere langusu-anai Luis Antonio Angulemako dukeagaz ezkondu gure ebalako, Artoiseko kondearen semea zanagaz. Maltzurkeriz, bere aita-amaren gogoa zala esanda. Maria Teresak on artu ebana.

(1) Saboyako Maria Josefina = 1.753ko urtetik 1.810eko urterarte bizi zana. (2) Maria Josefine = 1.753-1.810eko urte bitartean bizi zana. Oso loa zala esaten dabe. (3) Motz edo itsusi = feo, deforme. (4) Aspergarri = aburrido. (5) Gran Maestre de la orden de San Lorenzo. (6) Beronako adieraztea = “La declaración de Verona”.

1.795eko urtetik ibili zan XVIIIIn Luis bere lobaren zainpeagaitik arduratuta, arik eta 1.795eko urtearen Abenduan tenpeltarren dorretik askatu eben arte. Luisek berak lortu ebena, 1.796ko urtean IIIn Franzizko Germaniako kaiserrak euki eban zainpe ori itzi ebanean.



XVIIIIn Luisen Jelbagako jauregia 1.798-1.801 eta 1.804-1.807ko urtetan.

1.796ko urtean Urtarrillaren illetik Maria Teresa au, Bienako bere senide Asburgoakaz egon zan bizitzen

1.796ko urtean alde egin bear izan eban XVIIIIn Luisek Beronatik, Napoleonek, Beneziako errepublikea menderatu ebanean.

Eta XVIIIIn Luisek Beronatik urten bear izan ebanean, Brunswikk´eko Dukadoan dagon Blankenburg´era joan zan. Emendik be anka egin bear izanda, Prusiano IIIn Guillermo il zanean.

Au ikusita Maria Teresak, apur bat geiago itxarotea erabagi eban, bere osabearengana joateko.

1.798ko urtean Errusiako I Pablo kaiserrak XVIIIIn Luiseri gaur Letonia dan Kurlandiaren Jelbagako jauregia eskeiñi eutson. Bai bere ziurtasun edo eskiertasunak ta diru laguntza aundia be, nai ta gero I Paulok diru ardura orreik bete ez.

1.798-1.799ko urte bitartean XVIIIIn Luisek, Maria Antonietaren bizi kondairazko liburu bat idatzi eban *“Réflexions Histoiques sur Marie Antonieta”*ren izena euki ebana.

Jelgabako jauregian egon zanean, Bersalleseko gortearen oiturak sartu gura ebazan.

Eta 1.799ko urtean Bagillaren 9an ezkondu zan Maria Teresa bere lengusu Artois´tar Luis Antoniogaz, Artoiseko kondearen Karlos´en semea zana. XVIIIIn Luisen alegiñagaitik, Jelgabako jauregian ezkondata, bere emazteari be aginduta, bera be joan zedin.

XVIIIIn Luisek, bere emazte Maria Josefinarekin bananduta bizi zan, au Schleswig-Holstein´en bizi zalako, baiña Kurlandiako ezkontza onetara, bere Margerite de Gourbillon betiko laguna⁽¹⁾ barik joateko agindu eutson. Nai ta Josefinak, jaramon egin ez.

XVIIIIn Luis erritarrai begira, beti alegindu zan esaten, bere emazteagaz alkar ta zentzuz bizi zala.

XVIIIIn Luisek, jakin eban bere loba Luis Antonio, bere emazte Maria Teresagaz ez zala alkargarri edo elkarkizunezkoa. A ta guzti berak, alegiñ aundiak egin ebazan bikote ori ezkondu zitezen. Zori-gaitzezko alkar bizi baten biurtuz gain, alaba-semerik ez ebena euki.

(1) Bere laguna, XVIIIIn Luisen maitalea zana.

1.800eko urtean XVIIIIn Luisek, Napoleonekin eskutitz bidez euki ebazan bere artu-emonak, Napoleon Frantziko lenengo kontsula izan zanean. Borboiak ostera ezarri egiezala Frantziko errege aulkian eskatzen eutson.

Napoleon ´ek baiña XVIIIIn Luisen esanari jaramon egin barik, bere ospea aundi-tzea baiño besterik ez eutson arduratzen.

Batera bere loba Maria Teresagaz be alegiñ asko egin ebazan, bere bizitza idatzi egian, gero berak Borboien zabalkunde lez erabilteko.

1.796ko urtean eta 1.803ko urtean, XVIIn Luisegaitik azkenean idatzi ebazan al-dizkariak be, alan edo bardiñ ibili ebazan.

1.801eko urtean Errusiako I Paulok kaiserrak XVIIIIn Luiseri, ezin zala bizi geiago Errusian esan eutson. Eta Jebalغان euki eban gortea ez ebalako dirurik euki, berak euki ebazan ondasun batzuk saldu bear izan ebazan, Errusiatik alde egiteko.

Maria Teresa berak be, I Paulo kaiserrak, bere ezkontzagaitik emon eutson ikatz-a-rrri edo saman eroateko lepoko arri-bizi ori be, saldu bear izan eban.

Maria Teresak, Prusiano Luisa erregeiña be limurtu eban, Prusiako lurraldeetan bizi al izateko, XVIIIIn Luisek onartu ebana.

Borboiak ortik aurrera baiña, beartuta agertu ziran, euren izenak barik, beste izen batzuk eroaten, adibidez: XVIIIIn Luisek, *“Konte de Lille”*, Langedok´en euki eban lur ondasunen izena, eta beste batzuetan *“Konte d’ Isle”* bezela.

1.801eko urtetik 1.804ko urteraiño, XVIIIIn Luisek bere sendiarekin, Prusiako ego lurraldearen Barsobiako urian dagon Lazienki jauregian ezarri eben euren bizi lekua, Jelgabatik urten eta nekagarritzko bidai bat eginda.

Eta orduko denboran bizi zan Wirydianna Fiszerowa´k idatzitako oroimenari esker, gaur dakigu, Borboiari arrera ona emoteko, eresi edo soiñuagaz gura ebala egin, eta gaiñera aberritzko zentzu apur bat emoteko, Frantziko leen Errepublikak ataratako *“Marsellesa”*-ren egin ebala. Gero aitzaki edo zuribide bat artu bear izanda, ankea ain sakon sartzeagaitik.

Eldu eta denbora gitxira oartu ziran, Errusiako I Paulo il zala.

XVIIIIn Luisek itxaropen aundiak euki ebazan, I Pauloren ondorengo, I Alejandro, bere aitak Borboiakin egin eban utzierak zuzendu egiezan. Eta alan bete ebazan utsun orreik geroago I Alejandrok.

XVIIIIn Luisek Napoleseko erregetza banandu gura eban.

Ingalaterrako IIIIn Jorje erregeak, onartu eban Artoiseko kondea bere lurraldeetan, eta onek kontu aundiagaz, diru apurbat bialdu eutson XVIIIIn Luiseri, auek Frantziko ertzaiñak zelatari euki ebazalako.

Artoiseko kondeak Luiseri eskatu eutson, bere seme Luis Antonio, bere emazte Maria Teresakin batera beragaz Edinburgora bialdu egiezan, oneik une orretan ez ebe-na egin.

1.803ko urtean Napoleonek, zirikitu eban XVIIIIn Luis, bere erregetzazko eskubi-deak itzi egiezen, Luisek ezetza emonda.

1.804ko urtearen Loraillan, Bonaparte´tar Napoleonek Frantziko Kaiserra izendatu zan.

Eta XVIIIIn Luis ta beren loba Sueziantza urten eben, berton egon ziran Artoiseko kondeakin eta Angulemakoko dukeagaz batera, Napoleonen aurkako aldarrikapen bat egiteko, beretzat, kaisartzaren erabagia artu ebalako.

Prusiako erregeak, adierazpen edo oiur-aldi bat aldarrikatu eban, XVIII In Luisen Prusiako lurraldetik urten egian.

Eta Errusiako I Alejandrok, osteratu deitu eutsen Luiseri, bere Jelbagako jauregian bizi zitezen.

Eta XVIII In Luisen, I Alejandrogaz, I Paulo bere aitarekin baiño txarrago bizi izanda, Ingalaterrara joateko itxaropendu zan.

XVIII In Luis, erbesteratze luze baten egonda konturatu zan, frantzezak ez ebela onartuko, lenauko erregeak euki eben alosokerizko jaurkintza ori.

Eta 1.805eko urtean, beste politika bat asi zan oldozten, bere erregetza berrezkuratzeko.

Eta len egin ebana, berak len idatzi ebazanak baiño, esku zabaleko idazkiak aldarrikatu, Beronako aldarrikapena baztertu, eta bearrezko gudaritza kenduz, eutsi I Napoleonek euki eban banakuntzazko ta epai-bidezko jaurkintza, zergak gutxitu, politikazko espetxetasunak ezereztu, eta barkamena bermatu edo gogortu Borbontar jaurkintzazko berrezkuntzaren alde izaten ziranai.

Onen adierazpenak, Antoine Louis, eta Besaide´tar François Abarayko kondearenak izan ziran geien, erbestean alkar egonda.

XVIII In Luis osteratu alde egin bear izan eban Jelgabatik, bere bizitza arrizkuan egon zalako Europako lurralde osoan, I Alejandrok esan eutsuenagaitik.

1.807ko urtearen Uztaillan, Sueziako fragat-ontzi baten igon eban Angulemako dukeagaz batera Estokolmora joateko. XVIII In Luis baiña, ez zan geratuko Suezian denbora askotan.

1.807ko urtearen Azaroan, Ingalaterrako Great Yarmouth, Norfolk´era eldu zan, eta berari Ritxard Tenple-Nugent-Grenbille, Buckingham´eko markesak alokatu eutsen jauregian ezarri zalako.



***Hartwell House jauregia, XVIII In Luis eta bere gorteak egon ziranak
1.808ko urtetik 1.814ko urterarte***

1.808ko urtean ekarri eban Europako urruntasunetik XVIII In Luisen, Maria Josefina emaztea, eta bera egon zan Gosfield Hall´etik, laster aldatuko zan Buckinghamshire´ko Hartwell House´ra bere gorteko eun lagunekin. Errege Luisen urtero ordainduta 500 libera Sir George Lee etxagunari.

Geiagu arduratu zana, Gales´eko printzea izan zan, gero Ingalaterrako IV In Jorje izango zan erregea, eten bageko iges-tokiaren eskubidea, diru laguntza aundiakaz batera.

Hartwel'en ez zana geratu, Artoiseko kondea izan zan, geiago gura ebalako Londresera joan.

1.809ko urtean XVIIIIn Luisen laguna, Abarayko kondea, Hartwell'etik urten eban Madeirara joateko, eta berton il zan 1.811ko urtean.

XVIIIIn Luisek ildako Abarayko kondearen orde, Pierre Louis Jean Kasimir de Blankas ipini eban bere leen aolkari lez.

1.810eko urtean Azaroaren 13an il zan XVIIIIn Luisen emazte, Maria Josefina.

Eta negu orretan XVIIIIn Luisek, oin-itoi edo oin-zainar'en miñ aundiak eukinda, txirrikazko eser-gaillu edo eser-toki⁽¹⁾ baten ipini bear izan eben.

1.812ko urtean Napoleon, Errusiako lurraldea asi zan erasotzen, porrot aundi edo zoritxar aundi baten amaitu zana Napoleonentzat.

1.813ko urtean XVIIIIn Luisek, Hartwell'en egoan lekutik, "*Hartwell'eko Adierazpena*" deituko zana aldarrikatu eban, 1.805eko urtean egin ebana baiño, askatasun geiagokoa izan zana, eta bertan esanda: Napoleon'ekin edo Errepublikako gudalozteetan egon ziran lerrotutako guztiak, ez ebela zigorrik artuko, bai ta alderantziz, leen lurraren etxagunak, ostera artuko ebezala "*Biens nationaux*" eko⁽²⁾ ekitaldietan kendu eutsoezan lurrak.

1.814ko urtearen Urtarrillan XVIIIIn Luisek ezin ebalako oiñez ibili, Artoiseko kondea bialdu eban Frantzira.

1.814ko urtean Epaillaren 31n sartu ziran alkartutako gudalozteak Paris'en, eta Napoleonek, Jorraillaren 11n siñatu eban bere agintaritzaren utziera.

Eta 1.814ko urtean Jorraillaren 16an XVIIIIn Luisek Frantziko erregetzaren aulkian ezarrita, nabarmeduzko⁽³⁾ agiriak zabaldu ebazan, Artoiseko kondea, erregearen orokorrezko ordezkoa lez izendatzen.

1.814ko urtean Loraillaren 3an Artoiseko kondeak, bere agintaritza itzi eban bere anaiaren eskuetan. Eta XVIIIIn Luis ostera Frantzira itzulita, erritarren aurrean agertu zanean, uritik eliz-bira baten antzerako ibilbidea egin eban, bere etxe-bizi lez Tulleriaseko jauregia artuta.

Napoleonek euki eban senatore-batzarrak, deitu eutson XVIIIIn Luiseri erregetzazko aulkira, berton baldintzatuko iraspen⁽⁴⁾ bat onartu egien: Frantziko kaisertza, Errepublikea, eta urte guztietan aldatuko zan aukeratuko batzar biko Lege-Biltzarra, eta iru margoko ikurriña.

XVIIIIn Luisek, aurka agertu zan senatore-batzar orren iraskundeagaz, eta frantzez erritarrai begituz, senatuko batzar orren ezeztasuna asi zan aldarrikatzen, Napoleonen denboran egin ebazanagaitik.

Burdeoseko antzokian egin zan batzarrean, senatore'aren iraspeneko araudien agiria erre eben, eta Lyon'eko udaletxearen arduradunak, senatu ori gaitzez aipatu edo beztu eben mintzaldikoak, txalotu ta euren autarkia emon eutsoen.

Paris menderatzeko alkartuta egon ziran indar aundiak, XVIIIIn Luiseri eskatu eutsoen, lege nagusien araudi bat irasi dagian.

XVIIIIn Luisek 1.814ko eskutitzagaz erantzunda, gauza barri asko ekarten ebana: erlijioaren askatasuna, diputaduen etxari eta bikoteen etxari⁽⁵⁾ bat, naiko askatasun

(1) Txirrinkazko eser-gaillu edo eser-toki = silla de ruedas. (2) Biens nationaux = tierras confiscadas a los nobles y el clero cuando la revolución. (3) Nabarmenduzko agiriak = distinguidos, destacados documentos. (4) Iraspen bat onartu egien = para que aceptara la constitución que ellos elaboraron. (5) Bikoteen etxaribat = cámara de los pares.

euki dagien aldizkariak, eta lur ondasunaren *Biens nationaux´ren lur jabedunak*, asken jabedunetan iraun dagiezen.

- Iraspeneko arau sorta orrek, 76 lege-gai euki ebazan.
- Salataritza, gizategi edo aretoagaitik autatuz, aukeratu bear zan.
- Katolikotasuna, Frantziko erlijio bakarra izango zan.
- Aldundiaren etxari edo aretoko batzarkide izateko, bakotzak zergatan, 1.000 franko baiño geiago ordaindu bear izan eban, eta 40 urtetik gora euki adiñetan.
- Erregeak, ondorengotasunean oiñarrituta egongo zan eran, aukeratu ebazan aldundiko etxari edo aretoaren bikoteak, euren bizi guztirako.
- Bost urteko apean aukeratuko ebazan Aldundiko batzarkideak, urte guztiko kopuruetan euren bostgarrena aukeratuta.
- 90.000 giza seme egon ziran autatzeko eskubideakin.
- 1.814ko urtean Loraillaren 30ean sinatu eban XVIIIIn Luisek Pariseko egiune ori.
- Frantziari, 1.792ko urtean euki ebazan lekurarte, mugak zabaldu eutsozanak, Ekialdetik Rin´erarte elduz.
- Frantziak, gudako borrokaren gostatik, ez eban ordaindu bear ezer, eta alkartuta egon ziran 6´garren egiuneko taldearen atzeritar gudalozteak, alde egin eben bereala frantzezaren lurraldeetatik.

- 1.815eko urtean eta Napoleonen 100 eguneko jaurkintzaren ostean, ez ziran izango bardiñak baldintza orreik, itzuli edo gainberatu ziralako.

Ez eban igaroko denbora aundirik, XVIIIIn Luisek bere eskeintzetatik damutzen astea. Bera ta bere Louis baroiak, au diru kontuaren orokorrezko arduraduna izan zanak, errien ondasunetik ez ebelako gura berago jausi dagian, Napoleonen jaurkintzatik 75.000.000 Frankoren zorrak euki ebazalako, berak baieztuta zor orrean ordainketak.

XVIIIIn Luisek, frantzezari agindu eutsoen, ke-belar, ardo, gatza eta errien nardazko zergak, kenduko ebazala, bera errege aulkira agoten ebanean. Baiña ez eban egin eban berak agindu eben bezela, eta matxintasunak sortu ziran Burdeoson.

1.815eko urtean gutxitu egin ziran gasto-kontutik Gudaloztearen eralgi edo igorpenak⁽¹⁾, 1.814ko gudaloztearen diru kopuruak gortearen jaurkintzarako % 55 izan zirelako.

1.814ko urtearen Loraillan XVIIIIn Luisek, Artois´eko kondea, eta bere lobak ziran Angulema ta Berriko dukeak artu ebazan bere aolkularitzazko taldean. Txarles Maurize de Talleyrand´ek bideratzen ebana.

XVIIIIn Luisek, ardura aundia euki eban Bienako Biltzarraren arduradunak egiten ebazan joan etorriagaitik, Napoleonek bere agintaritzazko utziera egin ebenetik, berton Europaren mapa barria egiten egon ziralako. Frantziko ardurak Talleyrand´ek eroanda.

Eta arrituta geratu zan XVIIIIn Luis, onek jakin ebanean, Prusiak euki zituzen go-goak, Sajoniako erregetza bereganatzeko. Bere ama, Sajoniako printzea lez jaio zalako, eta berak bildurra euki ebalako, ia Prusiak, Alemania be berentzat artzen ba eban.

Luisek, bai gura eban be, Parmako dukadoa, ostera joan dagien parmesar Borboien eskuetara, eta ez Frantziako Maria Luisaren eskuetara, alkartekoak alegintzen ziran lez.

Eta Luisek orrez gaiñ be, elkartekoak, Napoles´egaitik ez ebelako egiten ezer, aurka egon zan, berak Napoleonekin keintzaile edo indar-lapur lez ibili zan Joakin Murat, kendu gura ebalako Napolesetik, Napoleseko erregetza Borboien eskuetan izteko.

(1) Gudaloztearen eralgi edo igorpenak = gastos del ejército.

1.815eko urtearen Otsaillan alkarteen izenean Austriak, Murat´ek, oso debekatuta egon zan Napoleonekin artu emonetan ibiltzen zala, jakin ebenean, on artu eban Napoleseko erregetzara gudalozte bat bialtzea Murat bere lekutik kentzeko.

Murat´ek egia esanda, sekula ez eutson idatzi eskutitzarik Napoleoni, XVIIIIn Luissek baiña, Borboiak ostera Napoleseko jaurkintzan ipinteko edozein diru edo beste gauza bategaitik, eskutitz orrekin kontua atara eban eta Austriako gudalozte orreik bialtzea berak ordaindu ebazan 25.000.000ekin.

XVIIIIn Luisek, lortu eban Napoleseko erregetzan ostera Borboiak ipintea. Parmako dukadoa baiña, kaisar-andrea izan zan Maria Luisarengana joan zan bere bizi guztirako, eta Parmako Borboiari, Lukka´ko dukadoa Maria Luisaren eriotzerarte.

1. 50. *Napoleonen, jaurkintzazko 100 egunak.*

1.815eko urtean Otsaillaren 26an Napoleonek, Elbako ugaratean espetxeratuta egon zan lekutik alde egin eta Frantzira joanda, Epaillaren 1´ean Kannes inguruan agertu zan 1.000 gudariek.

XVIIIIn Luisek arduratuta egon arren Napoleonen itzultzeagaitik, bere buruan oldoztu eban, indar gixkiko gudalozte bategaz naikoa zala Bonaparte ori menderatzeko.

Baiña, Borboiak beti euki eben itzitasunezko arazoa agertu jakon XVIIIIn Luiseri, eta ez ebalako kontuan artu, gudalozteko gudari geienak Napoleonen aldekoak zirala, auek talde aundiko iges-aldietan joan ziran Napoleonen gudaloztera.

Beste aldetik XVIIIIn Luisek ez eben aukerarik euki Napoleonen aurka joateko, berak anketan euen oin-zainarren eraso gogorra euki ebalako.

Eta gudarako ministru edo arduradun nagusiak Soult mariskalak, Orleanseko dukea Luis Felipe gero errege izando zana I Luis Feliperen izenakin, Artois´eko kondea, eta Mak Donald mariskala bialdu ebazan Napoleonen gudalozteak geratzen.

Eta XVIIIIn Luisek, Napoleonengaitik euki eban iritxi gutxia ekarri eutson ondarena.

1.815eko urtean Epaillaren 19an Parisen kanpotik egon zan gudaloztea, Napoleonen gudaloztera aldatu zan, Uria babes barik itzita. Eta egun orretako gau-erdian, XVIIIIn Luisek gudari batzuekin alde egin eban lenengo Lille, eta muga aldatuz gero Olandako erreinu batueneko Gantera joateko.



Waterloo´ko borroka

Eta Europako beste agintariak, Errusiako I Alejandroren aldekoak ziranak, euren artean oldozten ibili ziran, Napoleoneri irabazita gero, XVIIIIn Luis kenduta, ez bazan obe Orleanseko dukea ipintea, Frantziko erregetzaren aulkian.

1.815ko urtean Bagillaren 18an Napoleonek baiña, ez eban Frantzia jaurkituko denbora luzean, Wellington dukea ta Blützer zelaiko mariskalak, Wuaterloo 'ko borrokan menperatu ebelako. Elkartekoak alkar izketa bidetik, XVIIIIn Luis oster bere ezar lekuan ipini bear zala erabagita.

1. 51. XVIIIIn Luisen, bigarrenezko jaukintz taldea.

XVIIIIn Luis, laster agertu zan Parisen oster be, bere bigarren jaurkintza beteteko, eta Wellington 'en gualozteak oraindiño Frantziko lurraldean egon ziranakaz baliatzeko.

Eta Wellington 'ek bere aldetik, Luis erregeagaz baliotzeko, oraindiño Paris 'eko bidetik mendetu barik egon ziran gatzeluak menderatzeko, auek ez ebelako gura Wellingtoneri etsaimendu, XVIIIIn Luiseri baiño.

1.815eko urtean Bagillaren 26an XVIIIIn Luis Kanbraiera eldu zan, eta erritarrai aldarriketa bat eginda: 100 eguneko borrokatan Napoleonegaz ibili ziranai, ez eutsoela jarraiketarik egingo, aurrean zirikatzaile ibili ziranai izan ezik.

XVIIIIn Luisen jaurlaritzakoak be, onartu eben euren anka sartzeak leenengo berregintzan⁽¹⁾.

1.815eko urtean Bagillaren 29an, Aldundiko bost batzarkide eta Pares 'eko⁽²⁾ aretokoak urbildu ziran Wellington 'eri esaten: ia ez bazan obe, Europako printze bat ekarri eta bera ipini XVIIIIn Luisen ordezt.

Wellingtonek, ezetza emon eutsoen arduradun orrei, eta bide batez esan be: XVIIIIn Luis izan zala onena Frantziaren osotasunerako, ta Wellington berak, agindu eutsoen diputaduari, erregearen alde jokatu egien.

1.815eko urtean Uztaillaren 8an sartu zan XVIIIIn Luis Parisen, mugikor edo eziñ egoneko ta zaratatsuzko arrera eukinda. Tulleriaseko jauregiaren baratza 'k, gizon emakumes beterik egonda, eta Wellington dukearen esanagaitik, oiuek aldarriak ain zaratatsuak izan ziralak, erregeagaz ezin zala berbarik egin gau orreitan.

XVIIIIn Luisen 100 egun orren ostean bere borondatez, euki zituzen zeregiñak gitxitu ebazan, aolkularitzazko batzarkideari emonda lan geiena.

1.815eko urtearen udan, bera ta bere ministruak, jaurlaritzaren aldakuntzan asi ziran, eta erregearen aolkularitza, ministru talde bategaitik aldatu eben, onen aolkua, aolkularitzazko talde aundi ori kendu, ta ordezt talde txiki bat ipinita. "**Ministère de Roy**" deituko zana.

Artois, Berry, ta Angulemeko dukeak kendu ebazan Ministère de Roy 'tik, eta Teyllerand izendatu eben aolkularitzazko lendakari, edo Frantziako leen ministru lez.

1.815eko urtean Uztaillaren 14an ministruen batzar nagusiak, gualoztearen buruz, matxinatzeko euki ebazan taldeak kendu ebazan, eta erregearen eskaera bidez Teyllerand 'ek, ondorengo andimandiak edo zaldunak berrezkuratu ebazan euren lengo bizi erara.

1.815eko Dagonillan, diputaduen aretoko auteskundeak, Teyllerand 'en aurkakoak agertu ziran.

(1) Leenengo berregintzan = primera restauración. (2) Pares 'ek edo Pairs = Ingalaterran Lores 'en aretokoak ziranak Pairs auek 740 batzarkideak ziran, eta Frantzian Par o pares deitzen ziranai XIIIn gizalditik 12 bikotegaz osotzen zana: sei eleiztar eta beste sei erritar, Iraultzak ezereztu ebana. Eta XVIIIIn Luisen berrezkuratu ebana, erregeak bakarrik eukinda areto orren sorraldia, Frantziko leenengo aretoa (cámara) izanda.



Artois'eko kondea, gero X Karlos izando zana, monarkikos'en, edo eskuintar gogorrenaren buruzagi biurtu zan Luis erregea bere anaiaren aurka.

Teyllerand'ek, zentzudunezko dipitaduak aukeratzea gura ebazan. Autesleak baiña, monarkiko gogorrenak aukeratu ebazan, eta Angulemako dukesa Artois'eko kondeagaz batera, Luis erregea premiatu eben, Teyllerand kenduteko bere lan lekutik.

Eta 1.815eko urtean Iraillaren 20an Teyllerand'ek, bere uko-agiria aurkeztu eutsen Luis erregeari.

XVIIIIn Luisek Ritxeliu dukea aukeratu eban lenengo ministru lez, atzerakoi⁽¹⁾ eta bere sendiagaitik onartua izan zalako.

Napoleonen aurkako sendimendu oso gogorra izan zan Frantziaren ego-aldean, zurizko ikaran biurtuko zana⁽²⁾, Napoleonegaz egon ziran erritarrak, jaurritzeko edo zuzentzen egon ziran euren ardurazko lekutik kendu eta askori lepoak moztu eutsoenean.

Frantzezak, gogorkeri aundiak egin ebazan erria jaurri egiten ebazan batzukaz, adibidez: Gillaume Marie Anne Brune Napoleonen mariskala izan zanakin, basakeriz il ebalako, eta beren gorpuko zatiak, Rodanoko ibaira bota ebazanean.

XVIIIIn Luis, basakeri onen aurka urten eban, baiña lagundu be eutsoen, euren atzean ibili ziranai.

1.815eko urtearen Abenduan, XVIIIIn Luisen jaurkintza, Napoleonen mariscal audiena, **Ney Mariskala** be il eben, saltzaille lez salatuta. Erregearen leialak, Txarles François, Bonnay'ko markesa, ta Txatre'ko dukeak, saltzaille edo Napoleoneko aldekoakin esku gogorra ibiltzeko aolkatu ebalako.

XVIIIIn Luiseri naska emoten eutselako ainbeste odolezko eriotz, gogorkeriz ibiliten ziran eskumatar diputaduak, samindu edo asarratu egiten ziran, erregeari esanda, ez ebalagaiten naikoa orreina aurka.

1.815eko urtearen Azaroan XVIIIIn Luisen gobernuak, beste Paris'eko ongunde bat sinatu bear izan eban, Napoleonen 100 eguneko jaurkintzari amaiera emoteko.

Eta 1.816ko urtearen Urtarrillan Frantziko gobernuak, parkamena aldarrikatu eutsen saltzaille edo Napoleonen aldekoai, nai ta asita egon ziran epaiketak aurrera egin, arik eta amaitu ziran arte.

(1) Atzerakoi = reaccionario, que es propenso a restablecer lo abolido. Reacción absolutista = se conoce con este nombre, al movimiento político, cuyo objetivo era el derrocamiento del régimen constitucional implantado en España tras el pronunciamiento de Riego en Cabezas de San Juan en 1.820. Obtuvo el apoyo de la alianza que en 1.823 envió tropas conocidas como "Los cien mil hijos de San Luis". (2) Zurizko ikaran biurtuko zana = que se convertiría en el terror blanco.

Aldarrikapen orreitan be esanda, Bonapartearen etxekoari, debekatzen jakiezala ondasunak eukitea edo Frantziko lurraldetan sartzea. 50.000tik-80.000era giza semeak izan ziran garbiketa orreitan kendu ebazanak. Bigarren zuritzezko ikara deitu jakonari.

Parisen ariñago sinatu zan ongundea, Frantziaren alde agertu zan, onek baiña beste itxura gogor bat artu eban.

Frantziko mugak gutxitu ziran arik eta 1.790eko urtean euki ebazan arte. Frantziak ordaindu bear izanda, bera zaintzeko euki ebazan alkartearen gudaletzek, 150.000.000 franko urte bakoitzagaitik. Eta lagundu eutsoen elkartekoai, beste 700.000.000 franko.

1.818ko urtean jaurkintzazko diputaduen aretoak beste militar lege bat sinatu eben, gudaletzekaren gudari kopurua 100.000 giza semeakaz aundiagotzeko.

Eta 1.818ko urtearen Urrillan Ritxeliu dukea leen ministruak, lortu eban egon ziran gudaletzekaren agintariak eskuratu edo limurtzea, len bai lent atara egiezan euren gudaletzek Frantzitik, 22.000.000 frankoen orde.

XVIIIIn Luisek, ainbat erdirakoi gobernuak aukeratu ebazan, erritarrak bakeztu gura ebalako, bere anai Artoiseko kondea Karlos'en aurka, onek alosokerizko erregetza gura ebalako.

Eta beldurra euki eban Luisek, bere eriotzaren osterako susmotsu egoalako, alango gauza bat egingo ebalako, Borboientzat oso txarra izango zana. Eta alan gertatu zan.

XVIIIIn Luisek, ez eban euki begiko bere odolezkoa zan Orleans'eko Luis Felipe, eta beti egoan prest zeozegaz zirikatzeke, adibidez: Jaun Andi errege deitzeko. Iraultza denboran bere aitak, XVIIn Luiseri lepoa moztuteke, baiezko autarki edo bozka emon ebalako.

1.820ko urtean Otsaillaren 14an XVIIIIn Luis erregearen loba, Berry'ko dukea, Paris'eko eres-antzerkian il eban. Oso minduta egon zan bere senidetasuna eta XVIIIIn Luisek, antziñako oitura bat apurtu eban beren eleizkizunetara joateagaz. Frantziko erregeak ezin ebelako euki edozelako artu emon eriotzagaz.

Berry dukearen ilketa, ateak zabaltzen eutsezan Orleanseko etxeari. Baiña Berryko dukea izan zan bakarrik semea euki ebana bera ilda Iraillan jaio zan Enrike Burdeoseko dukeagaz. *"Dieudonné"* esango jakonari⁽¹⁾. Eta Borboiak pozik oldozten ebelako, beragaz konponduta geratzen zala euren erregeen ondorengotasuna. Nai ta ondorengotasun ori zalantzan egon.

Diputaduen aretokoak, salikako legea aldatu gura eben, Angulemako dukesa erregetzara igon egian.

1.820ko urtean Bagillaren 12an, jaurkintzazko aretokoak lege bat atara eben, diputaduen kopurua 258kotik 430ekorarte aundiagotzen ebena.

Geigarritzko diputadu oneik, laurenengo erriko aberats aundiagaitik aukeratutakoak izan bear ziran, areto bakoitzarentzat. Lege orregaz aukeratutako diputadu oneik autarki bi eukinda.

XVIIIIn Luis eta "autarki bien legea ezarri zanetik", ostegun guztietan Zoe Talon Andrea artzen ebala bere gelan, danari debekatuz sarbidea gela orreitarra. Eta surmur bidez jakin zan, Zoe Talon'en bulerretik ats edo arnasketan artzen ebala ke-belarra, *"tabatière"*⁽²⁾ deituta ortik aurrera.

1.823ko urtean Frantziak, VIIIn Fernandori laguntzen espainitarren artean mantxintasun bat sortu zalako, gudaletze bat bialdu eutson Angulemako dukearen agindupean arik eta amaitu edo bakeztu zan arte.

(1) Dieudonné = dado por Dios. (2) Tabatière = caja de rapé.

1. 52. *XVIII In Luisen eriotzea eta ondorengotasuna.*

1.824ko urtearen udabarrian asi zan XVIII In Luisen osasuna berantza egiten. Loditasuna, oin-zainar edo oin-itoi, eta satar edo arat-ustelaren gaitzaldi edo gaixotasunak euki ebazan.

1.824ko urtean Iraillaren 16an il zan XVIII In Luis, eta Saint-Denis´eko eleiz nagusian obiratu eben.

1.824ko urtean Iraillako 20an koroatu eben errege bere anai Artoiseko kondea Xn Karlosen izenarekin.

Eta X Karlos, matxinatuak errege aulkitik bota ebenean, bigarren errepublikea sortu zan, eta errepublika au be III In Napoleonek zirikituta laterriaren aurka matxinatuz, Frantziko bigarren Kaisertza sortu eban, Xn Karlos bera Kaiser-Jaun lez izenduta.

III In Napoleon´i, franko-prusianoko borroka ostean kendu eutsoen kaisar jaun ezar lekutik, Frantziko batzar nagusiak “Irugarren Errepublikea” izendatuta.

Errepublika onen agintari guztiak kendu ebazan euren agintaritza amaitu orduko, arik eta 1.906ko urtean Emile Loubet kendu, eta Armand Fallières ipini arte.

1.53. *Frantziko Xn Karlos.*

1.757ko urtean Urrillako 9an jaio zan Frantziako Xn Karlos au Bersalleseko jau-retxean.



Charles X



Xn Karlos koroatuteko jantziakaz. Bere izenpea ta armarrria.

Eta 1.836ko urtean Azillaren 6an Italian Friuli-Beneziako Gorizian⁽¹⁾ edo Ilirian⁽²⁾ ilda.

1.824 eta 1.830eko urte bitartean Naparroa ta Frantziaren erregea izan zan, baita Frantziak euki eban askeneko Borboi errege eta Frantziak koroatu eban eskeneko erregea be.

XVn Luis eta bere emazte Poloniako Leszczyńska-tar Mariaren biloba zan, eta Frantziko erregetzaren ondorengoa zan Luis Artoiseko kondea eta bere Alemaniako emaztearen Sajoniako Maria Josefaren semea, eta XV In Luis eta XVIII In Luisen anaia. Ondorengoa izan arren, sekula ez ebena igon erregeen aulkira.

(1) Italian Friuli-Beneziako Goirizian jaio = limítrofe con Yugoslavia, capital de ésta provincia. Hasta la primera guerra Mundial perteneció a Austria, después de la segunda, Yugoslavia se anexó sus barrios orientales. (2) Iliria = región de Europa antigua, en la costa oriental del Adriático, correspondiente a la actual Dalmacia (Yugoslavia) y parte de Albania, y se extendía por el S. hasta el épiro.

1.761eko urtean Urrillaren 19an bateatu eben. Egun bat beranduago XVIIn Luis eta XVIIIn Luis bateatu egin ebazanetik.

1.773ko urtean Azaroaren 16an ezkondu zan, Saboiako III Bitor Amadeo ta Borbon´tar Maria Antonietaren alabea zan Maria Teresagaz, lau seme-alaba eukinda:

-1.775-1.844ko urte bitartean bizi zan Luis Antonio Angulemako dukea, beren lengusiña Frantziako Maria Teresa XVIIn Luis eta bere emazte Maria Antonietaren alabea zanagaz ezkondu zana.

-1.776-1.783ko urte bitartean bizi zan Artois´eko Mademoiselle´tar Sofia.

-1.778-1.820ko urte bitartean bizi zan Karlos Fernando Berriko dukea, leenengoz Ingeles neska bategaz ezkondu zana, eta bigarrenenez, Bi-Sisiliako Borbon´tar Karolinagaz.

-Eta 1.783ko urtean ume il zana, Maria Teresa.

X Karlos, Bastilla artu zan orduko atzerriratuta egon zan Artoiseko konde au, iraultzaren aurkako ikurra irudizkatzen eban gizona zan, urte askotan Ingalaterran bizi izan bear izanda, arik eta I Napoleon menperatu ebanean, XVIIIn Luis Frantziko erregetzara igon arte.

XVIIIn Luisen erregetzan, Artoiseko Karlos onek, eskubitarren-ertzerakoi sutsua zan, izil izilean erregezaletasunezko gogorrenak bideratzen ebazanak⁽¹⁾.

Bere anai XVIIIn Luis alderantziz, I Napoleonegas ibili ziranai parkatu eutsoen, berak bitartez, euren aurka zigor geiago eskatuta, Zurizko Ikarari ate gustiak zabalduta⁽²⁾.

Ertzezko monarkiko auek, gero ta aundiagotzen joan ziran, eta erregearen gaitzaldia aurrera joan zan bitartez, gauza geiagokin arduratzen ebazalako, Artoiseko konde onek artu eban almena aundia izan zan.



Xn Karlosen koroatzzea.

Errege talde onek bere mailla aundienera igonda XVIIIn Luis il zanean eta Artoiseko kondea errege egin ebanean Xn Karlosen izenakin.

1. 54. *Frantziko Xn Karlosen koroatzzea.*

1.825eko urtean Loraillaren 29an Reinseko Eleiz Nagusian koroatu eben Xn Karlos, eta errege au izando zan Frantzian azken koroatuko ebena. Erregetza au, dirudunaren Jauntxoakaz euki zituzen eztabaida gogorrekaz ezagutuko zan.

(1) Erregea baiño monarkikoa zala, beragaitik esaten eban. (2) Zurizko Ikarari ate guztiak zabalduta = Abriendo de par en par las puertas al Terror Blanco.

Xn Karlosek, alosokeriagaz eta ertzezko-errege zaletasunagaz euki eban naikeria gogorra zan, eta orregaitik ez eban euki lekurik Frantziko erakundeetan, nai euren aldekoak izanda be, artegatasun aundiak sortuz Karlosen taldeetan, euki ziruzen auteskundeetan iruzur edo maltzurkeriz ibilita.

Xn Karlosen alosokerizko politikak, XVIIIIn Luisen erregetzazko denboratik ministru lez lan egiten ebanak *Billele'tar Jean Batiste* lenengo ministruak ibiltan ebanak izan ziran, Xn Karlos berak emonda XVIIIIn Luis il zanean, Karlosek Diputadu ta Pares'eko batzodekoak baieztea gura ebalako.

Lege oneik baiña, erritarren guztiz aurkakoak ziran, apaiz, Zaldun edo ta Andikien maillak goraltzeko izan zirelako geien.

1.825eko urtean, erritarrak gorroto aundienan euki ebazan legeak onartu ziran, lekaide, apaiz, eta jauntxoai, iraultzako denboran kendu eutsoezan lurraldeak ostera emoten eutsoezelako.

1.825eko urte onetan atara eben donauzte edo sakrilejioaren aurkako legea, eleiza-ren aurka egiten zan edozer gauzagaitik. Sutan ipini ebazana erritar ta politikuak, asperkeri edo mendeku lez ibiltan ebazalako euren liberalaren politikazko etsaien aurka.

1.827ko urtean ikusiko zan artegatasun ori, Xn Karlosek Frantziko Aberriaren Zaiñari, ikustaldia egiten egon zanean, gudari auk euren aginduko nagusiari jaramon egin barik, erregeari, iraiñ edo aupada, keiñada ta zemankutzaka asi jakozenean, Xn Karlosek, ariñeketan alde egin bear izanda andik.

Andik egun batzura Xn Karlosek bildur, beragaz gudari orreik egingo ebenagaz, guda talde ori, ezereztu dagiela agindu eban, argi ikusita bere erregetza ez ebela balio gauza andirik, ez eta indarrik be ez ebelako euki, gudari orreik izkillu barik izteko.

1.827ko urte onetan ikusiko zan argi, Xn Karlosen erregezko makaltasuna, Aberriaren Zaintzariakaz sortu zanagaz.

1.827ko urtearen Azaroan, ertzezko-erregetzaren zaletasunezkoa zan Billele ministruak, auteskundeak galdu ebazalako, ministeritzan lekua itzi bear izanda, Xn Karlosek narda edo gorrotoan euki eban Martignak'tar JEAN-Baptisteri. Nai ta Xn Karlosek ministru au, joankor edo iragokor-gauza txar bat zala danari esanda.

1.829ko urtean Xn Karlosen azpi-jokoagaz, Martignak'tar Jean-Baptistek itzi bear izan eban bere leen ministruaren lan postua, ertzezko-erregeen zaletasunezkoa zan Polignak'tar Jules'eri, Xn Karlos erregearen lagun aundia zana, lan Portu orretan ezarri edin.

1.829ko urtean Dagonillaren 30ean, Polignak'en ministru postura eltze orrek, urte ta egun onetako auteskudeakin alkartu ziran, ertzezko-erregearen zaletasunezkoak galduta, galdu be egin eban lege-etxearen kontrola eukitea.

Euren eskuma kide izan zan Txateaubriand'ek, ez zalako pozik egon Polignak'en aukereagaitik, bertan itzi ebalako eskumatar talde ori gutxiengoeko aukeran itzi ebalako.

Eta Polignak eta Xn Karlos erregea 1.830eko urtearen Epailararte gitziendiz, beste auteskunderik ez dagian egin asi ziran antolatzen, jakin ebelako liberalak, euren aldeko legeak ibili zirala antolatzen.

1.830eko urtearen Urtarrillan Xn Karlosek, Hussein Dey Argeliako erregeak, bere ordezkoa atara ebalako Argeliako lurraldeetatik, guda aurkeztu eutson Hussein Dey erregeari, geien bere Frantzez erritarrak euki ebazan arazoetatik aorkabetzeko itxaropenagaz.

1.830eko urtean Epailaren 2an Xn Karlosek ez ebalako beste biderik euki, legeko-etxeak batu bear izan ebazan, lege-aldiari asiera emoteko.

Danak uste eben Xn Karlosek, urte orren jaurkintzaren asiera edo bere sarrerako berbaldian, bakezale, mintza-errez, eta zentzudun agertuko zala, eta guztiz aldentzizkoa urten eban, bere Polignak ministrua goralduz eta bere politikaren aldeko berbak esanda.

Liberal diputadu guztiak aserretu ebazan lez, auek 1.830eko urtearen Epaillaren 18rako batzar barri bat eskatuz, agiri bat auterpendu eben, erregearen ministruak eta euki zituzen gobernuko gelak, lege-etxearen baietza euki dagien.

Eta errege ta bere taldekoak, egun bat ariñago jakin ebelako liberalaren alegiñak, orokorrezko auteskunde barriak eskatu ebazan 1.830en Uztaillarako, 1.830eko urtean Epaillaren 19an Xn Karlosek, lege-etxe ta gobernuko gelak ezereztu ebazan. Erritar eta danen asarrea, ezin besterañño igon eban.

Xn Karlosek, au ikusita eta uste ebalako auteskundeetan porrokaldi edo ederrak Arturo ebazala, ez eban euki zalantzarik, Bagillako 23an asi ziran auteskunde orreitan susurra sartu edo autespeneko autapide orreik naastuteko.

1.830eko urtean Uztaillaren 6an eta Xn Karlos erregeak ilusita bere politikasko egoera txarra zala, Polignak bere ministruak alegindu eutson, konstituzioaren 14ko lege-gaia eskatu egiala, erregeari gertakizun orreitan, almen osoa emoten eutsolako.

Xn Karlosek, auteskunde barri batzuk gura ebazan egin, bere ondoreak nastu gura ebazalako bere alde, autesleko maietan bere aldela erregeen ertze-zalezkoak ipinita.

Eta Xn Karlos onek, Frantziko aberriari egineko matxinada orregaz bakarrik egokitu bazan, baleike garaipendun urtetea, baiña bere ministru Polignak egaitik aolkatuz, euki eban aolkularitzazko ministru taldeak Uztaillan idatzi ebazan lau lege-agiriak berri idatzi ebazan: -Aldizkarien askatasuna ezereztu egiten ebana.

-Diputaduen lege-etxe barria ezereztuten ebana.

-Autespeneko legek aldatu.

-Eta Iraillarako euteskunde barriak deitu. Polignak ek neurri oneikaz uste ebalako irabazi egiten ebela.

55. *Uztaillaren iraultza.*

1.830ko urtean Uztaillaren 25ean Xn Karkos erregeak, Saint-Kloud'eko Txa-teau'n sinatu ebazan aginduko legeakaz, erabaki edo garbitu egin ebazala, berak sortu ebazan Politikazko larri-aldiak.

1.830eko Uztaillaren 26an Frantzez Laterriaren Aldizkarian argitaratu ziran aginduko lege orreik, Peris'eko erritarrak arrituta itzi ebanak.

Eta lenengoetan, erritarrak emon ba eben bakezko itxura antzeko bat, laster konaturatu ziran ez zala alakorik gertatzen, kentzeko aginduta egon ziran liberalaren aldizkariak Thiers'tar Adolphe'k bideratuta, laster asi ziralako matxintasuna eskatzen, erregeak ezarri gura ebazan legearen aurka.

1.830eko Uztaillaren 26ko arratsaldean, Frantziko Iraultzaren irudzko-tokia zan Royal-Palais edo Royal-Jauretxeko lorategietan asi ziran batzen erritar pilloa, "*Kanpora Borboiak*" eta "*Gora Konstituzioa*" aldarrikatzen. Gau orretan Uri zaiñak lorategi orren ateak sarratuta, eta berton izan ziran erritarrak, alboko keleetatik zabalduz bu-ruak ondo berotuta eukiezala.



Delacroix'tar Eujenek erritarrak bideratzen.

1.830eko urtean Uztaillaren 27an erri zaiñak, oraindiño zabalik eta lanean egon ziran aldizkarien lantegiak, zarratu ebazan, eta barri ori erritarren artera agertu zanean, erritarrak **"Royal Jauretxeko"** lorategiak ostera artu ebazan, eta Xn Karlos beldar matxinada orregaz, erritarrak bialdu egiezala agindu eutsoen an egon ziran gudariai.

Eta erritar batzuk, gudariai bota eutsoezan arri ta tiroagaitik, gudariak eurak asi ziran tirota erritarren aurka, Uztaillaren 28an erritarrak, kale guztietatik kale-zoztor edo kupel-babesak asita ipinten.

Xn Karloseri, larri egoera onen bururako, ipini eban Marmont mariskalak esan eutson, erritarrakaz adiskidetuegiala, zabaldu ebazan lege-agiriak ostera ezereztuta.

Xn Karlosek baiña, ez eutson jaramonik egin eta erriagaz egon ziran Marmont'en gudariak, anka egiten asi ziran.

Marmont mariskalaren egoera larria zan, Xn Karlosek erritarrai tirokatu egiazala agindu eutsoenean, eta erritarrak euren izkilluakaz, babestu egin ziran kaleetatik ipini ebazan kale-zoztor eta kupel-babesaren ostentan, Marmont mariskalari bere gudaria-kin atzerazotuta Tulleriaseko Jauretxeraifio.

1.830eko Uztaillaren 28an bien bitartean, Lege-Biltzarraren diputaduak, Puyrabeau'tar Audrey'en etxeko batzarrean erabagita, ordezeko talde bat bialdu eutsoen Marmont'eri, onek Xn Karlos limurtu egien, argitaratu ebazan lege barri orreik ezereztu egiazan.

Marmont'ek, Tulleriasen egon zan Polignak ministrua eskuratu gura eban, onek baiña ezetza emon eutson.

Eta egoera ori gero ta larriago biurtzen zalako, Xn Karlosek erru guztia ministruari bota eutsoen eta danak kendu ebazan euren lan postuetatik.

Xn Karlos bere itsukerizko ekintza orregaz ez zan konturatu, ertzezko-erregeen zaletasunezkoak ezereztu egiten ebazala, eta laguntzabarik geratuta, berak arindu eban bere erregetzaren amaiera.

1.830eko urtean Uztaillaren 30ean Lege-Biltzarraren diputaduak, Lafitte'tar Jakkes'en etxean batzartuz eta gero Bourboneko Palais'en, ez eutsoen agintasunik erregeari ontzat artu, eta Igualdad'tar Felipeen seme, eskumatar liberalaren aldekoa zan Orleans'tar Luis Feliperi deitu eutsoen, Frantziko erregetzaren ordegotza ori eroan dagian, Pares'eko Lege-Etxe Diputaduen baimenakin.

Erritarren artean zabaldu ziran agiriak, Xn Karlos berakada argituten, onen poz aundiagaz.

Eta 1.838ko urtean Uztaillaren 31n, erregeak alde egin bear izan eban Saint-Kloud´eko jauregitik, erritarrak gaztelu edo Jáuregui ori saskiltzen joan ziran bitartean, eta Bersalleseko jauregian babestuta, asken alegiñak egin ebazan bere erregetza ostera berrezkuratzeko, une orreitan Luis Felipe Parisen sartzen egoala, Lege-Etxeko Diputaduak eskeiñi eutson orokorrezko errege ordegoaren zeregiñ ori beteteko.

Xn Karlos erregearen laguntzak aienatu ziran, eta an egoan bera aitu ezinik, erregetzatik kendu ebala.

1.830eko urtean Dagonillaren 2an matxinatuak, Ranbouillet´eko jauregian beartu eutsoen babesa artu egian, eta egun orretan erregearen alde egon ziran iru talde erregeen gudariak, berta itzi eban.

Xn Karlosek euki eban babes guztia galduta eta erritarrak keiñatzaille euki ebazala, bere seme Borbon´tar Luis Antonio Angulemakoko Dukearen eskuetan itzi eban erregetza, eta beartu eban bera be, bardiñ egiela, 12 urte euki eban bere lobaren Artois´tar Enrike Burdeos´eko Dukearen alde.

Xn Karlos´ek eskutitz bat bialdu eutson bere lengusu Luis Feliperi, Burdeoseko Dukea errege egiteko.

Eta 1.830eko urtean Dagonillaren 3an Orleanseko Luis Felipek, Lege-Biltzarreko Diputaduei, errege utzieraren berri orreik emonda, eta Orleanseko Dukea errege egin barik, Karlosen sendi guztia, etzerriratu eban, erritarrak izkilluakaz tresnatuta.

Legezko Biltzarrekoak berriztu eben 1.814ko konstituzioaren arau-atalak, eta Frantziko erregetza erre-bagekoa aldarrikatuz, Orleanseko Luis Felipe ipini eben errege lez, I Luis Feliperen izenakin.

1.830eko urtean Dagonillaren 16an eta Luis Felipeen aolku bidez, Karlosen errege sendia Ingalaterrara bialdu eban, berak emoneko igaro-bide edo igaro-txartel bategaz.

Ingalaterrako gortekoak, Xn Karlosen izaeragaitik nazkatuz, Uritar lez bizitzeko baime-na bakarrik emoten eutsoela esa eutson. Baimen ori Dorset´en bizitzeko bakarrik emonda.

1.831eko urtearen Urrillan urten eban Ingalaterratik Eskoziako Edinburgon babestuteko, urte osoa berton emonda, bere senditar batzuk zirikituz, bere erregetzaren eskubideak, Vn Enrikeen ama Berriko dukesaren eskuetan itzi egian.

1.832ko urtean Xn Karlosek, onartu eban Austriako errege I Franzizkok, Pragan bizitzeko egin eutson deari. Berton, Frantziko Uztaillaren iraultzatik alde egin eben ainbat Borboi-Lege zaletasunekoai artuta.

Bere askeneko urteak, Austria-Ungriako lurraldeetan egin ebazan, beti zentzunbageko azpikari lez aldarrikatzen, Borboi leiñu edo etxearen alde.

1.836ko urtean Azillaren 6an Ilirian, Pragako Hradkkin jauregian il zan Xn Karlos, beazun edo gibel-ur beltz´ezko gaitzaldiagaz.

1.56. *VIIIn Fernando.*

VIIIn Fernando, “*Naigarria*” edo “*Itz-usteleko Erregea*” ⁽¹⁾ deitzen eutsoenai, 1.784ko urtean Urrillaren 14an jaio zan Eskorialeko San Lorentzo´ren jauretxean, eta 1833ko urtean Iraillaren 29an Madrillen il.

(1) VIIIn Fernando “*Naigarria*” edo “*Itz-usteleko erregea*” = el deseado, o, el rey felón.



Yo el Rey



***VIIIn Fernando´ren argazkia gudar kapitaiñ nagusiaren jantziagaz
Bere idazt zirriborroa eta bere armaria***

1.808ko urtearen Epail eta Loraillaren artean izan zan errege, eta I Napoleonen anaia I Jose frantzeza bota ebenean, 1.814ko Loraillatik, 1.833ko urtean il zan arte, 1.823ko urtean erregetzaren aolkularitzagaitik kendu eben denbora gitxian izan ezik.

IVn Karlos erregea eta bere emaztearen Parmako Maria Luisaren seme ta ondo-rengoan zan.

VIIIn Fernando errege onek Baionan bere aitari emon ondoren osteran erregetza, espainitar askatasunezko guda guztia egin eban Napoleonengaitik baituta Balenzayeko jauretxean, benetako errege lez onartuta, espainitar erregeen aolkularitzazko erakundeagaitik, ta Kadizen egon ziran gudar nagusien gorteagaitik.

Ingelesak I Napoleon menderatu ebenean, Bere anai I Josek alde egin eban espainitarren lurraldeetatik, eta VIIIn Fernando espainitar errege aulkian osteran, laster agertuko zan au, al-osokerizko errege lez.

1.808ko urteko Epailaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda lortu eban, IVn Karlosek erregetza bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan itzi egian.

1.808ko urteko Jorraillaren 15ean VIIIn Fernando, Napoleonegaz Baionan alkar-tzeko Gazteizen egoala, Bizkaitarrek gure Lege Foruak ziñez izenpetzeko, Gernikara joateko eskatu eutsoen.

Eta 1.808ko urteko Jorraillaren 15eko egun berean, Bizkaitar beste talde bat be aurreratu jakon, indarrez ipinita eukezan portuko kapitañak edo gudar buruzagiak kendu egia zala, Bizkaitarrak bere jaunagaz euki ebazan arremen onak, osteran bere onera ekarteko.

1.808ko urtean Jorraillaren 17an VIIIn Fernandok, euki genduzan Foru Lege guztiak baieztuz, gauza biak onartu ebazan, eta agindu ebazan bear ziran aldaketak egiezala, Bizkaitarrak euren egokitasunezko askatasunean jarraitu egien.

1.808ko urtean Loraillaren 6an Napoleonek, IVn Karlos eta VIIIn Fernando Balenzaiko gazteluan atxilotuta eukazala, gortearen ekintzazko antzeko bat egin eban, bere anai Napoleon eta Bonapartetar Jose espainitarren errege aulkian ezartzeko.

Napoleon eta Bonapartetar Josek, Bizkaiko Urkijotar Mariano Luis, bere ordezeko ministroa, eta Mazarredotar Jose Domingo gudaontziren ministroa izendatu ebazan, eta Mazarredotar Jose Domingo Bizkaiko Batzar Nagusietan buru zala, I Bonapartetar Josek, itz emon eban Bizkaiko jaun lez.

Napoleonentzat baiña, gauzak ortik aurrera okertzen asi jakozan, eta a ta guzti, Napoleonek Euskal Nortasuna onartu ta be, berak Europako Laterri guztiak lez, Euskal izaera Frantzez biurtu gura eban.

Frantzek IVn gizalditik asi ta, beti ekarri dabelako azpian batu zaletasunean marratuta meneko eritzi ori, eta asmo oiekaz, Munduko Kaizar baten agindupean elburutu gindezan.

1.810eko urtean Iraillaren 24an, gudar nagusiak, Kadizeko gorteetan erregearen ordezkoa egiten egon zirala sortu eben *“espainiar jaurgo barria”*, eurak aitu edo gura eben espainiar guztientzako ezarri bear zala ta, Euskal Lege, Nortasun eta Berezko erri lez euki genduzan eskubideko askatasunak kontuan artu barik.

Gudalburu nagusiak emen, guda indarragaz arrotuta eta erregearen gainetik kokatuta, irasitako jaurgo barri ori, danez gain ezarri gura eben.

Baiña begitu zer agertzen da emen: *“espainiar gudar nagusiak erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren legepean beartuta ezarri ebela”*.

Gudar nagusi arek, zelan egin ebazan gauza areik, erregearen gainetik eurak ez ba ziran inor lege orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik, European nortzuk euki eben agintaritzazko indar nagusi ori, azpiko aolku orrekaz laterritasunen kaizartzazko batzangotasun orreik ezarri zitezen ?.

Danok dakigu, diru zalekeri aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta Mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gainetik European aolkulari nagusi ta bakarra 1.685 urtetan.

Erregeari, gudar nagusiak gainean ipini jakozan antzera baiña, berari diruaren zaletasunezkoak gainean ipini ote jakoz ?.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, VIIIn Fernandok ezereztu ebezan Euskalerrri eta Bizkaiaerentzat batez be menpeko lege orreik.

Baiña leen espainiar gudataldeakaz eta gero Frantzesarenakaz ia bost urtetan, iru bider orren aldizkan ainbeste nekaldi ekarri ondoren, beste garrantzizko gauza bat sortuko zan gure Euskalerrri maite onetan: *“Batzuk Frantzez zale eta beste batzuk espain zale egin zirala*, Euskal gizartearen Baita naspillatuta, gero espainitar jaurpideekin eta karlistadaren guda bidetik, geiago naastuko zana.

Mendizabalek⁽¹⁾ orregaitik, Kadizen egoan espainiar gudar gorte edo guda yaurlari⁽²⁾ agindupean sortu zan konstituzioaren legezko jaurgo barri ori, Bizkaian ipini gura eban, Euskalerrriarentzako Zeruaren oneitariko atsegin sari bat lez, espainiarren beste lurralde bat geiago izan edin, eta orretaz alegindu zan.

Espainiarren gizarte guztia emendik aurrera alderdikidetu egingo zan, espainiar konstituzioaren alde edo jaurgo barriagaz aurrera egin gura ebenak, eta lengo antzera, erregearen al osokerizko agintaritza gura eben artean.

(1) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa judutar sendi baten. (2) Guda yaurlaria = gobierno militar.

Wellingtonek Rodrigoko Uria artu ebenetik, Salamankara joan zan, Frantzezaren gudaletzeki, bideak ebagitzeko Madrid eta muga bitartean.

1.812ko urtearen Uztaillaren 22an Wellington dukeak, bere Ingeles 7 talde gudari aundi, espainitarren eta Portugez talde bi nagusiekin sasigudakoagaitik lagunduta egon ziren aginduan, Portugaletik asita, Arapileseko⁽¹⁾ erriko mendietan aurkitu ebazan Marmont mariskalaren Frantzez gudaletzeki, ta menperatu ebazan borroka orretan, Andaluzitik bota ebazan.

1.812ko urtean Urrillaren 17an indar eta maltzurkerizko auteskundean aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariai, Kadizen egoan guda yaurlariaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, espainiarren jaurpidezko agiri orreik izenpetzeko.

1.812ko urtean Azaroaren 1erako antolatu zan, espainiarren jaurgio agiri barri orreik, Bizkaiaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero ziñeztu zitezzen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812ko urtean Abenduaren 13an jaurgio orreri ziñ egin ondoren, Euskalerrriaren iru lurraldeko Udal guztiari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako, espainiar eritziko ordezkariak aukeratu egiezala, Euskalerrri ta Bizkaiko gizartea, oiñaze ta nekaldi aundi baten sartuta. *(Onek bai katolikotasunean batzangotzeko, norneri aundiko legeak, espainiarrak emen asten dabezanak ibiltzen Euskalerrri, Kaluña eta Galiziaren aberritarrezko eskubideen aurka. EZ?)*

1.812ko urtean Abenduaren 31n, ostera sartzen dira prantzez gudaletzeki.

1.813ko urtearen Bagillako illa erdian, ostera urtetan dabe Prantzez gudaletzeki Bilbotik.

1.813ko urtean Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen, Napoleonen gudaletzea menperatzen dau, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, espainitarren lurralde guztiko gotzaiñak asi ziran keiñatzaile esaten, *“espainiar ordezkariagaitik iñork ez egiela txarto berbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak sartu ez zitezzen”*.

Eta orretarako, espainitarren eleiz guztietan, urte guztietako Epaillaren 19an “Te Deum”a abestu egiela agindu zan, espainitarren jaurgio zaleak ekarten eben askatasun omenez.

1.813ko urtean Abenduaren 11n, Frantziko lurraldean eta I Napoleonek, VIIIn Fernando atxilotuta eukan Talleyrand'en gazteluan ospatu zan Balenzay'ko ongundean, Napoleonek, onartu bear izan eban VIIIn Fernando'ren erregetza, espainitarren askatasunezko borrokari amaiera emonda.

1.814ko urtean Epaillaren 7an askatu eben VIIIn Fernando berentzat Muga-txartela emonda, Balenzaytik urteteko.

